


Hitza hitz

Txillardegirekin
solasean



JOXEAN AGIRRE

ELKAR

AZALA
Diseinua: J. Felix Igartua
Azpiko argazkia: Aitor Bayo
Aurreko eta barneko argazkiak: Karlos Corbella

© Jose Antonio Agirre Odriozola.

© ELKAR, S.L. Donostia. 1996

L.G. NA-1.520/1996

ISBN 84-7917-611-3

ELKAR S.L. Argitaletxea
Igarabidea, 88-bis - Tel. 310267 - Fax. 310216
20009 Donostia
Pannecau, 52 - Tel. 0559254390
64100 Baiona

HITZA HITZ

TXILLARDEGIREKIN SOLASEAN

KONPROMEZU BATEN ZERBITZURA

Elkarrizketa bakoitza frakasu txiki bat da kazetaria-
rentzat. Oso gutxitan lortzen du aurrean duen pertsonaren
barrenean sartu, eta bertan dauden ezkutoki ilunetan ezer
garbi ikusterik. Eta, hala ere, behin eta berriz saiatzen ga-
ra, aldez aurretik ezinezkoa dela jakinik ere, hurkoaren
oinatzetan norabideak aurkitzen.

Peter Michelmores, Einsteinen biografoak kontatzen
duenez, inguruan duen jendearen gizalege eskasak maiz
sortzen dizkion higuinaldien kontra ez omen du aurkitzen
gutziz bestelakoak diren gizakien bizitzari begirada bat
ematea baino erremedio hoberik. Sokrates, Asisko San
Frantzisko, Newton eta Einstein aipatzen ditu aliritzira.

Bakoitza berean, noski, eta konbarazioak alde batera
utzita, guk ere baditugu eredugarri izan diren giza-ema-
kumeak. Txillardegiren bizitzak, esate baterako, badu al-
derdi miresgarririk. Oraindik haurra zela sumatu zuen hil-
tzen ari zen hizkuntza baten aldeko grina eta debekaturik
zegoen aberri baten nostalgia. Bata bestearekin loturik
dauden bi maitasun eta bi samin handi horiek gidatu dute

bere bizitza. Oso gazterik abiatu zen borroka horretan, eta gutxik bezala, atsedetik gabe, eutsi dio bide horri bizitza osoan zehar. Ez du beharbada, zenbaitek bezala, komunikabideetako lehen planorik askotan okupatu, ez du ekin-tza ikusgarririk burutu, ez du beste batzuek adina abarrotsik atera. Baina, hala ere, gaurko Euskal Herria markatu duen gizonetako bat izan da Txillardegi.

Bere konpromezua politikoa izan da batik bat. Eta konpromezu goiztiar horrek mila zorion eta ezbehar eka-rriri dizkio. Hogeita hamar etxetik gora aldatu zituen erbestean egin zituen urte luzeetan, horietatik gehienak pre-saka, poliziak horretara beharturik. Diotenez, erbestea, bakardadea eta herrimina, nortasunik sendoenak ere menderatzen dituzten gaitzak dira. Txillardegik denak probatu ditu eta hala ere tinko eutsi die bere irizpideei.

67 urte ditu liburu hau bukatzean, gure plaza bazterre-tan eserita ikusi ohi ditugun agure askoren edadea, eta ha-la ere, hitz egiten hasten delarik, nekez pentsa dezake entzuleak adineko gizon baten aurrean dagoenik. Unibertsi-tatera bere maleta aldean duela, edo zakurrak askatu eta Amasako bidezidorretan gora doalarik bakarrik suma die-zaiokegu, gorputzaren okerduran, nagitasunean, urteek zertxobait pisatzen ote dioten.

Gauza asko da Txillardegi. Literaturgile, idazle, hiz-kuntzalari, ekintzaile, pentsalari eta beste zenbait gehia-go. Baina badago modatik pasatako kontzeptu bat bere bi-zitzako ahalegin nagusienekin bete-betean koadratzen duena, ezer baino lehen intelektual konprometitua izan baita.

Bere lema, bizitza bat lema bakar batera biltzea zilegi den neurrian, erradikaltasuna izan da, nolabait Sartreren “radicaliser, toujours radicaliser” hari segituz; lema horren

itzulpen librea egin du eta “oker ala zuzen, beti erradikal-ki jokatu” edo gisako ideia bat ikurtzat hartuz egin du bere bide luzea.

Jarrera horri esker, arrasto sakona utzi du Txillardegik gure artean.

Orain dela hogeit hamar urte Joan Mari Torreldaik *Euskal idazleak*, gaur egin zuenean, inkesta bat zabaldu zuen euskal irakurleen artean. Argitara eman zuen idazle maitatuenen ranking-ean Txillardegik okupatzen zuen lehen postua...

Gaur gauzak aldatu egin dira. Gazteen artean ez du idazle honek itzal berezirik. Esan beharra dago bere nobelak tesi-nobelak ere badirela neurri batean, *Haizeaz bestaldetik* sailkagaitz hori izan ezik beharbada.

Linealak, linealegiak dira. Ez dira teknikaz oso modernoak. Egia da baita ere ez ziela Txillardegik bere garaiko korrante literario modakoenei jaramon handirik egin. Ez ziola jarraitu “nouveau roman” frantsesari, ez errealismo magiko hegoamerikarrari, edo mende hasieratik literatura modernoa markatu zuten Joyce, Beckett, Pessoa, Kafka eta beste hainbati ere. Bera moda guztietatik at ibili da beti, eta moda guztien kontra ere bai.

Literaturari gagozkiolarik, bere *Leturiaren egunkari ezkutua*-k aro berri bat inauguratu zuen, Arestiren *Harri eta Herri* poema-liburuarekin batean, euskal literatura modernoan.

Alabaina, kritiko ugari izan ditu Txillardegi idazleak. Nobela horiek eskematikoegiak dira, zioten. Pertsonaiak ez omen dira aitzakia bat baizik bere kezka metafisikoak agertzeko, orrialde horietan apenas dagoen poesiarik. Garaiko erronka intelektual eta sozialei erantzuteko darabil luma. Eta halaxe izan daiteke, izan ere Txillardegi mate-

matikoa, razionala eta logikoa baita maila askotan, eta baita literaturan ere. Razionaltasun hori nabari da bere prosaren plegu urduri eta argian. Argitu nahi hori nabari da bere pentsaera lanetan, oraindik ere harriduraz irakurtzen dugun *Huntaz eta hartaz* saiakera liburuan.

Profesioz injineru da eta urteak egin ditu Bruselan edo Iparraldean egitura betoizkoak kalkulatzeko eta ahalegin bertsuarekin saiatu da urteetan euskararen egitura sakonak argitzen ere.

Euskara Batuaren aitzindari izan zen Krutwigekin baitan, artean euskaltzain gehienak duda-mudatan zebiltzanean. Eta euskararen normalizazioaren aldeko ekintza guztietan hartu du parte.

Hala ere, bere aportazio nagusia, gure historia hurbila erabat markatu duena, Ekin-en sorrera izan zen. Hortik abiatzen dira bere biografiaren hari nagusiak, eta hortik abiatuko gara gu ere elkarrizketa luze honetan.

Baina Txillardegik euskal gizartean utzi duen itzalaren atzean badago gizon bat ere, tarteka bero eta sutu, inoiz gogor eta setatsu, baina gehienetan samur eta maitakor agertzen dena. Elkarrizketa honetan gizon horren barruan sartzen saiatu gara etengabe. Alfer samarrik, hala ere, gehienetan, itxura guztien kontra, uzkur eta bakartia baita Jose Luis, eta bere gorabeherak bere baitan gordeztearen aldekoa.

Joxean Agirre

Zein izan dira zure bizitzako gailurrak, intentsitate handienaz bizi izan dituzun aldiak edo zeure prinzipioen arabera bizi izan dituzun boladak?

Nik bi bolada aipatuko nituzke. Lehena eta garrantzizkoena Ekin sortu genuen garaia izan zen. Seguru asko neure buruaren gizarteratze prozesuarekin kointziditu zuen. Lehendabiziko aldia zen etxetik kanpo bizi nintzela, Bilbo bezalako hiri batean eta, bestalde, gaztetan gauza berriak egiteko gerora ez dugun indarra izaten da. Ume mukizu batzuk ginen eta mundu guztiaren kontra mugimendu bat abiatu genuen. Zerbait inportantea egiten ari ginen sentsazioa genuen, eta hori oso gutxitan sentitu ohi da bizitzan.

Bigarren momentu bat apartatu behar banu, Franco hil eta Hegoaldera itzultzea erabaki genuen unea aukeratu nuke. Seme-alabak beren gisara moldatzen hasiak ziren eta Hegoaldean aro berri bat zabaltzen zela sumatzen genuen. Bete-beteen zeuden orduan erreformak zabalduko bideak baliatu behar genituen edo ez erabakitzeko eztabaidak. Hemengo gizartearekin lotura guztiak hautsiak nituen. Ez nuen adiskiderik ere dagoeneko, hamasei urte luze kanpoan egin eta gero. Dirurik ere ez

nuen. Eta Baionako lana eta dena utzi eta itzultzea erabaki genuen. Niretzat bizitza berri bat hastea bezala izan zen. Oso erabaki zaila eta aldi berean aberasgarria.

Ez al duzu gehiagotan izan zerbait berria egitera zindoazen sentipenik?

Bai, bai. Askotan izan dut sentipen hori, baina oso gutxitan irauin dit. Ez naiz ni erakunde batean eroso sentitzen den pertsona. Ekin-en sentitu nintzen eroso luzaz, baina ETA sortu zelarik, azkar agertu ziren arazoak, eta bakardade politikoa ezagutu dut urte askoan. Gero ESBn sartu nintzelarik ere, espultsatu egin ninduten. EHEren sorreran hartu nuen parte, baina mugimendu hori instrumentalizatzeko operazioak sumatu nituen segidan, ezker abertzaleko erakunde batzuen aldetik, eta kontra egin behar izan nuen. Orain HBn nago eta segituko dut, baina posizio kritikoetan, eta ez naiz beti eroso sentitzen. Momentu horietan Parisen ezagutu nuen Josep Pallach izeneko Moviment Socialista de Catalunya-ko kide batek esaten zuenarekin gogoratzen naiz, esaten baitzuen politikan % 51n konforme egotea, aski zela alderdi batean egoteko. Talde batekin erabat ados egotea utopia bat da.

Zuk idazle, politiko edo intelektual bezala definituko zenuke zeure burua?

Ni askoz ere erosoago sentitzen naiz intelektual bezala eta uste dut hori izan dela nire lana. Sartrek esaten zuen, oker ala zuzen, radikalki pentsatzea zela intelektuaren egitekoa, eta ni ere horretan saiatu naiz.

Oso garbi dut, bestalde, ez naizela “politikoa”. Politiko horiek beti momentuko komenientzien arabera hitz egin eta lan egiten dute, taktiken mesedetan ari dira. Ni

maila ideologikoan mugitu izan naiz, ez estrategiaren mailan, eta are gutxiago taktika aldakorrenean. Gainera, gauza bat pentsatu eta bestea esateko, beste kasta batekoa izan behar da eta ikuspegi askoz ere pragmatikoagoa behar da. Nik ez dut balio “politiko” izateko, nahiz, ustez bederen, helburu politiko abertzaleen alde jokatu neure bizitza osoan barrena.

Edozein modutara ere Herri Batasunako Mahai Nazionaleko partaide izan zara urte askotan eta koalizio horretako senadore ere bai bi legealditan.

Egia da, baina ez naiz horregatik politiko sentitu. Bost edo sei urtez izan naiz Mahai Nazionaleko partaide, baina kargu horretan nengoelarik ere beti sentitzen nuen erabaki funtsezkoak beste batzuek hartzen zituztela, nik ez nuela ezer agintzen, alegia. Adibide bat jarriko dizut. Ni ofizialki Iparraldearekiko harremanen arduraduna nintzen. Egun batez EMArekin harremanetan hasteko agindua jaso genuen. Nik ez nekien ezertxo ere horretaz, ez zergatik ordurarte ez, eta bat-batean bai. Uste dut Txema Monterok esan zuela alderdi militarizatu bateko partaide sentitzen zela. Nik ez nuke horrenbeste esango, baina erakunde militar bat indarrean dagoen bitartean, HB bezalako koalizio batean erakunde horren pisua oso nabarmena izango da ezinbestez. Gero ez dut uste hala izango denik, ez luke izan behar; baina borroka armatua dagoen bitartean ezinbestekoa iruditzen zait. Horregatik KASek edo nik ez dakit nork erabakitzen zuen Mahai Nazionalean, eta nik beti izan nuen mugimendua beste batzuek zaintzen zuten inpresioa.

Guk hauteskunde kanpaina nola antolatu erabakitzen genuen, baina hauteskundeetan parte hartu behar zen ala

ez beste batzuek erabakitzen zuten. Kontuan izan Mahai Nazionalaren erdia KASekoa zela. Orain esaten duten moduan, halako “defizit demokratiko” bat zegoen. Hone-taz seguru zerbait badakiela Gerry Adamsek ere.

Eta zer moduzko esperietzia izan zen zuretzat sena-dore izan zinen bi legealdietakoa?

Ez ziren bi legealdi osorik izan, bat eta erdi baizik. 86-89 legealdia osorik egin nuen, ez baikenuen parte har-tu Espainiako Legebiltzarrean eta Senatuan. Ez ginen jo-an kredentzialak hartzera ere. Bigarren legealdian, ordea, 89-93koan, kredentzialak hartu eta tarteka parte hartzea erabaki genuen. Jose Luis Elkorok eta Iñigo Iruinek ez zuten arazorik izan, baina niri inkompatibilitateen legea aplikatu zidaten eta unibertsitateko funtzionario nintze-nez, senadore karguaren edo nire lanaren arteko aukera egiteko esan zidaten. HBtik unibertsitatean ezedentzia bat hartzeko gomendatu zidaten eta halaxe egin nuen. Bero-nika Azpillaga irakasle gazteak hartu zuen nire ordezkari-tza unibertsitatean, eta horrela funtzionatu genuen bi ur-tez, baina bi urte pasatu zirelarik, Espainiako erakunde horiek HBko hautatuei beren soldata ukatzea erabaki zu-ten. Beste bi senadoreek, esan dudan bezala, beren lane-tan segitzen zuten, baina nik ez nuen diru-iturririk bizitze-ko. HBtik soldata bat ordainduko zidatela esan zidaten, baina ez nuen onartu nahi izan, eta neure kargua ondo-rengoari utzi nion, Eva Foresti; eta ni unibertsitatera itzuli nintzen. Bien bitartean katedrarako plaza bat atera zen eta aukera pertsonal batzuk galdu nituen, baina hori da gu-txienekoa.

Bigarren legealdi horretan gertatu zen Alcalá Hoteleko atentatua ere. Zer oroitzapen duzu egun hartaz?

Oso oroitzapen gogorra. Mila bider kontatu dut egun horretako berri, baina berriro kontatuko dut labur-labur. Goizean Legebiltzar eta Senatuan izan ginen kredentzialak hartzen. Gure paperekin batean garajerako giltza, ez dakit nik zenbat seguru eta zera ematen zizkiguten, eta bazkalondoan hotelean bertan geratzea erabaki genuen, 20-N baitzen eta fatxak erabat harroturik baitzebiltzan Madrilen.

Lau diputatu eta hiru senadore ginen. Arratsaldea hotelean pasatu, eta afaltzen ari ginela gertatu zen atentatua. Bi kazetari ere gurekin ziren, Xabier Oleaga prentsa-arduraduna eta Teresa Toda, orduan Madrilen Egin-eko korrespondentsal zegoena.

Nik oso garbi ikusi nuen nola sartu ziren eta nola pistolak atera eta tiroka hasi ziren. Mahai azpira sartzeko erreflejua izan nuen eta han Jose Luis Elkoro eta biok egin genuen topo, mahai gainean tiroak entzuten ziren bitartean. Horrelako gertakari baten ondoren, irudi batzuk geratzen dira: Josu Muguruzak, erdi-hiliek, lurrera erortzen ari zen bitartean, mantela eraman zuen berarekin eta lurrean platerak, botilak eta basoen kristal hautsiak geratu ziren. Esnaolarekin ere gogoratzen naiz nola odol-putzu handi baten erdian geratu zen. Hiliek zegoela ematen zuen, baina hitz egiten zuen eta laguntzera etorri zirenek ez mugitzeko esaten zioten, badaezpada ez mugitzeko. Xabier Oleaga izan zen momentu horietan tenplerik gehien erakutsi zuena, eta atentatuaren ondoren ondoen erreakzionatu zuena.

Irudi horiek behin eta berriz ibili ditut buruan buelta-ka, baina ez dut uste lokamuts izatera iritsi direnik. Nik behinik behin ez dut uste.

Gertakari bortitz horrekin hasi zenuen bigarren legegaldi horretan zer egiteko izan zenituen zeure esku senadore bezala?

Nire egiteko nagusia HBko ordezkari bezala hara eta hona bidaiatzea izan zen. Frantsesa eta ingelesa nola-hala menderatzen nituelako aukeratu nindutela uste dut eginkizun horretarako. Europako herri zapalduetako jendearekin harreman estuak egin nituen, gero harreman horiek neurri handi batean utzi baditut ere, nolabait ordezkaritza politikoaren izenean egiten baitira zubi horiek. Hala ere, orduan ezagutu nuen Letoniako parlamentuburuarekin harremanak izan ditut geroztik ere eta Esloveniako jendearekin ere bai.

Zuk Europako herrialde zapalduak nahikoa gertutik ezagutzen dituzu. Nolako da Euskal Herriaren egoera, konparazioak egiten hasita?

Nik Eslovenia dela uste dut Euskal Herriaren antz handia izanik gu baino egoera hobean aurkitzen den herrialde bat. Bi milioi bizilaguneko herrialdea da. Komunismotik atera berria izanik ere, oso moderno da. Kontuan izan behar da Austriaren mugan dagoela eta herrialde industriaduna dela. Urbanismo aldetik komunismoaren eragina nabari da, etxegintzaren proletarizazioan, esate baterako, baina baditu baita ere *Belle Epoque*-ko villaz jositako parajeak. Unibertsitatea du eta oso herrialde europarra da alde askotatik begiratuta. Hizkuntzari gagozkiolarik, erabat radikalak dira, eslovenoz hitz egiten dute,

inoiz ez alemanez. Bestalde, bertako jende askok frantse-
sa, ingelesa eta batez ere alemana hitz egiten dute.

Nik neuk, gure eredu bezala, Esloveniaz gainera beste herrialde bat aipatu beharko banu, Kalalunia hautatuko nuke. Hizkuntza kontuetan oso aurreratuta ikusten ditut. Politikoki ez dakit nik zer lortuko duten, baina egunen batean zerbait egiten badute, herria hor dute prest askatasunaz baliatzeko. Herria eginda dute.

Eta gu baino okerrago dagoen herrialderik?

Oraindik orain etorri da nire ikasle bat Galesen lau hilabete egin ondoren. Hango egoera soziolinguistikoaz tesi bat egiten pasatu ditu lau hilabete horiek eta oraindik lan hori ondo aztertu ez badut ere, Galesen Euskal Herrian baino okerrago daudela esango nuke. Galesen hiru milioi dira. Baina ez dute egunkaririk. Telebista astean 30 ordu bakarrik dute. Ez dute kate propiorik gainera eta ingelesezkoekin nahasian emititzen da galesezko programazioa.

Herrialde baltikoetan ere arazo larriak dituzte, emigrazioarekin batik bat, Stalinen garaian emigrazioa herrialde haietan ere arma politiko gisa erabili baitzen.

Uste al duzu Euskal Herrian ere emigrazio masiboak ondorio larriak utzi dituela?

Frankismoak emigrazioa arma politiko gisa erabili zuen. Horretan ez dago dudarik, eta ez dakit zergatik ez diren gertakari horren ondorioak sakon aztertzen. Halako beldur bat sumatu dut beti gai honi buruz hitz egin behar den bakoitzean. Emigranteek, pertsona bezala, eskubide guztiak dituzte, baina kolektibo gisa ez dut uste Euskal Herrian teoriarik behinik behin inolako eskubiderik behar

zutenik. Gure eskubideak onartzen dituzte ala, bestela, zapaltzaileen agente bihurtzen dira.

Gure egoera, ordea, herri erabat zapaldu batena da: hemen atzerritarrak etxean sentitzen dira eta gu erabat erbestean. Eustakio Mendizabalek idatzi zuen horrelako esaldi bat, alegia, bere herrian deserrian sentitzen zela. Nik sentipen hori egunero izaten dut. Letoniako eredu aipatuko nuke. Han errusiar jatorriko jende asko dago, baina ez dute eskubide politikorik. Errusiarrak dira eta atzerritar gisako eskubideak dituzte, ez besterik.

Emigrazio masiborik izan ez balitz, gure egoera politikoa askoz ere hobea izango zela pentsatzen duzu?

Seguru nago horretaz. Begira, lehengo batean esplikatu zidaten Tuteran ere arazo larriak dituztela Soria, Errioxa eta abarretik etorritako emigrante multzoekin. Eta han ez dute integratzeko hizkuntza arazorik izan. Nik badakit emigranteek ez dutela indibidualki horren errurik, baina fenomeno horrek ondorio larriak utzi dizkio herri honi. Euskal Herria herri okupatua da alderdi askotatik, eta demografia aldetik ere bai. Herri bat tamaina honetarako zapaltzen denean, ez du balio demokrazia hitz egiteak. Demokraziak oso zentzu eskasa du herri bat zapalduta dagoenean edo, gure kasuan bezala, bertakoak minorian gaudenean.

Honek guztiak ba al du zerikusirik maiz aipatu ohi den bi komunitateen auziarekin eta, ondorioz, botoaren zatiketarekin?

Euskararen mapa eta boto abertzalearen mapa gauza bertsua dira. Ez dut esango gauza bera direnik. Euskaldun saldu asko ezagutu ditugu, bi mapek erabat kointzidi-

tzen dutela pentsatu ahal izateko; baina, oro har, harreman estua dago bi mapen artean. Francok horretan ondo asmatu zuen eta bazuen gainera prezedenterik. Hego Tirolen, esate baterako, gauza bera egin zuen Mussolinik, eta gauza bera egin dute herri zapaldu bat suntsitu nahi izan duten guztiek: lehenbizi militarki gainditu, ondoren zapalkuntza egitura bat eraiki, eta azkenik emigrazio masiboa bideratu.

Zuk zeuk zuzentzen duzun “Bat” aldizkariak Europa-ko herrialde zapalduen ezagutza sakontzen lagundu duela uste al duzu?

“Bat” aldizkari soziolinguistikoak 19 ale jarri ditu dagoeneko kalean. Geroztik EKBk, esate baterako, sail berezi bat zabaldu du soziolinguistikari eskainia. Uste dut kultura soziolinguistikoa zabaltzen ari garela. Horretan behinik behin gerra aurretik analfabetoak ginen eta orain zertxobait gehiago dakigu.

Zu 1929an jaio zinen. 67 urte dituzu beraz. Zer asmo duzu orain bertan. Lanean segituko al duzu?

70 urte arte lanean segitzeko asmoa dut. 65 urterekin erretiroa hartzeko eskubidea dugu. Noski, lanean segitzeak diru aldetik ere abantailak ditu, baina ez dut horregatik egiten. Lanean segitzea erabaki badut, errealitatearekiko lotura galtzeko arriskua ikusten dudalako da. Ni izatez bakartia, uzkur samarra naiz, eta gainera baserri honetan sartuta, pianoa ondoan dudala, pentsa!, eretzeko edo erabat arraro bihurtzeko arriskua nuke. Beraz, neure burua pixka bat bortxatu beharra daukat eta helburu hori jarri diot: lanean segitzea. Zergatik? Harremanei eusteko ezinbestekoa delako eta lanean segitzeak munduarekiko kontaktua segurtatzen didalako.

Itzul gaitezen haurtzarora une batez. Donostiako Antigua auzoan jaio zinen 1929ko irailaren 27an. Nolakoa zen, labur esateko, "Antigua" liburuan deskribatzen duzun zure haurtzaroko Antigua hori?

Gaur ezagutzen dugun Antigua, Miramar azpiko tunelerainokoa, oso gauza berria da: Maria Cristinaren jauregia egin ondorengoa. Miramar Jauregia eraiki artean bazegoen donostiar guztien artean halako kidetasun zahar bat. Eta horixe da Madrilgo gortearen etorrerak eten zue-na. Etorrera horrek jauntxoan harropuzkeria eta jendearen erdalkeria ekarri zituen 1893 inguruan eta horrela jaio zen Antigua berria. Antigua horretan Madrilgo udatarren joerak eredu bihurtu ziren, Miarritzen Paris eredu bihurtu zen bezalaxe.

Hori neure familian sumatu ahal izan nuen. Nire ama-arentzat udatarrek markatzen zuten bizimoduaren eredia. Oso gazteak ginela, esate baterako, teniseko bazkide egin gintuen anaia gazteagoa eta biok eta hara joan behar izaten genuen tarteka, emakume ezagunei eskuetan muin eman, gizonezkoei agur egin, eta ez dakit zer egitera. Nik orduan ere gorroto bizia nion udatarren mundu horri.

Garai horretan sortuko zen, beraz, hainbat aldiz aipatu ohi den donostiarkeria?

Erreginaren etorrerak Donostiako gizartea aldatu zuen, eta areago Antiguakoa. Pentsa!, hektarea bakar batzuk zituen mikrokosmos txiki batean Madrilgo gortea, Lugarizko nekazariak eta Ibaetako industriariak elkar-gainka pilatu baitziren. Hala ere, aldakuntzak Donostia osoari eragin zion. Mendearen hasieran Bulebarrean, esate baterako, gizarte-klase bakoitzak bere ibilbide berezia zeukan. Euskaldun petoak “kaxero” bihurtu ziren eta erdaldunak “kaballero” dotore. Eta eskema hau barneratu ahala, donostiarkeria errotu zen.

Gutxietsi-min horrek jota donostiar askok gortera jotzen zuten neguan ere, edo atzerrira “karrera” egitera. Bertako jauntxo asko “visitante distinguido” bihurtu ziren, baina ez Donostiako egoiliar. Gauza bera Antiguan: Lemery jenerala, Barkaiztegitarrak, Calbeton, Lasalata-rrak, Madrilen bizi ziren eta uda pasatzen zuten Antiguan.

Mende hasierako Antigua horretan lau metro koadroko etxeetan bizi ziren familiak, ur geldiek izurriteak sortzen zituzten, edateko urik ez zuten etxe askotan, kutsadura handia zegoen, baporezko motoreen zarata, usain eta kiratsak zeuden. Alabaina, Antiguako jende zaharrak aho batez kontatu didanez, etxe-jabe aberats horiek, aldamean egunero sumatu arren, ez zuten miseria hori ikusi ere egiten.

Hizkuntzari dagokionez, euskaldunak al ziren bertako herritarrak?

Hizkuntzari dagokionez, industriarekin batera hizkuntz borroka hasi zen Antiguan, baina euskara zen nagusi, Donostia inguruko auzo guztietan bezalaxe. Donostia-

ko kalean ari zen gaztelania indartzen, mende hasieran Gabilondok, “Kalei-kale” gaitzizenekoak, idatziz agertzen zuen bezala: “Pronto ya nadie distinguirá un errico-
-seme de un belarri-motz” eta ondoren garaiko moda zenbait salatu zituen: “esas actuales flamencomanías y chulaperías de mal gusto”. Euskara, mespretxatzen zelarik ere, beharrezkoa zen. Medikuen kontratuetan esijitu egiten zen eta udal-karguetan berdin. Handizki zenbaitek ere jakin bazekiten. Nik egoera euskaldun horren zantzuak ezagutu ditut haurtzaroan.

Zer zertzelada gogoratzen zaizkizu, haurtzaroan giro euskaldun hori nabaritzen zenuela esateko?

1937 inguruan, ni Lourdesko eskolara joaten nintzeanean, elizaren ondoan Mintegi ahizpek zuzentzen zuten eskola mixtora alegia, oso ondo oroitzen naiz nola Aietero mutiko batzuek ez zekiten erdaraz.

Gogoratzen naiz baita ere behin amarekin Zapataritik gora itzuli bat egitera Iza inguruko baserri batera joan, eta hango baserritar batekin nola euskaraz hizketan luzaz aritu zen; nik, jakina, ezer konprenitzen ez nuelarik, edo ezer gutxi bederen.

Beste batean Errotaberri inguruan, Igaran, oso gazte ginela, 1945ean edo, baserritar baten sagastian sartu ginen sagarrak harrapatzera, eta baserritarra agertu zelarik, euskaraz errietan hasi zitzaigun. Nirekin etorria zen adiskidea sunbillarra zen, eta euskaraz erantzun zion eta istilua baretu egin zen. “¿Los navarros hablan vasco?”, galdetzen nion neure buruari...

Urte batzuk beranduago, 1948 inguruan, egunero joaten ginen koadrilakoak Errotaberri inguruko errekatxora. Eta batzuetan, sagardoa edatera baserrira igotzen ginen

Bertako mutila zen Kandido, gure adinekoa, eta ez zen gauza gurekin hitz bakar bat trukatzeko; gu erdaldun hutsak baikin.

Uste dut kasu horiek nahiko adierazgarriak direla, baina beste zenbait ere etortzen zaizkit burura. Etxetik oso hurbil ikaztoki bat zegoen eta Danieltxo izeneko mutil gizajo bat ibiltzen zen ikatza banatzen. Esan bezala, gizajoa zelako edo, gu beti adarra jotzen ibiltzen gintzaizkion, gaztelaniaz noski, eta gogoratzen naiz behin, erabat haserretu zen batean, sekulakoak esan zizkigula, baina euskaraz.

Alabaina, etxean zuek gaztelania baizik ez zenuten erabiltzen.

Ama euskalduna zen, nahiz donostiarra izan, baina euskara neskamearekin edo esnezalearekin hitz egiteko erabiltzen zuen. Bere familia jatorriz Oñatikoak zen. Bere aita, Felix Enparantza Leturia, zilargilea zen edo antigoa-lekoen saltzailea. Nik amari eta izebari beti entzun izan diet etxea gauza zaharrez beteta izan ohi zutela. Berak esan ohi zuenez, erdaraz “Bitorixan” ikasi zuen eta ondoren Ameriketara, Uruguayra, alde egin zuen soldaduskatik ihesi, 17 urtetik 26ra bitartean beharbada, preskripzioa deitzen ziotena lortu arte. Eta ondoren etorri zen Donostiara, antiguedadeak inori saltzekotan madrildar udatiarrei salduko zizkiela pentsatuz. Amak etxean giro euskalduna izan zuen, ondorioz, baina euskal giro hori erabat ahuldua zuen dagoeneko.

Nire amak, Maria Enparantzak, piano karrera egina zuen, eta lehen sari bat irabazia zuen Madrilen. Musika-zaletasun handia zuen, eta klaseak ematen zituen. Arantzazura egin genuen bidaia batean erori, eta eskumuturra

hautsi zitzaion, eta operazioa gaizki egin ziotelako-edo mindurik geratu zitzaion arte, pianoa asko jotzen zuen. 1985ean hil zen.

Amak bultzatuta ikasi nuen nik pianoa, eta aitaren anaia gazteak ere, tio Pakok, jotzen zuen. Musikazaletasun handia bizi izan dut nik etxean, baina hizkuntza alde-tik, esan dudan bezala, egoera diglosikoaren aztarnak oso umetatik sumatu izan ditut.

Amaren aldeko familia hori ezagutu al zenuen?

Ni jaio eta laster amonarekin bizitzea tokatu zitzaigun. Aitak urte batzuk egin zituen Kuban Compañía Litográfica de La Habanan lanean; Antiguan zuten lantegiak kiebra jo, eta etxea ere enbargatu egin baitziguten gerra aurreko krisialdian. Aita kanpoan zen bitarte horretan, amonarekin bizi izan ginen San Martin kalean. Antiguara itzuli, eta etxea eta lantegia berritzen ari ziren bitartean San Bartolome kalera aldatu ginen. Gerra aurreko urteetan, beraz, ez nengoen Antiguan bizitzen; baina 1936ko uztailaren 18an bai. Eta baditut oroitzapen batzuk.

Zein dira oroitzapen horiek?

Antiguako etxe berritura joan eta hilabete gutxira Cervera itsasuntzia etorri zen Donostiara eta obus batzuk bota zituen. Batak Perla ondoan egin zuen eztanda eta nik gaur gertatu izan balitz bezala ikusten dut orandik lurrean utzi zuen zuloa. Bigarren eztanda batek San Bartolome kalean guk urte hartantxe alokatua izan genuen etxea hondatu zuen erabat. Gertakariak, alde horretatik, sekulako oihartzuna izan zuen gure etxean. Guk 36ko ekainean edo estreinatu genuen Antiguako etxe berritua, eta irailaren 13an izan zen Crucero Cerveraren gertakaria.

Antiguako zein kaletan zegoen zuen etxe hori?

1936an Zumalakarregi etorbide gisa bataiatu zutena, Amilibia kalea zen orduan; eta kale horren hasieran, gaur kuartela dagoen paretsuan, bizi izan dira Alvareztarrak. Handik 50 metrora “Txillardegi” etxea zegoen.

Federiko Alvarez González izeneko nire aitonak eraiki zuen gure etxe hori, eta Casa Victoria izenez bataiatu zuen, bere emaztearen omenez. Eta bertan antolatu zuen Gutenfelder izeneko litografi lantegia ere; garai hartan maiz gertatzen zenez, lantegia eta etxebizitza leku berean jarri baitzituen.

Etxe horren atari nagusiaren gainean balkoi bat agertzen da gaur ere. Hortxe egon zen urte askoan litografiaren bulego nagusia eta hortxe tokatu zitzaidan, askoz ere beranduago, 1960an, teniente koronelaren aurrean deklaratzera, Martuteneko kartzela berrira joan aurretik.

1905ean hasita eraiki zuen etxe eta lantegi hori nire aitonak, baina Donostiarekiko harremanak lehenagokoak zituen, Tolosan bizi zelarik ere “La Galerna” donostiar astekariarentzat erretratuak egiten baitzituen eta Donostiako Deuda Municipaleko Obligazioak ere Federiko Alvarez horrek marraztu baitzituen.

Zergatik Victoria eta zergatik Gutenfelder?

Victoria izen hori familiaren historiari lotua dago: 1900ean oraindik gazte zelarik (37 urte) galdutako Bittori Iraola Eizmendi bere emaztearen oroitzapenetan eman zion izendapen hori etxe berriari; eta Gutenfelder izen bitxiak, berriz, moldiztegia asmatu zuen Gutenberg eta litografia (inprimaketa kimikoa) asmatu zuen Senefelder biltzen zituen hitz batean, lantegia moldiztegi eta litografia

baitzen batean. Linotipia asmatu arte testu konposaketa eskuz egiten zen.

Aitaren aldetiko familia hau madrildarra zen izatez. Nire birraitona, Francisco Alvarez González, izan zen bigarren karlistada baino lehen Tolosara emigratu zuena, aitona Federikok urtebete besterik ez zuenean, hain zuzen. Aitonak 35 urte egin zituen Tolosan, Antiguara etorri aurretik. Etxe horren eraikuntzak uste baino garestiago jo zion, erreka txiki bat zela medio oinarritze lan handiak suertatu zirelako. 35.500 pezeta gehiago kostatu zitzaion eta dirutza hori ez zuenez, etxearen erdia etxegileari utzi behar izan zion. Urte batzuk beranduago, galdu zituen metroak irabaztearren, hegal bat erantsi zion etxeari. Casa Victoriaren erdi hori Cuartel de Carabineros izan zen gero alogeran, eta Asociación de Huérfanos de la Guardia Civil delakoak erosi zuen azkenik. Eta hortxe daude oraindik ere...

Amona Bittori, berriz, Tolosan jaioa zen, baina bere ama bidaniarra zuen. Ageda Eizmendi horrek Bidaniatik Tolosara jaitsi, eta ostatua zabaldu zuen bere izenarekin, Fonda Ageda izenarekin, alegia. Francisco Alvarez birraitona, Madrildik Tolosara emigratu zuelarik, ostatu horretan jarri zen bizitzen eta han ezagutu zuten ostatuko etxe-koandarearen alaba, Bittori. Nire amona hori, ordea, 1900ean hil zen Tolosako Fonda Agedan, Pako nire osabaren jaiotzaren ondorioz; eta ez zuen, beraz, Antiguako etxerik ezagutu. Heriotza horrek dolumin handia sortu zuen bai familian (lau ume txiki utzi baitzituen) eta bai Tolosan, birraitona hori kontzejala baitzen herrian.

Zertzelada hauek badute garrantzirik nire bizitzan, Federiko Alvarezek, Antiguara etortzean, Tolosako munduarekin erabat hautsi nahi izan baitzuen, eta ni neu ere,

gerora, Tolosarekiko eta Tolosari zegokion euskal munduarekiko arrotz bihurtu bainintzen.

Cervera gerrauntziaren pasadizoa gogoratu duzu lehen. Ba al duzu buruan gerrako beste zertzeladarik?

Gerrak ez zuen Donostian eragin izugarririk izan, eragin zuzenik esan nahi dut. Hori bai, gauez tiroak entzuten ziren eta jendeak beldurra zuela gogoratzen zait. Tarteka etxe ondoan genuen Casa de las Conchas delakoaren sotorra joaten ginen, porlanez egindako etxea zenez segurua goa zelakoan. Hain zuzen ere, zenbait urtez hantxe egon zen gure kaleko 1-3 portal horretan zintzilik “Refugio” letrero zuri-beltza. Arriskua zegoen bakoitzean, sirena-hotsak entzun bezain laster, etxe horretara edo gisa berekoak omen ziren Satrustegi etorbidekoetara joaten ginen. Inoiz, gogoratzen naiz, Antiguako plazan izeba batek zuen etxera ere joaten ginela. Leihoen kontra koltxoiak jarri, zoruaren gainean tapaki batzuk zabaldu eta familia osoa etzaten ginen lotarako; umeontzat bereziki, lehengusuontzat esan nahi dut, egoerak ez zuen izaten inolako dramatismoarik. Alderantziz, pozak zoratzen egoten ginen desordenu giro hura zela eta.

Gogoratzen naiz era berean aitak nola ondoko urteetan Londresko Irratia entzuten zuen. Aita anglofiloa baitzen, antinazi amorratua. Kontuan izan behar da, aitaren anaia bat, tio Pako, Negrinen gobernuko kargu batean egona zela, Osasun ministerioko ministrorde edo, eta gero Alderdi Komunistara pasatu zela. Gizon hori figura bat izan zen Mexikon, atzerrian. Aita ez zen hain ezkertiarra, baina liberala bai, Azañaren mireslea beharbada, eta anti-klerikala.

Hala ere, gerra hasi zenean, ez ihes egitea erabaki zuen. Franco altxatu zen egunean, uztailaren 18an, “Ha empezado la guerra” entzuten zen bazterretan. Etxe aurreko txaletaren terrazan milizianoak ikusten genituen, eskuetan fusilak zituztela. Handik aste batzuetara beste osaba bat agertu zen estu eta larri: “Rápido. Vámonos. He conseguido un coche”. Eta presaka eta bultzaka koltxoiak, maindireak, arropak, etxean aurkitzen zituzten zerak harrapatu ahala kotxe horretan sartzen hasi ziren bera eta ama. Aita, ordea, ez zen agertzen. Halako batean eta ilunabarra gainean genuenean agertu zen lasai asko Ondarreta aldetik, eta berehala gure bizitza aldatuko zuen erabakia azaldu zuen: “Nosotros no nos movemos”. Horietxek izan ziren bere hitzak. “Pero las tropas de Franco entrarán hoy”, esan zuen norbaitek. “Nosotros no nos moveremos”, errepikatu zuen aitak eta kotxea hustu ondoren alde egin zuen osabak bakarrik. Hamabi bat urte egin genituen elkar ikusi gabe.

Abertzalerik ez al zenuen izan familian?

Bai, bai. Aipatu dudan osaba hori, Migel Enparantza, Antiguán bertan bizi zen. PNVkoa zen, abertzalea, eta etxean euskaraz egiten zuten. Gero jakin nuenez, Monzonen miresle eta laguntzaile sutsua izan zen. Nik dudan umetako oroitzapenetako bat lehengusu horiena da. Gerra aurretik izan behar zuen, nik bost edo sei urte nituela. Lau lehengusu horiek eliz aurrean egin zen dantza-saio batean hartu zuten parte, euskal jantziekin eta eskuetan ikurrinak zituztela. Oso umea nintzen, baina nik mundu harekiko arrotz ote nintzen sentipena izan nuela aitor dezaket, lehenik eta behin nire lehengusuek euskaraz zekitelako eta

nik ez, eta bestetik gure etxean euskal gauzak aipatu ere ez zirelako egiten.

Urte horietantxe, nik 5 edo 6 nituela, hasi nintzen Colegio de Lourdes delakora joaten, esan dudanez, Mintegi ahizpek zuzentzen zuten auzoko eskola mixtora, eta han bagenuen “enziklopedia” bat, gerra aurrekoa hau ere, azken kapitulu motz bat euskarari edo Euskal Herriari eskaintzen ziona. Liburu haren arrastoa galdua dut aspaldi, baina gauza bat dut seguru, liburu hartan euskararen berri ematen zela. Bitxia badirudi ere, liburu hark eragin izugarria izan zuen niregan, nolabait euskalduna nintzela edo euskaldun izan nintekeela iradoki balit bezala.

Hasieratik bertatik, zazpi urte nituenetik edo, oso jarrera berezia izan zen nirea: euskal mundua ez nuen baterre ezagutzen, baina neurea zela sentitzen nuen eta neure mundutzat hartzen nuen.

Antiguan ba al zegoen klase borrokaren adierazpenik edo gizarte mailako gatazka girorik?

Antiguan, esan bezala, fabrika dezente zegoen garai hartan. Hor zegoen Lizarriturry-Rezola fabrika, La Providencia, Antiguako fabrikarik handiena mende luze batez. Hor zegoen El Lagarto ere, Suchard, El León garagardo-fabrika ere joan den mende bukaeratik, eta beste hainbat. Nik beti entzun dut fabrika horietako sindikalistak Matia kaleraino etorri ohi zirela beren prentsa saltzera. Baina ni txikiegia nintzen horretaz ohartzeko. Dena den, gizarte mailako gatazka horien oihartzuna izan daitekeen beste zertzelada bat badut gogoan: 6 edo 7 urterekin Antiguako eskolan genbiltzanean, “Ricos contra pobres” gerraka jolas egiten genuela. Ni “aberatsen” bandoan nengoen. Kontuan izan behar da gure lantegian ere, bataz

beste, 30en bat langile aritzen zirela. Familia burges txiki-koa nintzen. Ez nintzen langile-semea, eta horrek ere, badakit, markatu egiten duela bizitzan.

Beste pasadizo bat ere kontatuko dut, beharbada giro horrekin zerikusia izan dezakeena. Adin horretan bertan, nik 7 edo 8 urte nituela, bizikletan joan ohi ginen tarteka Igara aldera taldean; eta itzuleran, Benta Berritik pasatzean, behin baino gehiagotan makilak sartu ohi zizkiguten bizikleta-gurpilaren radio artean. Izan liteke gertakari hori adin horretako mutikoen arteko liskar soila izatea, baina izan liteke baita ere gerraren edo, zehatzago esan, garaiko giro sozialaren isla izatea.

Non egin zenituen ondorengo ikasketak?

Zortzi urterekin Antiguako eskola mixto hori utzi eta Marianistetan hasi nintzen, Aldapeta gainean oraindik ere duten ikastetxean. Nik ez dakit gehiago beste ikastetxee-tako berri, baina Marianisten ikastetxe hori nahikoa faxista zen. Pentsa! Jolasaldietan alkandora urdinarekin jazten ziren ikasleak. Lehen ikasturtea hasi baino lehen, aita joan zitzaizen protesta egitera; eta ez zuela inolaz ere bere semea alkandora urdinarekin jaztea onartuko esan omen zien. Eta nirekin salbuespena egin zuten eta “normal” jantzita ateratzen omen nintzen errekreora.

Ikastetxe horretan urte piloa egin nuen nik, baina ikasketak bukatu nituelarik ez naiz gehiago itzuli, ezertarako, eta ez dut itzultzeko asmorik. Ikastetxe frankista zen goitik behera, espainol amorratuak ziren erlijioso haiek. Euskal kantak ikasi beharrean “A la mar fui por naranjas, cosa que la mar no tiene”, eta gisakoak, irakasten zizkiguten; eta jolasaldirakoan, “Rompan filas” entzun orduko, guk “Fran-co” erantzun behar izaten genuen,

lehen silabarekin eskuineko besoa gora altxatuz eta bigarrenekoan behera jaitsiz.

Orduan, noski, ni ez nintzen egoeraz osoki jabetzen. Poliki-poliki ohartu nintzen alienazio pertsonal hura gure herriaren egoera orokorraren irudia baizik ez zela.

Debeku kutsu nabarmen horrekin batean, eta hau ere oso txikitandik, gainbehera zihoan herri bateko semea nintzen susmo sakon eta mingarria sustraitu zen nigan. Gure herria, guretzat debekatuta izateaz gain, desagertzeko bidean genuela erreparatu nuen hasiera-hasieratik.

Sentipen hori beharbada zailago egingo zitzaien sumatzen euskaraz bizi ziren eskualdeetako euskaldunei, baina nire kasuan oso nabarmen egin zitzaidan.

Ez al zenuen erlijioa zela eta ez zela arazorik izan zeure buruarekin adin horretan?

Marianistak, edonork pentsa dezakeenez, erlijiozale itsuak ziren, baina ni horretan beti izan naiz oso epela, agnostikoa esango nuke, eta ez dut inoiz mistikaren tentaldirik jasan. Egia da gerora, *Leturia*-n esate baterako, kristau problematika agertzen dela, baina Unamunoren eraginagatik-edo oso ikuspuntu heterodoxotik bizi izan dut nik kristautasuna.

Gainerakoan, nolakoa zinen? Inoiz izan al zara ikasle-eredu horietakoa?

Nire eskolako kartillari begiratzuz gero, gorabehera handiak izan nituela esan daiteke. Oso nota onak ateratzen nituen boladak izan nituen, eta oso bolada txarrak ere bai, gauza guztietan nota "beltza" deitzen ziotena aterra nuelarik, konduktan ere bai. Baina etxekoek ez zioten garrantzi erabatekorik ematen horri. Aitak ez zien begira-

tu ere egiten nire notei. Oro har, ni ez naiz ikasle-eredu inoiz izan.

Noiz hasi zinen koadrilarekin ibiltzen edo neskekin ir-teten?

Koadrila itxia, horrela lagun aukeratuena, 16 urterekin edo ezagutu nuen nik. Oso lagun kontatuak ziren, guztiak Antiguakoak. Larunbat arratsaldeetan eta igandetan beti elkarrekin ibiltzen ginen: zinera joaten ginen edo neskatarara. Neskatarara esaten dudanean, neskei begiratu edo neskei buruz hitz egitera esan nahi dut. Horretan bederen garaiaren seme izan naiz. Koadrila mixtorik ez zegoen eta 17 urte arte ez ginen nesken atzetik hasi. "Tontodromo" deitzen genion Kontxa gaineko pasealekura joaten ginen. Hotel Londrestik Hotel Nizara bitartean biltzen ginen neska eta mutil koadrilak, baina ez genuen elkarrekin inolako harremanik. Batera eta bestera genbiltzalarik, elkarri agur egiten genion, eta aurrera segitzen genuen. Neska koadrila horietako asko gure ikastetxearen ondoan zegoen San Bartolome ikastetxera, edo Villa Belén izenekora, joaten ziren, eta bistaz ezagutzen genituen.

Bazeuden bi edo hiru leku igande arratsaldeetan musika zutenak, eta gu dantza egitera joaten ginen tarteka. Bata Hernaniko plaza zen. Hotel Príncipe de Savoya zen bigarrena, eta Igeldoko Hotela hirugarrena. Bigarren horretan Orquesta Heredero izeneko batek jotzen zuen eta bikote helduak edo lige bila zihoan adineko jendea joaten zen gehienbat, eta gauza bera esan dezaket Igeldokoaz. Ez ziren, beraz, lekurik aproposenak gu bezalako gazte-txoentzat.

Arrazoi bategatik edo besteagatik, ni oso izua nintzen emakumeekin. Ez nintzen ezertan atrebitzen. Gero aldatu nintzen. 18 urterekin hasi nintzen Donostiako neska batekin irteten eta orduan hasi nintzen pitin bat oilartzen.

Zein leku zenituzten Donostian bikote bezala ibiltzeko, bakarka ibili nahi zenutenean zer egiten zenuten?

Nik oso oroitzapen bereziak ditut Kristina Enea parkeaz. Beharbada neska batekin lehen aldiz buruz buru orduan ateratzen hasi nintzelako izan daiteke eta parke horretara joaten ginelako. Baina leku gehiago ere bazeuden: Paseo Berrira joan ohi ginen, Frantziako etorbidea ere oso leku lasaia zen eta Teniseko Paseora ere joan ohi ginen. Baina horiek guztiak hizketan eginez paseatzeko lekuak dira. Gehienez ere musuren bat edo beste ematen genion elkarri. Ez genuen beste ezertan pentsatzen. Ez zitzaigun elkarrekin ohera gintezkeenik bururatu ere egiten. Horretan oso berantiarra izan nintzen. Ez dut data zehatzik, baina hogeita bost bat urte arte ez nuen nik larrutan ikasi, emaztearekin ateratzen hasi baino lehentxeago izan nintuen esperientzia bat edo beste. Eskerrak gero pitin bat zor hori kitatu nuen!

Noiz eta nola ezagutu zenuen Jone?

Ezagutu, lehenagotik ezagutzen nuen edo, hobeto esan, ezagutzen genuen, koadrilako bat baino gehiago baitzegoen berarekin gustaturik. Nik izan nuen berarekin ateratzen hasteko zoria, baina hasi eta laster erori nintzen, atxilotu eta Martuteneko kartzela berria estreinatzerara eramainduten. Han nengoela jakin nuen Jone koadrilako beste batzuekin ateratzen hasi zela, eta kaleratu orduko neska “berreskuratzen” hasi behar izan nuen.

Ordurako politikan sartua zenbiltzan, nonbait?

Niri gogoratzen zaidan lehen ekintza erreferendum garaikoa da; 1947koa, alegia. Jendeak “reveréndum” esan ohi zuen, eta horren kontrako paper-banaketa handiak egin ziren. 17 urte nituen artean eta paper batzuk eman zizkidaten PNVkoek, etxeetako ate-azpietatik sartzeko eskaerarekin. Eta beldurrez kokilduta halaxe egin nuen Parte Zaharrean. Lehen erorketa, dena den, hiru urte beranduago gertatu zen, Bilbon injineru karrerako lehen ikasurtea egin eta gero. Okendo kaleko Poliziaren bulegoetan matrikula-plaka bat zintzilikatu zidaten, eri-aztarnak hartu zizkidaten eta horrela fitxatuta Martutenera eraman ninduten, kartzela berria estreinatzerara. Kontuan izan behar da, urtebete lehenago, 48-49ko neguan, eraitsi zutela Ondarretako kartzela zaharra, guk haurtzarotik ezagutzen genuena. Dinamitarekin zartatuko zutela aldarrikatu zuten, presoak Martutenera eraman zituzten, eta horrelaxe bota zuten txanda batzuetan etxetzarra, hondartzatik antiguartar guztiak begira ginela.

Zer oroitzapen geratu zaizkizu kartzelara egindako lehen bisita horretatik?

Kartzelako kutsu militarrek harritu ninduen gehienbat. Aginduak kornetaz ematen zituzten, presook traje *mil-rayas* batekin jazten ginen, txapela eta guzti; sartu orduko ilea *al cero* moztu zidaten. Fernández Cuesta falangista zen orduan Justizi ministroa eta Estatu espainolean ez zegoela preso politikorik esaten zuen eta preso politikoak komunekin batean geunden. Hala ere, bazegoen Martutenen halako gerra-giroa. Salinas funtzionarioa han zegoen, Ondarretako kartzelan famatua izana; eta askok

ziotenez, Aita Ariztimuño, Aitzol apaizaren torturaketan eta hilketan parte hartua.

Kartzelako maisua ere bistaz ezagutzen nuen, Ondarretakoan egona zelako eta Antiguako Ferrene eta Portuetxe baserrien arteko etxe batean bizi zelako. Maisu honek esan zidan Ondarretako kartzelan sakek edo fusilaketek 1947 arte iran zutela, eta Madrilen 51 arte. Gauza horiek beldurra sartzen ziguten hezurretaraino. Hantxe geunden 30en bat lagun sarekada berean eroriak, denak PNV ingurukoak.

Baina beldur hori zabaldua zegoen, ez zen zuena bakarrik?

Ez, ez, giroan zegoen. Beldurra sozializatua zegoen. Gogoratzen naiz Elkano kalean zegoen Pujol izeneko sastreteriara joaten ginela tarteka arropak egitera, eta horko kortadorea torturapean hil zela kontatzen zen 44an edo 45ean, ez dakit seguru. Republikanoa zen, eta ez dakit nik zertan ibiliko zen.

Geure taldean bertan Rafa Albisuk edo Iñaki Larramendik bazituzten afusilatutakoak familian. Gauza horiek entzuten dituzu, baina ikara ez da erabatekoa izaten norberari tokatzen zaion arte.

Dena den, nik esango nuke garai hartan Poliziaren lana ez zela gaur bezain sofistikatua eta zientifikoa. Ni bi aldiz egon nintzen atxilotuta eta ez ninduten ukitu. Ikusi nituen gorputza goitik behera matxuratutakoak ere. Baina Poliziak ez zuen gaur adinako informaziorik, eta teknikak oso kaxkar.

Uste dut denboran gehiegi aurreratu garela. Politika mailako zeure lehen ekintza erreferendum garaikoa dela esan duzu, 1947koa. Baina zure kasuan zer dator lehenik, hizkuntzarekiko kezka edo aberriarekikoa?

Zail da erantzuten, baina hizkuntzarekiko kezkak izan zirela, uste dut, lehenbizi. Beharbada garai hartako aberztaleek hizkuntzari inolako garrantzirik ematen ez ziotelako izan zen horrela. Adibide bat jartzeko, Javier Landaburuk 54an atera zuen *La causa del Pueblo Vasco* liburu ezagunean euskararen egoera ez du aipatu ere egiten.

Lehen ere esan dut euskaldunberria naizela, osoki ez bada ere. Datu bat emango dut. Ni baino lau urte gazteago zen Juan Mari anaiak ez zekien, ez ondo eta ez gaizki, ez zekien deusik. Oraintxe bertan aipatu dizudan erreferendumaren urte horretako udan, “reválida” gainditu nuen Valladoliden, eta ondoren gaixo egon nintzen etxean ohetik jaiki gabe, pulmoniarekin edo. Aste horietan ama laguntzaile bakartzat nuela, litografiatik igotako blok handi batean hasi nintzen, amaren esanen arabera, euskal gramatika partikularra osatzen, inoiz erabili dudana lehena. Etxetik irten gabe egindako gaixoaldi horretan aditz-jokoak, deklinabide batzuk, hiztegi bat osatu nituen. “Egon”

aditzarena, esate baterako, ez zait batere ahaztu. “Ni naó, zu zaudé, bea daó, gu gaudé, zuek zaudeté, berak daudé” idatzi nituen azentu eta guzti.

Gure litografian, Migel Alvarez osabaren bidez Ixaka Lopez Mendizabalen liburu batzuk zeuden, bere ordezkaria edo horrelako zerbait baitzen aitaren anaia.

Hasieran kontatu dizut gerra aurretik nola familiako enpresak kiebra jo zuen. Deskalabruaren ondorioz tio Pepe (Jose Luis Alvarez) izan zen lehenik Kubara joan zena eta handik urte batzuetara nire aita. Tio Pakok Madrid aldera jo zuen eta Negrinen laguntzaile izan zen Gobernuan. Eta tio Migel, etxera, Tolosara itzuli zen, bere jaioterrira alegia, eta Ixaka Lopez Mendizabalekin hasi zen lanean. Lopez Mendizabal PNVko buruetakoa zen eta gerra etorri zenean ihes egin behar izan zuen, nire osaba hori bere ordezkari izendatu ondoren. Podere finatzieroak eman zizkion, bere ordezkari legal izendatu zuen, alegia, eta Tolosa erori zenean moldiztegi hartan zegoen patrimonioa gure etxera ekarri zuen. Gauza handirik ez zen izango, baina gogoan dut nola gure etxeko gela batean “Aeolian” pianola bat zegoen, eta liburu mordoa ere bai. Hortik, osabari ezer esan gabe, hartu nituen nik euskarazko lehen liburuak. Liburu horien artean *Xabiartxo* zegoen, eta Bera-Lopez Mendizabalen hiztegi lodi bat, urte batzuetan izan nuen hiztegi bakarra. Horrela hasi nintzen euskara ikasten, bana oso azkar sumatu nuen euskara salbatzeko bide bakarra aldakuntza politikoa zela.

Zein irakasle izan zenituen hasiera horretan euskara ikasteko?

1947an hasi eta 49ra bitartean, Bilbora injineru ikasketak egitera joan nintzen bitarteko bi urte horietan, de-

zente aurreratu nuen. 48an hasi nintzela serio, esango nuke, euskara ikasten. Bi irakasle izan nituen garai horretan: Iñaki Zubimendi bata, gerra aurreko *Yakintza* aldizkaria zuzendu zuen Zubimendiren semea lehenik; eta Iñaki Zumeta gero. Bigarren honekin Zabala-Aranaren “Gramatika” ikasi nuen, eta Arrigarai-Ataunena ere bai. Zumetarekin Txuma Lasagabaster eta biok ibili ginen. Hau ere euskaldunberria zen eta ordurako uste dut apaiz ikasketak egiten hasia zela. Gero Donostiako EUTGn egin nuen topo berarekin, irakasle gisa biok.

Garai horretan Jone ere euskaraz ikasten ari zen Elbira Zipitriarekin. Jonekin beti euskaraz egin dut, hasiera-hasieratik, eta baita garaiko adiskide batzuekin, Iñaki Larramendi edo Rafa Albisurekin, Mikel Antzaren aitarekin.

Elbira ez nuen nik bertatik ezagutu, baina Jon Etxaide bai, gehixeago. Garai hartan donostiar abertzale askoren irakasle eta eredu izan zen hau. Bere *Alostorrea* irakurri genuen eta *Joanak joan* irakurtzen saiatzen ginen. Aipamen berezi bat merezi du Etxaidek garai horretan argitara eman zuen mapak. Pasaiaiko portuko bulegoetan delineante gisa lan egiten zuen eta bere eskuz egindako mapa zen eta konfiantzazko jendearen artean banatzen zituen kopiak.

Gauza horien garrantziaz jabetzeko garaiko egoera izan behar da kontuan. Donostiako abertzale jendea Portu kalean zegoen Bar Agoten biltzen ginen urte horietan. Nagusia bera, Emilio Agote, kartzelan egona zen behin eta berriz, Juantxo Azkarraga, Andonegi eta beste hainbat bezala. 60an Martutenera joan nintzenean ere han zegoen, baina Franco Donostiara etortzen zen bakoitzean sartzen zituzten horietakoa zela esango nuke. Hara biltzen ginenok bagenekien alde edo moldez denok geundela zerbai-

tetan sartuak. Jon Etxaide ere han ezagutu nuen. Berarekin lehen aldiz hitz egin nuenean, erdaraz hasi nintzaion; eta bizkarra eman eta alde egin zidan. Orduan ohartu nintzen nolako gizona zen.

Bere mapa horien bidez ikasi genituen guk Euskal Herriko toponimiaren hastapenak.

Bazegoen, hala ere, Donostian beste mapa bat aipatzea merezi zuena. Bulebarreko Bar Olidenen zegoen Euskal Herriko mapa hori, gerra aurrean paretan zintzilikatu eta geroztik kendu gabea. Behin eta berriz komentatzen genuen geure artean balentria hori, eta taberna horretara elizara bezala sartzen ginen, emozioz beterik.

Jon Etxaideren mapa, noski, askoz ere osatuagoa zen eta kopiak ateratzeko seguru asko amoniakoaren sistema erabiliko zuen, garai hartan planoak kopiatzeko erabiltzen zena.

Jon Etxaidek, nik ezagutu nuenerako, *Alostorrea* argitaratu emana zuen eta garaiko euskaltzaleak ondo ezagutzen zituen. Berak gomendaturik ezagutu nuen hurrengo urtean, 1949an, Krutwig Bilbon.

Nolakoa zen Krutwig sasoi horretan?

Niri sekulako inpresioa egin zidan. Esan bezala, Jon Etxaideren gutuna eskuetan nuela aurkeztu nintzaion; eta tupustean greziera klasikoa ikasi behar nuela esan zidan (Federikoren helenismoa ez baita gaur eguneko kontua!). Egunean hiru orduz seriotan lan eginez gero, bost urtean menderatuko nuela erantsi zuen. Ondoren Egiptoko liburukote batzuk irakurri zizkidan koptoz edo nik al dakit bada zein hizkuntzatan, eta hamaika hizkuntzatan mintzatzaren zela bota zidan. Budista zela ere bai; eta halako eliz-

tar-txartel gorri-morea erakutsi zidan, Hinayana elizakoa, uste dut.

Beste egun batean izango zen beharbada, baina oso gogoan dut baita ere nola olioaz margotutako erretratu handi bat ere erakutsi zidan, bere arreba Isabelena. Itxura denez, aitak altzairu alemanen ordezkaritza zuen Bilbon, eta Algortan edo Negurin bizi ziren. Lehen gerratean etorria zen nonbait Euskal Herrira eta Francozale amorratua izan behar zuen. Horrelako zerbait kontatu zidan behinik behin Federikok behin batean, euskara ere ohe azpian ezkutaturik ikasi zuela. Egun batean bere “egunkariko” orrialde batzuk irakurri zizkidan, baina ispilu baten bidez, zuzenean ezinezkoa zelako. Askoz ere beranduago jakin nuen sistema bera erabili zuela Leonardo da Vincik ere, ezezagunek irakur ez ziezaioten.

Esan beharrik ez dago erabat txundituta utzi ninduela. Lehendabiziko aldia nuen horrelako pertsona bat, hainbeste hizkuntza jakin eta horrenbesteko kultura zuen norbait ezagutzen nuela, eta euskaltzale amorratua gainera.

Krutwigek Iparraldeko *Gure Herria* aldizkarian abonatzeko gomendatu zidanez, halaxe egin nuen. Hortxe dauzkat orandik ere orduan jasotako ale batzuk, bizitzan zehar ezagutzea tokatu zaidan hamaika etxe-aldaketaren ondoren mirariz bezala salbatuak.

Aldizkari horren bidez egin nuen Iparraldeko euskarerikiko eta euskaltzaleekiko lehendabiziko ezaguera.

Federiko, jakina, “laphurtar klassikoz” mintzatzen omen zitzaidan eta oso azkar gainera, eta hainbeste “h” ahoskatzen zuenez, ez nion erdia ere ulertzen. Baina ez zitzaidan burutik pasatu ere egin nik ez nuela “laphurtar klassikoa” ezagutzen esatea, eta hantxe egoten nintzaion adi-adi eta isil-isilik entzuten; badaezpada...

Beste euskaltzainik ezagutu al zenuen?

Krutwigen bidez ezagutu nuen Azkue ere. Euskaltzaindiaren arrastoak Bilboko Ribera kalean zeuden. Liburutegia eta apal batzuk zeuden eta Azkueren gauzak nonahi, hauts artean barreiatuak. Han egoten zen don Resurreccion Maria, hondoratutako untziko kapitain gisa. Azkue ez zen inoiz “abertzale” gisa agertu, eta hori funtsezkoa zen urte haietan. Dagoeneko zaharkitua zegoen. 86 urte zituen nik ezagutu nuenean eta Krutwig ondoan ibiltzen zitzaion, etxe hartako oinordeko bakar gisa. Gaur Federiko euskaltzainik aspaldikoena da, 1947ko azaroan eskuratu baitzuen gradu hori.

Oso bikote xelebrea egiten zuten lekeitiar zaharrak eta bilbotar gazte germanikoak. Bitxia bada ere, Azkue zaharrak begirunea eta estimua zion Krutwig gazteari. Beharbada zahartzean, oinordeko baten beharra sentitu zuen don Resurreccion Mariak ere eta halaxe izan zen, Krutwigek salbatu baitzuen Euskaltzaindia Azkue hil eta ondoko urte horietan. Eta ihes egin zuelarik, Alfontso Irigoienek jarraitu zuen bere lana. Bi gizon horiengatik izan ez balitz, auskalo zer gertatuko zen. Akabo Euskaltzaindia agian...

Alfontso Irigoien ere agertu ohi zen tarteka Euskaltzaindiaren egoitza horretara. Baina Alfontso lehenagotik ezagutzen nuen, Donostian lagun batzuek aurkeztu baitzidaten. Irigoienek bidez eskuratu nuen nik Azkueren hiztegiaren ale bat, egilearen beraren oharrez hornitua. Mila pezeta ordaindu nituen eta hura ez zen hutsaren hurrengo prezioa ni bezalako ikasle batentzat.

Azkue, Euskaltzaindiko egoitza horretatik irten eta Ibaizabal erreka erorita ito zela kontatzen da. Oroitzen al zara gertakari horretaz?

Nik ezagutu eta handik urte eta erdira edo Euskaltzaindiaren ate aurrean bertan Nerbioi zikinera erori eta ito zen. Injeneru Industrialen Eskolako ikasle abertzale multzo batek *Materia* izeneko aldizkaria ateratzen genuen gaztelaniaz; jadanik ia denok fitxatuak egonik, Polizia ez aztoratzeko-edo han atera genuen Azkueren omenetan artikulua. Inork ez zekien, noski, La Casillako eskola hartan Azkue bazenik ere.

Euskaltzainekin jarraituz, Mitxelena, esate baterako, Donostiatik ezagutzen al zenuen?

Mitxelena eta baita Urkijo ere Donostian ezagutu nituen, Vallejo hizkuntzalariak iberikoaren eta euskararen arteko harremanak aztertzeke antolatu zituen hitzaldi batzuetan. Mitxelenaren itxurak harritu ninduen gehienbat, zeharo konkortuta topatu bainuen ordurako. Guztiek errespetu handiz tratatzen zuten. Askoz ere beranduago jakin nuen zortzi urte kartzelan pasata irten berria zela eta barruan galdu zuela osasuna.

Urkijoren irudia ere oso gogoan geratu zitzaidan. Ikastaldi hartan parte hartu genuen guztiok gonbidatu gintuen Bilbo plazako bere etxera. Mahai txiki baten gainean Karlos VII.aren erretratua zeukan, bere eskuz erregeak berak eskainia, “A Julio Urquijo, mi gentil-hombre de cámara” edo horrelako zerbaitekin. Urkijo karlista baitzen. Nik 18 urte nituen orduan.

Mintza gaitezen Bilboz. Zer inpresio egin zizun hiriburua? Zer-nolako aldakuntzak nabaritu zenituen Donostiatik joanik?

Hogei urte nituela atera nintzen ni etxetik, nolabait esateko, eta ezagutu nuen Bilbo. Orduan ez zegoen bidaiatzeko ohiturarik. Muga, esate baterako, erabat itxita zegoen eta ez genuen pasatzen.

Hala ere, ez dut uste Bilbok inpresio berezirik egin zidanik. Izatekotan ere inpresio txarra egin zidala esango nuke. Bilbo guretzat problema bat zen. Sufritu egiten genuen. Han euskararenak egin zuela ikusten baikenuen, eta euskal giro bila Txorierri aldera, kostaldera edo Durango aldera jotzen genuen. Bilbon bertan ere Begoñara edo Zamaibidera joaten ginen azoka egunetan. Santander eta La Roblako trenbideetan ez nintzen sekula ibili. Bilbotik hara Espainia hasten zela esaten genuen. Bagenekien Enkarterrietan ere abertzale jende fina zegoela, baina askoz ere beranduago ezagutu nituen nik Bizkaiko lurralde horiek. Urteetan barrena konturatu naiz oker nengoela, Bilbon bertan eta Nerbioiren bi hegal jendetsuetan ere nazio-taupadak entzun zitezkeela eta agian hantxe, Mendebaldean eta Enkarterrietan jokatu dela aspaldidanik Euskal Herriaren geroa.

Bilbora joan aurretik ezagutzen nuen Iñaki Gaintzarain; han sortu genuen taldean klabea izango zena. Madrilen Telekomunikazioetako injinerutza eskolan sartzea intentatu ondoren, zerbait egin behar eta, peritajea egitera joana zen Bilbora eta ondoren ezagutu nituen Jose Maria Benito del Valle, Agirre eta Madariaga.

Bilboko euskal giroa Klaudio Gallastegi apaizaren inguruan biltzen zen San Antongo parrokiaren lokaletan. San Anton orfeoiak han entsaiatzen zuen eta Txinparta

euskal teatro taldeak ere bai. Han ibiltzen ziren Gereño anaiak, Xabier batez ere eta Joseba Mirena ere bai, eta beste hainbat. Alabaina, Bilboko abertzale jende klasikoarentzat euskara folkloreaken parte bat baizik ez zen, txistua jotzeak baino garrantzi gehiagorik ez zuena eta gu asaldatu egiten ginen.

Itzul gaitezen berriro lehen etenik utzi dugun Euskaltzaindiaren inguruko hariaren bila. Noiz sumatzen da giro horretan Euskara Batua beharra?

Auzi horretan Krutwig izan zen benetakoko profeta eta ez Mitxelena. Ni zertzelada batez oroitzen naiz. 1950eko hamarkadaren hasiera horretan tema bat zuen etengabe errepikatua. Gure hizkuntzak derrigorrezkoa duela esaten zuen gaurkotzea eta batzea. Euskalkikeria eta dialektalismo guztien kontra zegoen erabat. Euskara europartu, batu eta “desbaserritatu” egin behar zela esaten zuen. Bestela, gureak egingo zuela.

Hain zuzen ere, hau proposatu zidan behin: euskaltzale multzo bat bildu, frak eta sonbreroarekin jantzi eta, besterik gabe, Bizkaiko herrietatik barrena igandeetan euskara mintzatuz ibiltzea.

Nola batu, ordea, euskara? Batua egina zegoela erantzuten zuen, “Leizarragak batu zuen XVI. mendean. Batua lapurtera klasikoa da”, esaten zuen. Eta hitz egin ere lapurtar klasikoaz hitz egiten zuen. Leizarraga buruz zekien.

Nola modernizatuko dugu euskara? Europako kultur iturrietatik edanez, erantzuten zuen. Garbizalekeriak baztertuz eta kultura greko-latinoaren, bereziki greziarren

hiztegia gureganatuz. Oker ez banago, berak bakarrik defendatzen zituen bi ideia horiek 1950 baino lehen. Gero-ra, pixkanaka-pixkanaka euskaltzale mordo bat bere tesi-tara arrimatu zen: Aita Villasante, Mikel Arruza, Mirande, Aresti eta abar.

Zer harreman izan zenituen Arestirekin?

Politikaren alorrean oso sentsibilitate desberdinak genituen eta pertsona bezala pixka bat espeziala zen. Arestik gure aldean klase kontzientzia sendoagoa zuen; eta ingurua, adiskideak eta ezagunak eta eraginak ere, oso desberdinak zituen. PCEn orbitan mugitzen zen eta beti harri-garria egin zaidana horixe da, ingurumaria horretan bizi eta nola murgildu zen euskararen munduan, euskarari zego-kionez erabat radikala baitzen. Hitz batean esanda, politikaren alorrean inkompatibleak ginen, baina, hala ere, harreman onak izan genituen, euskara batuaren aldeko borrokan bereziki.

Behin baino gehiagotan kontatu duzu zuk ordura arte Euskaltzaindiko bilerak erdaraz egiten zirela.

Horrek adierazten du ondoenik egoera nolakoa zen. Garai horretan Euskaltzaindiak bere bilerak gaztelaniaz egiten zituen. Urkijok edo Olabidek ez zekiten euskaraz mintzatzen. Inazio Maria Etxaidek, Jon Etxaideren aitak, larri-larri hitz egiten zuen. Ohituraz ere, gauza garrantzitsuak gaztelaniaz eztabaidatzen ziren. Krutwig izan zen Euskaltzaindiko bilera eta lanetan euskara erabiltzeko asmoa hasieratik beretik agertu zuena, baina Urkijo zahar-rarekiko errespetuz ez zuen bere proiektua don Julio 1950ean hil arte aurkeztu. Euskaltzain urgazle batzuk alde atera zitzaizkion.

Dena den, Euskaltzaindiko joera horiek ez ziren bat-batean errotik aldatu. Euskaltzainek erdaraz aurkezten segitu zuten beren txostenak, eta gaztelaniaz mintzatzen ziren beren artean. Euskaltzain ezagun batzuen seme-alabak erdaldun hutsak ziren edo, kasu batzuetan, euskaldunberri biribilak. 1957an, ni Euskaltzaindian sartu nintzenean, erdal joera horien arrastoak nabarmen zeuden.

Puntu honi dagokionez Orixeren pasadizo esanguratsu bat gogoratu izan duzu.

Orixeren kasua oso adierazgarria da, baina ezin da esan inola ere salbuespena zenik. Orixe 1954an itzuli zen Ameriketatik eta Euskaltzaindiko bileretara joaten nintzen urte haietan, Orixe joaten zenetan erdaraz hitz egiten zuen normalean euskaltzainekin. Esan beharra dago Orixe izan zela euskaltzaletasunak sortu duen lehen idazle profesionala. Baina Orixe ezagutu genuenok zalantza gutxi dugu bere erdalkeriaz. Ramon Labaieni behin eta berriz entzuna diot: gerran bestaldera joan zelarik, Saran bere aitak, Antonio Maria Labaienek, etxean hartu omen zuen; eta erdaraz hitz egiteko zuen ohitura horrekin harrituta-edo, behin ea bera bezalako euskaltzale batek beti ere erdarara jotzea ez al zen bekatu mortala galdegin omen zioten, eta Orixek baietz erantzun omen zion, bekatu zela, baina “bekatu beniala”.

Beste euskaltzale asko bezala ni ere Leitzara joan nintzen 1957ko abenduaren 22an, euskaltzain oso hautatu zutelarik, bere sarrera-hitzaldia entzutera. Hitzaldia hasi berria zuelarik, nonbait aretoan zarata gehiegi sumatuz edo, hauxe galdegin zuen erdaraz: “¿Qué? ¿Ya se me oye ahí atrás?”... Sinetsi ezinak dira gauza horiek, baina gurean normalak izan dira.

Donostian ebakuntza bat egin zioten 1958 inguruan. Bisita egitera joan gintzaizkion emaztea eta biok Ategorrietako klinika batera. Ez dago esan beharrik Orixe errespetuz eta mirespenez tratatzen genuela. Sartu gara biok Orixeren gelara eta galdetu:

—Zer moduz, Orixe? Hobeto al zaude?

—Bueno, pues ya voy un poco mejor.

—Eta zenbat egunez egon beharko duzu ohean?

—*Todavía no me ha dicho nada el médico al respecto.*

Eta abar eta abar, elkarrizketa elebidun txandakatua izan genuen.

Halako batez, emaztea eta biok erabat mindurik, ausartu egin ginen moztera:

—Aizu, Orixe! Euskaraz ere badakigu!

Ez zen jabetu ere egin bera, eta erdaraz segitu zuen.

Guk, orduko gazte aberzaleok, geure herriaren mintzabide bihurturik nahi genuen euskara. Hortxe sumatzen zen bi euskaltzale belaunaldien arteko etena.

Zaitegirekin batean, Orixe izan zen euskara kultoa bideratzen gure aurretik lanik gehien egin zuen idazlea, baina lan hori guztia ariketa intelektual gisa egin ote zuen susmoa utzi zigun zenbaiti.

Bestalde, bere zenbait obratan agertzen den Euskal Herria erabat asmatua da. *Euskaldunak* argitara eman zuelarik, Krutwigek “euskal jebismoaren apologia” zela esan zuen. Nik ere kritika bat eman nuen argitara, gero *Euskal herrietatik erdal herrietara* bilduman jasoa, bere ideologia eta pentsamendu politikoa aztertuz.

Zertan zebilen Mitxelena garai hartan?

Kartzelatik irten ondoko urte haietan, Mitxelenak go-riak pasatu zituen bizimodua ateratzeko. Bolada luze ba-

tez Torrelavegako institutuan egon zen irakasle. Eta Antonio Tovarrek aurkitu zion leku bat Salamancako fakultatean. Tovar frankista amorratua izana zen, baina Mitxelaren lan zientifikoa miresten zuen.

Askok ikusten genuen euskara bera osatu eta gaurko harremanetarako prestatu beharra zegoela, eta hori orain bertan egin zitekeela uste genuen. Mitxeleak ez zuen sinesten berehala egin zitekeenik. Garai hartan entzun nion nik honako esaldi hau: “bai Xenpelar eta bai ni neu, errenteriarrek gara biok. Xenpelarrek nik baino hobeki zekien euskaraz. Egia. Baina beraren euskara hark ez dit niri gaur balio”. Euskararen muga horien kontzientzia garbia zuen, baina ez zuen euskara goitik behera berritzeko presarik ikusten; edo aukerarik, bederen.

Alde horretatik, gazteagoi ez zigun sinpatia gehiegi-rik. 1959an argitara eman zuen bere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan, nitaz aipuren bat egiten du eta ez dut uste oso ondo uzten nauenik. Azken urteetan euskal letren panoraman idazle gazte talde bat agertu zela, esaten zuen, “jakituria baino segurtasun gehiagorekin”, eta horien adibide garbiena ni nintzela. Guk, berriz, ez genuen onartzen Mitxelenaren lana, oro har, erdaraz idatzia izatea.

Aipatu duzun belaunaldien arteko haustura horretan zerikusirik ba al du politikak?

Nik baietz uste dut. Guk oso garbi ikusten genuen euskararen arazoa politikoa zela erabat. Euskal eskola eta unibertsitatea, euskal administrazioa, euskal prentsa bultzatzeko, ekonomiaren alorrera euskara sartzeko, egoera politikoa aldatu behar zela, frankismoaren barruan euskararen arazoa ez zegoela konpontzerik. Eta borroka politikoan sartu ginen. Orduan hasi nintzen ni euskal historia

ikasten. Bizkaiko Diputazioaren liburutegian oraindik orriak askatu gabe zituzten liburu asko irakurri nuen orduan: Campion, Oloriz, Sagarminaga, eta beste zenbait historiagileren lanak. Bizkaiko eta Nafarroako foruak aztertzen ere ordu asko egin genituen, eta Polonia, Eire, Suomiko askapen mugimenduak ezagutzen saiatu ginen. Baina, gauza guztien gainetik euskara lantzen ahalegindu ginen. Niri dagokidanez, esan dezaket, 1949-50 ikasturtean, ingresoko azken saialdia prestatu nuen urtean, gauzez 12etatik 3ak arte ikasten nuela euskara. Zindoa zen nire erabakia.

Zer irakurtzen zenuen?

Denetarik. Euskara ikastekoez gain, egunean hiru liburu alogeratzen zituen elkarte bateko bazkide egin nintzen, eta orduantxe irakurri nuen literatura apur bat. Euskaraz funtsezko gauzak idazteko deliberoa hartua nuen. Gure taldeko filosofoa Iñaki Gaintzarain zen, bilbotarra eta irakurle amorratua. Birritan kartzelan egona zen jadanik, eta erabat fitxatua zegoen. Lagun horren eraginez irakurri nituen Unamuno, Kierkegaard, Jaspers, Heidegger, Sartre, Camus eta Marcel; Marcel batez ere, Iñakiren us-tez katolikoena zelako. Existenzialismoaren garaiak ziren eta gu garai hartako seme. Nolabait gure burua definitu izan behar banu, existenzialista abertzaleak ginela edo intelektual konprometituak izan nahi genuela esango nuke, Sartreren eraginagatik edo.

Budismoa ere garai horretan ezagutu al zenuten?

Nik uste dut budismoa, Sartre bezalaxe, giroan zegoela. Soldaduskan El Ferrolen nengoela Lopez Encinas ize-neko madrildar injeneru baten adiskide egin nintzen. Poli-

tikan frankista amorratua zen, baina gainontzean oso ondo konpontzen ginen. Budismoaz asko zekien eta liburuak uzten zizkidan. Horrek esplikatzeko du urte haietan idatzi nuen *Peru Leartzako*-n budismoaren presentzia hain nabaria izatea.

Baina lehendik ere ezagutzen genuen. Gandiren bidez az asko hitz egiten genuen geure artean. Ekin-en baitan, esate baterako, behin eta berriz aipatzen genuen ez zegoe-la beste aukerarik, gandismoa ala borroka armatua.

Jean Goss-en izkriburen bat irakurria genuen gai horretaz eta Karlos Santamariak eta bere inguruko jendeak ere baliatzen zituen Gandismoaren inguruko ideia horiek, beren kristau ikuspegitik hurbil samar zeudelako edo. Gogoratu behar da gure taldeko gehienak kristau sutsuak zirela. Benito del Valle Bizkaiko Acción Católicako lehendakari izana zen. Iñaki Gaintzarain eta Jose Manu Agirre ere kristauak ziren. Urte haiek Maritainen eta kristau pertsonalismoaren garaiak ziren. Neu nintzen han agnostiko bakarra; eta Madariaga, noski.

Borroka armatua planteatzeko orduan arazo moralak zituzten gehienek. Madariaga zen horretan radikalena. “Una resistencia sin muertos no es una resistencia”, errepikatzen zuen, eta eztabaida horietan Gandiren bidea Euskal Herrian ere posible zela entzuten zuenean, urduri jartzeko zen eta horiek inozokeriak zirela esaten zuen.

Dena den desbideratu egin naiz pitin bat, gandismoak ez baitu lotura zuzenik budismoarekin. Budismoa ez zen izan orduan jarrera intelektuala baizik. Nik argitara eman nuen bigarren lantxoa Budari buruzko artikulu luze bat izan zen “Mendeurren oargarri bat” izenekoa, 56an.

1955ean jaso zenuen idazle gisa zure bizitzako lehen saria.

Koldo Mitxelenak eman zidan sari hori. Gipuzkoan bazegoen garai horretan Elizaren arrimuan sortutako erakunde bat “Oargi” izenekoa (Organización Artístico-Recreativa de Guipúzcoa). Donostiako Getaria kalean zuen egoitza erakunde horrek eta egoitza horretan egiten genituen gure bilerak. Oargik eraturako sariketan jaso nuen delako sari hori. Idazlanaren izenburua esanguratsua da: “Kierkegaard-en azia Unamunorengan lore”. 26 urte nituen orduan eta injineru karrera bukatu gabea.

Kezka filosofikoak oso nabariak dira hasierako lan horietan.

Nire Unamunozaletasuna erakusten duen beste artikulua bat eman nuen argitara segidan, “Unamuno eragille” izenburuaz; astronomiari buruzko lantxo bat ondoren: “Betikoaz agian” (*Egan*, 1958), eta “Lekuko bikain bat il da” Camusen heriotza zela eta 1960an. Baina historiari buruzko nire kezkek ere aurki daitezke beste lantxo batzuetan. Ordukoa da “Donostia eta Antigua 1929an”. Urte horietan eman nuen argitara baita ere, nik saiakera labur gisa sailkatuko nukeen ipuin bat, “Orangutanen ugartea”.

Hala ere gazteagoek zure bi izenburu bakarrik gogoratuko dituzte garai horretakoak, zure bi nobelak alegia.

Nire lehen bi nobelak urte horietakoak dira, *Leturiaren egunkari ezkutua* 1956koa, El Ferrolen soldaduska egiten nengoenean idatzia; eta *Peru Leartzako* 1960koa.

Lehen nobela horretan existentzialismoaren kezkek eta problematika nagusia agertzen dira. Sinbolotan gauzaturik, aukeratu beharri lotutako ezinegonak azaltzen di-

tu, eta aukeratu ondoko egoera ezin aldatuari datzekion larridura berriak bigarren partean. Kierkegaard eta Unamunoren eragina bistakoa da.

Bigarren nobelan ere sinbolismorik badago, baina sinboloak ez dira hain orokorrak. Hemen eguneroko lan egin beharretik sortzen den etsipena eta larridura dira agertzen direnak eta budismoaren tentaldia ere nabarmena da.

Geroko *Elsa Scheelen* eta *Exkixu* ez, baina *Haizeaz bestaldetik* oso gertu dago hasierako bi nobelen sinbolismoaren ildo horretatik.

Zure hasierako lanetan gai zientifikoek ere leku garrantzitsua hartzen dute. Einstein-en erlatibitatearen teoriak, esate baterako, lan luze bat idatzi zenuen.

Nik beti aitortu izan dut Heidegger-en *El ser y el tiempo* edo Sartreren *El ser y la nada* irakurri bai, baina ez ditudala tutik ulertu. Nahiago izan ditut fisika edo, oro har, zientziei buruzko gaiak.

Badakit Einsteinen teoriak konprenitu ahal izateko fisika eta matematika asko jakin behar dela, nik dakidan baino askoz ere gehiago, baina saiatu egin naiz, liburu pilo bat irakurri dut eta ulertu ditudan heinean izugarriak iruditu zaizkit. Einsteinen kalkulu tentsorialak ikertzea nahikoa da, esate baterako, harritura geratzeko. Egiten dituen formulazioak izugarri zailak dira, eta problema filosofiko handiak planteatzen ditu. Teoria horietan halako edertasun, harmonia eta simetria harrigarri batzuk sumatzen dira eta, orain artean bederen, errealtatean frogatu egin daitezke. Orain dela hogeit hamar urte egin zuten, esate baterako, bere formulazio baten froga praktikoa: bi abioi atera ziren une berean, bata ekialdera eta bestea mendebaldera. Alegia, bata lurraren errotazioa zuen bere alde

eta besteak kontra. Eta abiadurak denboraren kurtsoa aldatu egiten duela frogatu ahal izan zuten.

Karrerako azken ikasturtean Belda izeneko irakasleak eman zizkigun gai hauek “Mecánica racional” izeneko asignatura batean, eta gogoratzen naiz nik erabat interesaturik jarraitu nituela klaseak, gela guztia kexatzen ari zen bitartean, gehienek ez baitzuten ezer ulertzen, ezta ulertu nahi ere. Zertarako?

Zergatik ikasi zenuen injeneru karrera? Egin al duzu lanik gero profesio horretan?

Aitak erabaki zuen nire karrera. Nik matematikarako erraztasuna nuen eta injeneru industrial karrerarekin lana aurkitzea oso erraza zen garai haietan. Baina ni ez naiz inoiz gizon teknikoa izan.

Egia da gero hizkuntzalaritzara pasatu nintzela, baina injeneru lana ere gustatzen zitzaidan, nik egin izan dudana lana, hobeto esateko, egituren erresistentziak kalkulatzeko alegia. Belgikan egon nintzen urteetan Hamon izeneko enpresa handi batean egin nuen lan eta egitura industriallak egiten genituen, zentral termikoetako dorreak. Mol-go zentral nuklearreko dorreak eta Amercoeur-ekoak nik lan egiten nuen bulegoan kalkulatuak dira. Eskuak zikindu nituen, beraz. Indar nuklearraren alde lan egindakoa naiz. Baina, kasu bakarra izan zen, Mol-go, bestea termikoa zen. Enpresa horrek zentral termikoak egiten zituen eta garai hartan Europako zenbait herrialdetan aritu nintzen lanean, Atenasko Megalopolisen, esate baterako, zentral termikoa egin genuen.

Normalean 100 metro alturako dorreak ziren. Lehenik eta behin kalkuluak egiten genituen ordenagailu bidez, garai hartako ordenagailuekin, noski: FORTRAN,

karta perforatuak eta tramankulu handiak... Haizearen kontrako eta lurrikaren kontrako erresistentzia kalkuluak egiten genituen, gauzak sinplifikatuz, noski, eta gero ple-xiglasezko miniaturak eraikitzen genituen praktikan berifikatu ahal izateko, eskala normalean eraikitzen hasi aurretik. Han erabili nuen dakidan matematika apurra.

Lan hori gustatzen zitzaidan. Gutxiena gustatzen zitzaidana dorre horietara igotzea izaten zen. Tarteka obrara bisitak egiten genituen eta zementua igotzeko igogailu kaskar batzuetan igotzen ginen ehun metrora, polearen kableari helduta. Sekulako beldurrak pasatzen genituen.

Zuk fonetikari buruz egin zenuen tesi doktora. Hizkuntzalaritza al zen zure bokazio frustratua?

Bokazio frustaturik izatekotan pianoa izango nuke. Gazte denboran musikaren tentazioa sentitzen nuen eta piano karrerako bost kurtso egin nituen. Beste hirurekin ere segitu nuen, baina azterketara aurkeztu gabe, etxean uste baitzuten piano karrerak beste karrera bat egitea galaraziko zidala. Eta burua zer bait “praktikoagoan” izan behar nuela.

Nik ez dut piano karrerarik bukatu, baina karrera egin duten batzuen tamainan jotzera iritsia naiz. Geroztik, atzerrian egin ditudan 16 urte luze horietan 30en bat etxetan bizi izan naiz, baina guztietan izan dut piano bat ondoan. Orain ere badaukat bat baserrian, piano “de cola” txiki bat, baina ez zait oso ona atera, piano bertikal zenbait baino eskasagoa da. Beharbada irratiko elkarrizketetan bezala, aprobetxatu beharko genuke irakurleren batek pianorik saltzeko balu, harremanetan jar dadin eskatzeko...

Zein autore jotzen duzu gehien eta noiz eseri ohi zara pianoaren aurrean?

Gehien jotzen dudana autorea Chopin da. Ez dut Chopin osoa jotzen, noski, baina gehientsuena bai. Baladak ez zoritxarrez. Laugarrena bederen! Ezin. Orain dela gutxi Atxukarroren bi kontzertu entzun ditut eta bera mustro bat da. Horrelakoen ondoan ni txapuzero bat besterik ez naiz. Alor guztietan gertatzen da hori. Hizkuntzalaritzan, esate baterako, Mitxelenak beste maila bat zuen; Mitxelenak bakarra zen eta beste guztiok askoz ere maila apalagotan uzten gintuen. Gero Debussy eta Ravel ikasi nituen, baita jo ere, hein batean.

Pianoa erruz gustatzen zait eta beharbada alai nagoean gustatzen zait gehiena pianoa jotzea. Bolada hone-tan, esate baterako, nahikoa ezkor nabil eta apenas pianoaren aurrean esertzen naizen. Baina teknika falta zait: “Berceuse” menderatzera iritsia naiz, baina “Prélude n. 19” ez.

Ba al dago parekotasunik Einsteinen teoriaren harmoniaren eta musikaren artean?

Beharbada. Seguru asko. Baina batek ez du musika jotzen askotan nik-ez-dakit-zer unibertsoan barrena galtzeko. Hori ere badago, baina pianoa jotzeak, niretzat, alderdi arruntagoak ere baditu: gimnastika bat da, gorputzaren ariketa bat, esan nahi dut, eta distrakzioa askotan. “La plus que lente” (Debussy), Chopin-en Valsak, lasaipide ere gertatzen zaizkit.

Badakigu zein den zure bokazio frustratua; zein da zintzilik duzun asignatura?

Ingelesa da aspaldian zintzilik dudana asignatura. Horretan “arinaiztarra” izan naiz. Frantsesarekin oso azkar

ohitu nintzen, egunean zortzi ordu frantsesez lan egitea tokatu baitzitzaidan atzerrira ihes egin bezain pronto. Baina ingelesarekin ez dut aise hitz egiteko solturarik lortzen.

1981-82 ikasturtea Los Angelesko UCLAn egin nuen. Urte sabatikoa hartzea erabaki nuen, fonologiari buruzko nire tesi doktora bukatzeko. Urte hartan hizkuntzalari oso bihurtzeko asmoa eta esperantza izan nituen. Betiko ametsa. Baina, Gasteizko ateak nabarmenki itxiak topatu nituen ondoan. Tesia bera ere Bartzelonan aurkeztu nuen. Eta Zorroagan desbideratu egin nintzen, neure alorra galduz. Baina Los Angelesera eta ingelesaren kontu horretara itzuliz, Andolin Eguzkitza adiskidea han zegoen eta adiskide hispano gehiegi egin nituen. Emazteak behin eta berriz esaten du ingelesez trebatzeko okasio izugarria alferrik galdu genuela. Ez dakit. Uste dut ordenagailu zaharrei bezalaxe, gure memoriari ere halako betekada bat sortzen zaiola eta ez duela gaztetan bezala erantzuten. Edo gogoia ere ahuldu egiten zaigula. Ikasturte horretan unibertsitateko lanak ingelesez egin nituen eta klaseak ingelesez jaso. Komunikatzeko ere ez nuen eragozpen handiegirik izaten, baina elkarrizketarako behar den solturarik ez nuen hartu.

Gainera ikasturte horretan besikulako ebakuntza bat ere jasan nuen, peritonitis gertatzeko zorian harrapatu baininduten. Ez nuen, ez, suerte handirik izan alde horretatik. Bestela, tesiarekin konforme geratu nintzen. Ondoren Hualdek eta Gamindek fonologia mailan izugarrizko aurrerapenak ekarri dituzte. Hamar urte hauetan lan egiteko teknikak oso aurreratu dira. Baina nik garai hartan nituen baliapideak erabilia, ekarpen interesgarriak lortu nituela uste dut. Eta askotan iruditzen zait orduantxe desbideratu

nintzela; desbideraketa horretan izari politikoa ere erabakigarria izan zen.

Argitara eman zenituen lehen artikulua aipatu ditugu lehen, Oargiren lehen saria ere bai. Zer arazo plateatzen zizkizun euskarak lan egiteko orduan?

Urte batzuk lehenago euskararik ez jakiteak kezkatzen ninduen eta garai honetan berriz, behar adina ez jakiteak. Mitxelenak berak nire *Leturia*-ren hitzaurrean esaten zuen euskara “gordin-antxa” nuela oraindik. Nire ahulezia horrek irakurtzera eta ikastera bultzatu ninduen. Mendibururen *Otoitz-gaiak*, Axular, Asteasuko Agirre, orduan irakurri nituen nik xeheki eta buruz buru.

Bestalde, euskararen dialektalismoak kezkatzen ninduen. Horretan Krutwigekin bat nentorren: gure hizkuntza ez zegoen prest, gaitu egin behar genuen eta osatu.

Kezka horien lekuko da *Egan*-en 1956ko apirillean argitara eman nuen “Ez bat eta ez beste. Euskararen auziari buruz” artikulua. Bertan euskara garbiaren ala mordoiloaren arteko eztabaidaz nire iritziak ematen nituen. Orduko abertzaleak, oro har, garbizaleak ziren eta gazte batzuk, garbizale izanik ere, gehiegikerien kontra agertzen ginen. Artikulu horretan zera esaten nuen, jatorrizko euskaldun bati euskara garbia edo mordoiloa den galdeginez gero, ez duela erantzuten asmatzen, euskara euskaldunen mintzabidea izan den bitartean, inor ez baita auzi horretaz kezkatu. Artikulu horretan, hala ere, ez da “euskara batuaren” erreferentziarik egiten.

Noiz hasi zen Euskaltzaindia Euskara Batuaren auzia lantzen?

1930ean Azkuek hasi zuen lana “Erizkizundi Irukoi-tzaz”. Baina gero 1936a etorri zen. Eta garai horretan

Euskaltzaindia zer egoeratan zegoen ulertzeko testuinguruari begiradaxo bat eman behar zaio. Kontuan izan behar da Franco 1937an Bilbon sartu zenean euskal kutsuko erakunde guztiak beren horretan geldiarazi zituela, Euskaltzaindia barne. Baina Urkijo eta Azkue ez ziren aberzaleak, ez ziren separatistak, eta frankistek ez zuten Euskaltzaindia erabat desegin. Egoitzak zabalik segitu zuen eta, polizia erabat fidatzen ez zen seinale, bi agente bidali zituen, 1942ko martxoaren 31ko agiriak adierazten duenez.

Isilka-isilka hasi zen Euskaltzaindia berriro bilerak egiten, Azkueren lehendakaritzapean beti, Donostian eta Bilbon txandaka. Euskaltzaindiak ezagutu zituen urterik gogorrenak izan ziren. Bilerak erdaraz egiten ziren, gerra aurrean bezala, eta txostenak ere erdaraz aurkezten ziren.

1947an euskaltzain oso aukeraturik, Krutwigek mahairatu zituen arazo nagusiak. Julio Urkijo hil eta berehala, bilerak euskaraz egitea proposatu zuen eta baita lortu ere, neurri batean bederen. Eta Euskara Batuaren premia azpimarratu zuen behin eta berriz. Besteak beste, 1943ko azaroan txosten berezia aurkeztu zuen gai honi buruz: “Unificación de los dialectos vascos”. Bide beretik zebilen Sebero Altube ere eta honek 1946an Baionan irakurri zuen “La unificación del euskara literario” ez zen batere zabaldu Hegoaldean. Altube deserriari bizi zen. Frankismoaren pean Iparraldeko berriak ez ziren Hegoaldera iristen.

Bai Menéndez Pidal eta bai Orixek, arrazoi desberdengatik, Euskara Batuaren kontra zeuden. Menéndez Pidal ez zizaion estandarren “artifizialkeria” gustatzen eta Orixek, berriz, Grezia klasikoaren ereduaren gogoa: lau dialekto literatur tresnatzat.

Beste euskaltzain batzuek, berriz, ez zuten inolako ikuspegi nazionalik. Seminario Rojas izeneko bat frankista zen, Antonio Arrue karlista, eta Oleaga ere bai.

Gazteok sekulako presa genuen, baina hamar urtez itxaron behar izan genuen, Mitxelenaren gidaritzapean Euskara Batuaren oinarriak ikusteko. Guk geroari buruz nahi baikenuen euskara.

Zuk zeuk ezagutu al zenuen Seber Altube? Zer eragin izan zuen euskara batuaren hastapenetan?

Nik Bilboko batzarrean ezagutu nuen 1958an. Atzerrian 20 urte egin eta gero itzuli zen eta gazteok sekulako poza hartu genuen, mitoa baitzen guretzat.

Sebero Altube batuaren alde agertua zen 1922rako, eta garbizalekeriaren kontra ere bai, betidanik. Planteamendu modernoak zituen euskararen alorrean. Gernikako alkate izan zela uste dut gerra garaian eta 1936an *La vida del euskera* izeneko liburua eman zuen argitara. Irlandako kasua eta beste zenbait ondo ezagutzen zituen eta liburu hori errebelazio bat izan zen niretzat. Ihesi joan beharra izan zuen eta arrazoi desberdinengatik kontra izan zituen batera PNVko “ofizialak” (garbizale amorratuak, itxuraz, eta praktikan erdarazaleak) eta frankistak. Hitz batez esateko, mitoa zen gazteontzat.

Izatez Arrasatekoa zela uste dut. Kurioso da, baina euskara batuaren lehen aitzindariak, Seber Altube, Krutwig... bizkaitarrak dira eskualdez.

Noiz izendatu zintuzten zu euskaltzain urgazle?

Ni naizela uste dut Euskaltzaindikoko urgazlerik aspaldikoenetako bat. 1957ko irailaren 26an izendatu ninduten Jon Etxaide, Gabriel Aresti eta beste zenbait eskaltzalerekin batera, 28 urte bete behar nituen eguneko bezperan.

Urgazle izendatutakoen zerrendaren bila ibilia naiz, baina akta hori “galdua” dela esan zidan Jose Luis Lizundiak. Euskaltzaindiak inoiz bere barruan egin duen berrikuntzarik handiena egin zuen izendapen horiekin. Oso jende gaztea izendatu zuen urgazle.

Geroztik hilero-hilero joan nintzen Euskaltzaindiak Donostian, Foru Aldundian, egiten zituen bileretara, harik eta 61ean kartzelatik irten eta ihes egitea erabaki nuen arte.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi zituen: zientzi alorrekoa bata, “Iker saila” izenekoa, eta hizkuntza biziari buruzkoa bigarrena, “Jagon saila” zeritzona. Esan beharrik ez dago bigarren honetan sumatu genuela guk, euskaltzale gazteok, frankismo itogarri hartan, euskararen alde zer-bait egiteko zirriztua eta Jagon sailaren barruan Euskaltzaindiaren Laguntzaileak izeneko azpi-sail bat muntatzeko proiektua prestatu genuen. Azpi-sail horretako idazkari izendatu ninduten. Baina trabak sortu ziren berehala, finantzen alorrean batik bat. Gure atzean nor ote zegoen galdegiten zuten euskaltzain geldikoiek.

1960ko abuztuan atxilotu ninduen Guardia Zibilak; eta beste gauza askoren artean Euskaltzaindiaren Laguntzaileak erakunde berrirako proposamenak begiratu eta nire sinadurak atzeman zituzten. Euskaltzain askok “elementu konfliktiboa” nintzela erabaki zuten. 1961eko udaberrian pasatu nuen muga eta 16 urterako deserrira joan nintzen, eta ondorengo urteetan ezer gutxi jakin nuen erakunde sortu berri haren ibilbideaz. Txetxenian edo Palestinan arazo bertsua dukete txetxeniarrek edo palestinarrek: “konfliktibo” bihurtzea.

Iparraldean zinelarik, famatua izan zen zuk Euskaltzaindiarekin izan zenuen gorabehera. Dimisioa aurkeztera iritsi zinen.

Iparraldera pasa bezain pronto Aita Xarritonek lagundu zidan Hazparnen berak zuzentzen zuen Collège Saint Joseph delakoan ohea eta mantenua emanez, eta baita injineru lanen bat bilatzen ere. Baionako bulego batean aritu nintzen lehenik eta Parisko enpresa batean gero. Ekin taldeko izandakook erabat sakabanaturik geundela-eta Jose Maria Benito del Vallek Iparraldean enplegu-multzo bat sortzea proposatu zuen, guztiok Euskal Herrian bizi-modu eta guzti finka gintezen. Eta horrela itzuli nintzen Iparraldera berriro, eta Aita Xarritonen anaia baten eskue-tan zegoen Charpente Métallique enpresan hasi nintzen lanean. Battitta Xarriton orain dela aste batzuk hil da, hain zuzen.

Euskaltzaindiak Iparraldean egiten zituen bilera guztietara joatea erabaki, eta suerte handia izan nuen, hilabete gutxiren bueltan bi euskaltzainen sarrera-hitzaldiak tokatu baitzitzaizkidan: Iratzeder beneditarrarena 1963ko maiatzean Belokeko komentuan eta handik sei hilabetera Jean Haristchelharrena Baigorriin.

Lehen esan dudanez, Euskara Batuaren aldeko borrokan sarturik nenbilen urte horietan, baina ez genuen aurrerapausorik ematen. Euskaltzaindiak ez zuen inolako presarik eta, okerrago dena, Euskara Batuaren kontrako korronte bat indartzen hasia zegoen. PNVko zuzendari-tzak ez zuen batuaz ezer jakin nahi, “atzetik indar ilunak” sumatzen zituelako. Eta Mitxelena bera PNVk frenatua sentitzen bide zen.

Gauzak horrela zeuden eta Baigorriko sarrera-hitzaldi hori niretzat azken tanta izan zen. Zergatik? Haritschelharrek baxenabarreraz hitz egin zuen eta Lafonek zubereraz

erantzun. Sinboloen mailan ere, gure ustez, ospakizun nagusi batean garbi erakusten zuen Euskaltzaindiak dialektalismoari eutsi nahi ziola. Generaman borroka zailean irain iruditu zitzaigun ospakizun hura. Eta dimisioa aurkeztu nuen. Angeluko nire etxeko pareta batetik zintzilik nuen izendapen-diploma bildu eta Bilbora bidali nuen eta Alfontso Irigoien adiskideari ofizialki euskaltzainburuari eta kideei helarazteko eskatu nion. Handik egun batzuetara Aita Xarritonek irakurri zuen nire izkribua eta, nik esandakoarekin bat zetorrela-eta berak ere dimisioa aurkeztu zuen. Hitz gutxitan laburtzeko, zera nioen idazki horretan: Euskaltzaindiak Biltzar Nagusi bat antolatu behar zuela batasunari buruzko zenbait auzi argitu eta erabakiak hartzeko. 1963ko kontuak dira horiek. Euskaltzainburua zen Jose Maria Lojendiok ez zuen nire dimisioa onartu.

Gerora ere Euskaltzaindiko ardi beltza izaten segitu duzu. Zergatik ez duzu eskuratu euskaltzain oso izateko izendapenik?

Geroztik euskaltzain batzuek ez didate barkatu nire militantzia politikoa. Nire curriculumak hartzen baduzu, argitara ditudan lanak pisuz neurtzen eta euskararen alde, aldez edo moldez, egin dudana, ez dirudi logikoa behin eta berriz niri atek istea eta beste batzuei aiseago irekitzea. Hor badago, itxuraz, beto politiko bat. Ni ETAn eta HBn ibili ez banintz besterik izango zen. Eta ez nire kasuan bakarrik. Ez da kasualitatea Euskaltzaindia EEko militante ohiez edo jarrera ofizialistak dituztenez beteta egotea. Salbuespen bakarra Patxi Zabaleta da.

Garai batean ilusio handia egiten zidan euskaltzain izateak, Euskaltzaindiaren barrutik lana askoz ere hobeto egin nezakeela pentsatzen nuelako. Une batean Euskal-

tzaindiaren Baionako ordezkari-tza neuk eramatea proposatu zidaten eta argitara eman nituen zenbait lan, *Euskal aditz batua*, esate baterako, Euskaltzaindiaren enkarguz egin nituen.

Alabaina, trantsizioa etorri zen, Autonomi Estatutua, eta jarrera ofizialen kontra geundeno i ate guztiak itxi zizkiguten. Patxi Altuna euskaltzain izendatzea, esate baterako, ni ez hautatzeko operazio politiko bat izan zen. Nik ez dut, noski, ezer Patxi Altunaren kontra. Kartzelan 1960an nengoela bisitatzer a etorri zitzaidan eta EUTGn lana ere berari esker aurkitu nuen ondoko urteetan. Baina izendapen horren berri jakiten saiatu naiz eta datu asko ditut hura "operazio" bat izan zela esateko. Eman buelta auzi honi eta imajina ezazu Jaurlaritzaren jarrerarekin erraz ezkontzen den beste euskaltzale bat bere bizia euskararen alde eman duena eta nire curriculum berberarekin, eta ez dirudi posible Euskaltzainditik kanpo egotea.

Ez da Euskaltzaindiko kontua bakarrik. Marjinazio honek sekulako mina ematen zidan lehen. Injustizia bat zela pentsatzen nuen. Baina badira bost bat urte paso egingiten dudala. Euskaltzainditik kanpo ere badago non lan eginik. Gaminde, Pilartxo Etxeberria eta Jose Inazio Hualderekin euskal azentua aztertze ko talde bat osatu genuen eta ahoskera lantzen ari gara. Bidenabar esan dezadan, ez dela kasualitatea taldea osatzen duen hirukote honetako inortxo ere euskaltzain oso ez izatea, nahiz eta kategoria handiko hizkuntzalariak diren, Hualde batez ere.

Zure bizitzan zehar oso zail egiten da euskararen aldeko borroka eta politikaren arteko mugak bereiztea.

Oso azkar ohartu ginen euskararen auzia politikoa zela erabat. Esana dudanez, oraindik gazteak ginela ikusi genuen hori, 1950 inguruan, eta politikatik kanpo konponbide zaila zuela erabaki genuen, frankismoaren barruan ez zuela euskararen egoerak irtenbiderik alegia, alde batetik, eta bestetik hizkuntza baten auzia ez dela hitzunen borondate kontua bakarrik, erakunde batzuen sostengua behar duela.

Gerora, soziolinguistikan sakondu ahala, sendotu egin ziren nigan iritzi horiek.

Azken finean, denborak zera erakutsi digu: hizkuntza ere bi hankaren gainean mugitzen den zerbait dela; alde batetik erakundeak behar dituela, eta herri mugimendua bestetik.

Irlandako kasuak oso garbi erakutsi zigun erakundeak izanik ere, herri borondaterik ez badago hil egiten dela hizkuntza. Egia da, gaeliko hizkuntza oso gaizki zegoen 1921ean Eirek independentzia lortu zuenean. Eskala sozialean oso behean aurkitzen ziren txiroek bakarrik hitz egiten zuten, eta eskualde oso mugatueta, kostaldean ba-

karrik. Horiek ere elebidunak ziren eta ez zen geratzen kasik elebakarrik. Giro urbanoan ez zegoen gaelikoaren arrastorik ere. Dena den, badago gaelikoaren heriotza-prozesuan aipatzea merezi duen gertakari bat: Douglas Hyde hezkuntza ministro izendatzea.

Douglas Hyde Liga Gaelikoaren lehendakari izana zen, Irlandako kulturaren alde lan asko egindako gizona eta hura hezkuntza-ministro aukeratzean, jendea desmobilizatu egin zen, pentsatu zuen ez zegoela zertan borrokan segitu beharrik. Jendeak bere borroka delegatu egin zuen eta desmobilizazio horrek sekulako eragin negatiboa izan zuen ondoren.

Hitz batez, garbi dago hizkuntza batek unibertsitatea, prentsa, telebista, hau da, erakundeak behar dituela sostengu gisa, eta herri mobilizazioa ere behar duela.

Zertan egin dugu aurrera euskararen alorrean eta zertan atzera geroztik. Nola ikusten duzu gaur euskararen egoera?

Orduan baino askoz ere hobeto, oro har. Alor berriak okupatu ditugu. Prentsan, esate baterako, egunkari bat dugu kalean. Telebista katea dugu euskaraz eta unibertsitatean ere urrats handiak eman dira. Orain dela egun gutxi eman du argitara Salaburu erretore berriak unibertsitate publikoan euskararen egoera aztertzen zuen txostena eta izugarritzko aurrerapena suma daiteke hor: poliki-poliki asignatura erdiak euskaraz ematera irits gaitezke.

Pentsaezina zen hori aipatzen ari garen garaietan. Geroago ere oso ondo zegoen UEUren lana, baina hori testimoniala zen erabat.

Telebistaren eragina ere ez dugu askotan behar adina baloratzen, baina izugarria da.

Hutsune nabarmenak ere baditugu. Lan-tresna gisa euskarak ez du aurrerapen handirik egin. Egia da lanpostu batzuetarako eskatzen dutela, baina enpresa munduan ez du oraindik lanabes izaterik lortu.

Hala ere, aurrerapauso handiak eman dira urte haue-tan. Hori bai, badirudi lorpen hauek herri mugimendua ahuldu egin dutela eta hori arriskugarria izan daiteke.

Lehenera itzuliz, esango nuke gu “kulturalismo apoli-tikoaren” aurka ginela. Sustraitik politika egoera aldatu gabe, abertzaletasunetik kanpo, euskararenak egin zuela ikusten genuen eta borroka politikoan sartu ginen bete-betean.

Ekin taldeaz ari al zara?

Ekin taldeari ez genion inoiz izenik jarri. “Ekin” ize-neko boletina ematen genuen argitara eta izen horrekin ezagutu gintuzten, baina izenik gabeko taldea ginen. Horretaz ere eztabaidatu genuen behin eta berriz. Jose Maria Benito del Vallek hala nahi izan zuelako gertatu zen batez ere horrela. Izenik ez genuen, baina erakunde bateko par-taide ginen kontzientzia hasieratik izan genuen.

1951-52 ikasturtean, Injineru Eskolako garaian, era-baki genuen erakunde politiko ezkutu bat sortzea. Baina hasieran, geure formakuntzaren ahuleziaz jabeturik, oso prestakuntza intelektuala izan genuen: Euskal Herriaren historia irakurri, adibidez. Bilboko Diputazioko liburu-tegian, esan dudanez, behin baino gehiagotan gertatu zi-tzaidan mende hasierako autoreen liburuak oraindik orrialdeak askatu gabe aurkitzea eta neronek askatu be-harra: Hermilio Olorizen *Defensa y fundamento de los fueros*, esate baterako, gogoratzen naiz nola nik askatu behar izan nuen.

Erabat lotsagarria iruditzen zitzaidan. Liburu hori 1880 inguruan argitaratua zen eta 70 urte egin zituen liburutegi hartan inork irakurri gabe.

Olorizez gainera, Campion, Sagarminaga eta abar irakurri nituen.

Euskal Herria helburu liburuan kontatzen duzunez, Karlos Santamaria eta Joxe Migel Zumalaberen ikasle izan zinen Injineru Eskolako ingreso prestatzerakoan. Eraginik izan al zuten bi gizon horiek zugaran?

Santamaria eta Zumalabe elkarren oso lagunak ziren, baina ezin dira gauza askotan parekatu. Santamaria askoz ere gehiago nabarmendu zen urte horietan eta guretzat izugarritzko sorpresa izan zen, abertzalea zela enteratu ginenean. Sorpresa ona, esan nahi dut.

Injeneru Eskolako bi ingresoak prestatzeko matrikultatu nintzen Karlos Santamariak San Martzial kalean zuzentzen zuen C.E.S. delakoan, eta bi ikasturte egin nituen Santamaria eta Zumalabe irakasle nituela. Bigarren ikasturtea, 47-48koa, “Conversaciones Católicas Internacionales” direlakoekin batera gertatu zen. Don Karlos buru-belarri sartua zebilen antolaketan eta nabarmen ikus zitezkeen hori gela eta pasilloetan ere, pankartak, kartelak eta abar jarri baitzituen.

Direlako “Conversaciones” horietara munduko pertsonalitate katoliko ezagunak ekarri zituen. Kristau pertsonalismoa berak eman zuen ezagutzera gure artean eta Maritain bezalako pentsalariak Donostiatik pasatu ziren. Pax Christi erakundea abiatu zuen eta frantses Estatuan zehar antolatu ziren Bakearen aldeko Ibilaldietara gazte jendea eramaten zuen. Kanpoko kristau militanteekin harremanak izan zituen gure arteko jende askok eta hori beti

da aberasgarri, kristau militanteek beti izaten baitzizuten kezka barruan.

Gandismoa ere, edo nahiago bada bake-bidezko borroka, Santamariaren bidez ezagutu genuen; Jean Goss-en lanak, adibidez. Mugimendu hauen bueltan ez ziren gazte txoro batzuk ibiltzen. Jende heldua zen, prestijio handikoa eta horren guztiaren burua, Karlos Santamaria, abertzalea zela jakiteak arnasbide handia eman zigun garai hartan.

Egia da politikoki federalista gisa agertzen zela; eta federalista gisa autodeterminazio eskubidea defendatzen zuen. Ez dakit nik jarrera hori zuhurtzia kontua zen ala ez. Guk bagenekien abertzaletzat zuela bere burua eta ondoren jakin dugu garaiko abertzale askorekin harreman estuak zituela; eta isilpeko erakundeekin ere bai.

Dena den, nigan ez zuen Santamariak eragin pertsonal zuzenik izan. Iñaki Gaintzarainengan bai, baina ez nigan.

Joxe Migel Zumalabaren kasua desberdina da. Bere anaia, Agustin Zumalabe, Jagi-Jagikoa izana zen eta Ekin-en genbiltzanoi sinpatia zigun. Datu jakingarri bat aipatuko dizut: nik Dantxarineko muga 1961ean pasa nuenean, bera etorri zitzaidan bila. Joxe Migel abertzale gisa ezagunagoa zen eta beharbada horregatik uzkurrago agertzen zen, beldurtiago bere jarrerak agertzeko orduan.

Edozein modutara ere, Santamariaren inguruko mugimendu horiek “minicenáculoak” ziren, ez zuten eragin sozialik apenas.

Bilbon ere baziren garai horretan halako talde maritainiano batzuk, Abando izeneko baten inguruan eraturik.

Dena den, Bilbon Ekin sortu aurretik talde bat biltzen hasiak zineten Donostian.

Ni 1949an joan nintzen Bilbora. Bigarren ingresoa prestatu nuen udan, 1948koan, hasi nintzen ni Iñaki Zubimendirekin euskara ikasten eta udazkenean, misterio handiz, bilera ezkutu bat egin nahi zuela esan zidan nire irakasle horrek, eta ez zuela non bildurik. Zumalakarregi 5ean, nire aitaren bulegoaren ondoan lokal huts bat zegoen orduan eta nik giltzak lortu ondoren hantxe bildu ginen.

“Esto es una reunión de la Resistencia”, esan zuen Iñaki Zubimendik ziplo. Hamar bat gazte ginen, baina ez naiz zehazki gogoratzen zein ginen. Gaintzarain han zegoen, eta ondoko urteetan Ekin taldearen sortzaile izango ziren beste batzuk ere bai: Larramendi, nire amaren lehengusu propio baten semea, eta Albisu, antiguotarra eta familiako lagun baten semea, eta beste zenbait.

“Resistencia” hitzak oso oihartzun gogorrak zituen guretzat eta entzute hutsarekin hotzikara sartu zitzaigun. Propaganda banatu eta azalpen askoz gehiagorik gabe bukatutzat eman genuen bilera hori. Bilera baino lehenago klub bat han bertan eratzeko asmoa hartu genuen, guatekeak antolatu eta kirolak egiteko elkarte bat. Alde batetik klub hori tapadera izango zitzaigun zerbait gertatzekotan, eta bestetik gazteak ginen eta kirola eta guatekeak antolatzeari interesatzen zitzaigun.

Ping-pong mahai bat erosi genuen, saltimetroa ere eginarazi genion arotz bati eta erreglamentuzko jabalina eta diskoak erosi genituen. Goizero-goizero, C.E.S.era joan aurretik Ondarretako hondartzan entrenamenduak egiten genituen. Taldeko batek, Ramon Galparsorok, gero Burgosko epaiketari abokatu gisa destakatu zuen Gurutze-

ren anaiak, pentatloiko sari bat irabazi berria zuen eta horrek nonbait haize pixka bat eman zigun.

Gure klub horri izena jartzeko eguna ere iritsi zen eta Pelissier txirrindulariarekin gogoratu ginen, orduan oso modan zegoelako. Eta gehiagorik eztabaidatu gabe, “Eup-Pelixier” elkarte sortu genuen.

Hurrengo udan, 1949an, elkarte horretan eman genituen euskarazko klaseak, Iñaki Zumeta tolosarra irakasle genuela. Eta abertzale batek euskal kantak eta dantzak ere jakin behar dituela-eta horretan ere zaildu ginen apur bat. Dantzan erakustera “Kirol” beteranoa etorri ohi zitzaigun.

Zer moduz moldatu zara geroztik dantzan?

Arin-arina eta fandangoa ikasi genituen, eta askoz gehiagorik ez. Oraindik ere badakit pausoak nolakoak diren, baina ez nuke exhibiziorik egingo. Lotuan ere moldatzen nintzen, baina ez naiz sekula dantzaria izan. Inora jotzen ginenean, bazterretik begira egotea ez zitzaidan gustatzen eta egin egiten nuen dantzan, baina ez luzitzeko tamainan, ezta gutxiagorik ere!

Gero seme-alabak bai, denak ibili dira dantza talderen batean. Hendaian bizi izan ginen urteetan bereziki denak talde batean ibili ziren eta Jon-ek baleta estudiatu zuen. Bi urte pasatu zituen dantzari gisa frantses talde batekin, baina utzi egin zuen, nonbait beranduegi hasi zen ofizio horretan.

Sasoi horretan hasi zineten Erne aldizkarian kolaboratzen ere?

Bai. Bilbora joan aurretik hasi ginen gu Gipuzkoako EIAk argitaratzen zuen *Erne* aldizkarian kolaboratzen. EIAk (Euskal Ikasle Alkartasuna) multikopiaz ateratzen

zuen aldizkari horretan argitara eman nituen lehen artikulua. Guk ikasle adiskideen artean banatzen genuen. Gero jakin nuen Bizkaikoek *Ikasle* ematen zutela argitara eta horien artean Jose Maria Benito del Valle izeneko bat zegoela.

Oso zabalpen mugatua zuen aldizkari horrek. Multi-kopia eskasetan botatzen genuen. Nik 58a arte ez nuen manibeladun multikopiarik ezagutu. Rodilloa klitxeari gainera pasatuz ateratzen ziren kopiak. Eta tirada oso txikiak egiten ziren

Bilbora joan zinenerako, beraz, adiskide batzuk ezagutzen zenituen?

1949ko udazkenean iritsi nintzen Bilbora eta apopilo jarri nintzen Indautxuko Particular kaleko 5. zenbakiko gela batean. Etxean “cartilla de racionamiento” eramateko esan zidaten eta ogia estraperloz ezkutuka erostea zer zen ikasi nuen.

Particular kaleko zenbaki horretan gauetan sekulako “mugimendua” sumatzen nuen azentsorean gora eta behera. Azkar jakin nuen seigarren solairuan edo zita-lekua zegoela.

Bilbora iritsi eta berehala jarri nintzen abertzale jendearekin harremanetan. Eta hor ezagutu nituen Ekin-eko sortzaile izango ziren taldekideak, Benito del Valle, esate baterako. Lehen aipatu dut Acción Católicako lehendakari zela. Bistaz lehendik ezagutzen nuen: xake-jokoan Bizkaiko txapeldun izan zen, eta Donostiako Kasinora “simultanea” batzuk jokatzera etorri eta ezagutu nuen. Baina ez dut uste aurrerantzean partida askorik jokatu zuenik, gainera etorri zitzaion “saltsa” ikusita.

Zer garrantzi izan zuen Jose Maria Benito del Vallek Ekin-en bilakabidean?

Benito del Valle ez da inoiz gizon publikoa izan, ez-kutuan lan egitea gustatu izan zaio. Hitz batean esateko, antolatzaile “natoa” da, eta bera izan zen Ekin-en bilakabidea gehien markatu zuena. Beharbada ideologia aldetik nik eragin nabariagoa izan nezakeen; baina antolakuntza aldetik, bera izan zen giltzarria. Ez beharbada sorreran. Beti esan izan dut Ekin-en sorrerako taldearen aitabitxia Iñaki Gaintzarain izan zela. Berak oso markatu gintuela, baina ez zuen erakunde bat sor zitekeenik sinesten. Erakunde bat antolatu orduko Poliziak desegingo zuela pentsatzen zuen, eta Ekin martxan jarri zen momentutik aparatatu egin zen.

Behin isilpeko erakunde bat antolatu behar genuela erabaki genuenetik, hortaz, Benito del Vallek markatu zuen bidea. Bera izan zen faseak erabaki zituena, militante berriak gureganatzeko txarla-sistema asmatu zuena eta noiz zer egin behar zen erabaki zuena. Nik aparatu-gizon definituko nuke, baina beste zenbait alderdi ere bazituen. Enpresa-gizon bezala ere, lan asko egina da. Bizkaian enpresa txiki bat baino gehiago sortu zituen eta horietan lan egin zuten Ekin-en hasierako kide batzuek.

Erori eta Iparraldera joan zelarik ere, errefuxiatuei bizimodua eman ahal izateko “negozio” txikiak sortzen segitu zuen. Horietako batean lan egin nuen nik ere, Hazparnen, “Gotor” izeneko batean.

Nolako giroa zegoen, bestela, Bilboko abertzaleen artean?

San Antongo korala ere abertzale jendearen elkarbide garrantzitsua zen. Han ezagutu nituen Uzkatarrak, Solandarrak, Angulotarrak, Gereñotarrak eta beste hainbat.

Abertzale horiekin batean joaten ginen Bilbo inguruko erromeria batzuetara. Goikolexea horrela ezagutu nuen. Eta baita Artxanda atzekoa ere, Txorierri aldeko mazelan ekainean ospatzen zena. Makina bat kaiku berde eta gorri ikusten zen erromerian. Garai hartan abertzale izena merezi izateko kaikua jantzi behar izaten zen. Hori bai, guztiek erdaraz hitz egiten zuten. Bazeuden euskaldunberriak ere, gutxitxo. Haietako bat zen Xabier Gereño.

Bera zen ekintza horien bultzagile nagusia. Ez zen dantza loturik onartzen. Halakoxe kontraesanak zituzten. Dantza lotuari sekulako amorrua eta gero erdaraz hitz egiten zuten lasai asko... Gereñok ez, bidenabar, gero erdaraz idazteraino lerratu bada ere.

Zer diferentzia zegoen bi hirietako abertzaleen artean?

Hasteko, esan behar da bai Bilbon bai Donostian halako desertu politiko bat zegoela. Ez zegoela giro abertzalerik, eta kito. Hori da egia bakarra.

Nik Donostiako giroa ezagutzen nuen eta 1951 arte nolabaiteko "Erresistentzia" baten arrastoak sumatzen ziren: pintadak, ikurrinak mendi gailurretan, eta tarteka sarekadak. Behin eta berriz sarekadak, hori bai. Baina horrek ez zuen kentzen bestea, alegia, ez zegoela girorik.

Datu bat emango dizut: Bilboko PNVko jendea Elcano kafetegian biltzen zen, Ajuriagerra Hegoaldera sartu eta geroko urte haietan ere. Gerra egindakoek elkarren artean bere koaitak kontatuko zituzten eta ez bide zuten besterik egiten: kafea hartu eta hitz egin. Denek zekiten EBBkoak hara biltzen zirela.

Lehen aipatu dut nola Agote tabernan biltzen ziren Donostiako abertzaleak, PNV ingurukoak gehienak. Kon-

tatu dut baita ere nola Jon Etxaide hor ezagutu nuen eta kartzelatik pasatutako beste hainbat borrokalari beterano ere. Horietako bat zen Tolare ere. Pixka bat berotuta agertzen zenean, atletik barrura begiratu, eta “¡Antes hijoputa que español!” esan ohi zuen ozenki eta taberna osoak aditzeko moduan. Hori entzunda, beldurtienak ihesi joaten ziren eta Tolare lasai sartzen zen barrura. Hark kartzela ondoegi ezagutzen bazuen ere.

Urte batzuk beranduago, guk Ekin martxan jarri eta EGIrekin egin genuen kidetasunaz mintzatzeko EBB Iruñean bildu zenean, pare bat orduko bilera egin zuten, “Marceliano” jatetxean. Bazkaldu eta futbolera joan ziren denak, Osasunak ez dakit zeinen kontra jokatzeko zuelako. Horra bilera!

Ekintzak eta aipatzeko moduko gertakariak oso bakanak ziren. Martutenen ezagutu nuen Azkarraga, esate baterako, ni baino 10 urte zaharragoa. Kontatu zidatenez, beste lagun batzuekin batean Donostiako portuan “txakur” bat ezagutu, eta uretara botatzea erabaki zuen.

Beste batean, berriz, “txakur” bat inguru horietan atzeman, indarrean harrapatu eta kaian ziren komun batzuetara eraman omen zuten, burua komuneko zuloan sartu, eta bonbari tira eginez, “sekreta” hori itotzeko zorian uzteko.

Gauza bitxia zen. Alde batetik, horrelako ekintzek ETArekin psikologia gogorazten dute. Baina orduko dinamikan ekintza horiek oso bakanak ziren; eta “gazte” extra-ofizialen kontua.

Pixka bat mugitzen zirenak Euzko Gaztedi-koak ziren, gazte jendea alegia. Ni 1957ko uztailean ezkondu nintzen, Ekin-ekook EGIrekin harremanetan bete-betean ginenean; eta ehun bat lagun bildu ginen afaltzekotan

Parte Zaharrear. Norbaitek bromatan, “barruan” egonda-ko guztiek besoa altxatzeko proposatu zuen. Dozena erdi batek izan ezik, beste guztiok altxatu genuen. Baina, horixe, ehun bat abertzale izango ginen Donostian zertxobait mugitzen ginenak.

Handik urtebetera, erabat gaiztotu ziren harreman anaikor horiek. 1958 inguruan PNVko buruetako batek “Paseo Berriko haitzetara” botako nindutela mehatxatu ninduen. Nik jaso ditudan lehen mehatxuak PNVkoen ahotik jaso ditut. Hauxe ere egia da. Eta ez Paseo Berriko horregatik bakarrik...

Ajuriagerrak, bestalde, honako esaldi hau bota zien Bizkaiko Ekin-ekoei: “A Ekin hay que aplastarla, y luego absorberla, admitiendo uno a uno a los elementos que el Partido estime convenientes”. Eta alderantzizko adibide bat emateko, gutako batek, (Julen izan zela uste dut) honako esaldi hau bota zuen bilera batean: “La liberación de Euskadi pasa por la destrucción del PNV”. PNVren estrategiarekin, gure ustez, Euskal Herria hondamendira zihoan. Ez genuen guk kanpoko indarrean eta Estatukoe-tan batere sinesten. Guk euskal estrategia eraiki nahi genuen, euskal indarrean oinarrituta, urteak eta urteak “etorkizun hobea” baten zain egon gabe.

Bilbora joan eta urtebete barru ezagutu zenuen lehenbiziko aldiz kartzela.

Bilbon egin nuen lehen ikasturte horretan ezagutu nuen Josu Arenaza, Valladoliden mediku ikasten ari zen gaztea. Handik egun batzuetara adiskide batzuekin Donostiara etorriko zela esan zidan. Arenaza EIAkoa zela sumatu nuen, baina segurtasun neurri guztien kontra neurre tarjeta bat eman nion. Trenean zetorren bilbotar talde

hura Amarara iristean, poliziak atxilotu egin zuen eta Arenazari nire tarjeta aurkitu ziotelarik, etxera etorri ziren poliziak goizaldeko 3etan. Aitak “mandato judicial”a eskatu zien; eta ez zekartenez gero, gau osoan ez zien atea ireki. Goizean bai, eta esposaturik deklaratzera eraman ninduten.

—Badakigu “jaji-jaji”koa zarela —esan zidaten.

Azkar konprenitu nuen Jagi-Jagiz ari zirela.

Ezetz erantzun nien behin eta berriz. Ez ninduten ukitu ere egin eta, interrogatorioak bukatzean, Martutenera eraman ninduten.

Josu Arenaza Retolazaren adiskide mina zen, eta Retolaza berriz beti izan zen Ajuriagerraren konfiantzazko gizona. Gerora izugarri jarrera eskuindarrak agertu zituen, baina beti pentsatu dut Arenaza abertzale fina zela; jokabide konkretuetan beti batera joan ez baginen ere.

Kontua da ni 1950eko uztailaren 4an eraman nindutela Martutenera, eta han beste hainbat ezezagunekin egin nuela topo. Hilabete egin nuen “hotelean”, eta oraindik burua “al cero” moztua nuela joan nintzen Injineru Eskolak lehen ikasturteari ekitera.

Noiz eta nola erabaki zenuten Ekin sortzea?

Erorketa horren ondorioz, beldurtu ere egin ginen taldeko batzuk. Iñaki Gaintzarain, esate baterako, 1947 eta 1949an barruan egon ondoren, oso ezkor eta herabe atera zen kartzelatik; eta organizatzea kalterako izango ote zen ere zabaldu zuen gure artean. Poliziak azkenean dena jakiten zuen inpresioa gureganatu genuen. Eta pare bat urtez, irakurri eta ikasi egin genuen gehienik: existentzialis-moa, euskal foruak, euskal historia eta, ahal genuen neurrian, liburu abertzale zaharrak ikertzeari ekin genion.

Anacleto Ortueta orduan ezagutu genuen. Bere etxera joan gintzaizkion. Gu baino berrogei bat urte gehiago bazituzkeen eta izugarri poztu zen gu bezalako gazteak euskal kondairaz hain interesatuta ikustean; eta bere bi kondaira-liburu erregalatu zizkigun: *Navarra y la unidad política vasca* bata, eta *Vasconia y el Imperio de Toledo* bestea. Lerroz lerro irakurri genituen. Historialari haren lanok gure biblia bihurtu ziren. Nolabait gure kondaira ikuspegi nazional batetik aztertzen zuela ohartu ginen, nahiz eta gu foruen ikertzaile eskasak izan. Oso zaila zen batere jakitun ez den batek liburu horiek ongi ulertzea. Hala ere, liburu horietatik atera genituen gero militanteak gureganatzeko eratu ziren ikastaroak.

Klaserik ez nuen egunetan Bilboko Diputazioko liburutegian sartu eta orduak egiten nituen notak hartzen.

Arturo Campion ere irakurri nuen. Arturo Campionek garaiko abertzaleen historiagile ofiziala zirudien eta baita Bernardino de Estella ere. Anacleto Ortueta, berriz, ez. Gerran nonbait ez zuen parte hartu. Nafarra omen zen, izatez; eta gure ustez abertzalea. Hori bai, ez zen batere ortodoxoa.

Ortueta eta Campionekin batean Carmelo Echegaray, Hermilio Oloriz eta Juan Iturralde ere irakurri genituen. Liburu batzuk bederen.

Garai horretako gogoetatik bi ideia nagusi atera genituen: segurtasun-neurri estuak hartu ezean, ezer ez egitea hobe zela eta bihotzarekin jokatzeari utzi eta helburuak eta bideak ondo erabakita jokatu behar genuela.

1951ko udaberrian hil zen Luis Arana Goiri; eta hiletara ez joatea erabaki genuen eztabaida luzeen buruan; dagoeneko fitxatuta geundela eta gehiago ez erretzearen... Bitxi bazaigu ere!

Isilka-isilka abertzaletzat jotzen genituen gazte askorekin jarri ginen harremanetan 1952an zehar, eta Ekin-en sorreran nolabait guztiek hartu zutela parte esan daiteke. Sorreran partaidetza zuzena izan zutenak, hala ere, gutxi batzuk izan ginen.

Honako hauetaz gogoratzen naiz: Benito del Valle, Madariaga, Agirre, Barandiaran, Gaintzarain, Irigoien, Ansola, Larrea, Albisu, Larramendi eta ni neu.

Zein data aipa dezakezu Ekin-en sorrera moduan?

1952-53ko ikasturtean hasi bezain pronto, segurtasun premien eta beldurraren gainetik erakunde ezkutu eta politiko bat (ez kulturala soilik) eraiki behar genuela erabaki genuen, nahiz eta Gaintzarain, esan bezala, aurka egon. Bera zen, funtsean, taldearen benetako aita, baina gauzak nola zihoazen ikusita, kanpotik laguntzea erabaki zuen.

Segurtasun arrazoiengatik Benito del Valleren etxean elkartu ginen sorrera-bilera “super-ezkutu” bat antolatze-ko. Gutako batek gerra denboran Euzko Gudarosteak argitara ematen zuen *Gudari* bat ekarri zuen bilerara, hain zuzen ere azal osoan, atzean eta aurrean, ikurrina koloretan zekarren zenbakia; eta egongelan zegoen mahai txapal baten gainean jarri zuen. Zutik jarri ginen bostok: Benito del Valle, Agirre, Madariaga, Irigoien eta ni neu eta zin egin genuen, zer gerta ere, ez geniola organizazioaren berririk inori emango. Eta Agirrek 1936an Gernikan bezala, “Zin dagit” esan genuen. Garai hartan askotan berriztu ziren zin horiek. Ez zuten inolako segurtasun garantiarik ematen, baina psikologikoki zerbait berria inauguratu zen, eta konpromezu berri bat hartua zenuen kontzientzia jasotzen zenuen.

Erakundea, beraz, 1952ko udazkenean sortu zela esan daiteke. Zin hori egin genuen, eta geure buruak gerra egin

zuten gudarien oinordekotzat ikusi genituen; oraindik ize-
nik ez zuen erakunde berria Euzko Gudarostearen jarrai-
pena bailitzan.

*Esplika iezaguzu nola indartu eta zabaldu zen era-
kundera.*

Bizkaian eta Gipuzkoan eskualdez eskualde eta herriz
herri talde irekiak antolatu genituen. Urte pare batean
50en bat talde. Hogeita bost asteko egutegi bat egiten ge-
nuen, eta astero gai bati buruzko hitzalditxo bat ematen
genuen. Ikastaldia bukatzean, isiltasunezko zina eskatzen
zitzaaien parte hartzen zutenei; eta erakundean sartzeko
prest agertzen zirenekin ikastaldi “itxia” hasten genuen.

Benetan antolatu gabeko gazte asko ezagutu genuen.
Batzuetan Euzko Gaztedikoak ziren, baina beste asko eta
asko, ezeren berririk ez zuen jende jatorra zen. Zerbait ez-
kutua bazegoela jakitean poztu egiten ziren gehienak. Or-
duan erosi nion Miguel Castellsi bere Isetta, batetik beste-
ra ibiltzeko. Aurretik irekitzen ziren auto txikiak ziren
Isetta haiek eta Castellsi erostea txiripa hutsa izan zen, sa-
soi hartan Miguel ez baitzen abertzalea eta ez baikenuen
harekin inolako harremanik. Adin berekoak gara, eta el-
kar ezagutzen genuen, baina besterik ez.

Zer jarrera zenuten PNVrekin?

Gure taldea ez zen jaio PNVren “ezkerreko” adar gi-
sa. Gu zatiketa politiko horien kontra geunden. Batasun
nazionala nahi genuen ideologia politikoen gaineratik. Zati-
keta politikoak herri askatuen luxua zirela uste genuen.
Baina, aldi berean, PNVk kudeatzen zuen Erresistentzian
dinamizarik ikusten ez genuelako jaio ginen.

Ez da egia gerora behin eta berriz errepikatu den le-
loa. Alegia, “Resistencia” delakoan inoiz dinamizarik

izan ez zenik. Neure oroitzapenen arabera, 1951 arte, edo beharbada 1953 arte, PNVk bultzatzen zuen Erresistentzia horretan bazegoen dinamikarik: propaganda, ikurriak mendi-gailur eta kanpandorreetan, Iparraldetik emititzen zuen Euskadi Irratia, irrati-mozteak... eta, horrekin batera, jende-erorketak etengabe. Hori bazegoen.

Baina 1951n Parisen Avenue Marceau ederrean Euskal Ordezkaritzak okupatzen zuen etxe dotorea, frantses Gobernuak Francori eman zion, bertan bere enbaxada jar zezan.

Egoera-aldaketa izugarri horrek estrategiarik gabe utzi zuen PNV. Oraindainokoan oso estrategia garbia zuen PNVk: itxaron dezagun mendebaldeko gobernuek Franco bota arte. Baina mendebaldeko gobernuek Francori amore ematea erabaki zuten.

Francok konkordatua lortu zuen 1953an Vatikanoarekin, eta Tratu Militarrek urte berean amerikarrekin. Ordurarteko zain egotetik, jai. Oso mingarria zen, lotsagarria, nahi duzuen; baina itxarotetik ez zetorren ezer onik.

Eta guk, Ekin-ekook, gazteak ginelako beharbada, ezin genuen onartu besoak antxumatuta egoterik. PNVk edo Baionako Itunak (garai hartako Ajuria-eneak) gidatzen zuen politikak ez ginderamatzala inora, eta hasi ginen beste estrategia bat eraikitzen.

Zenbaterainokoa izan zen urte horietan PNVren krisialdia?

Aliatuen saldukeriaren ondorioz, PNV erabat iparra galduta geratu zen; eta batzuek bederen ez genuen gauza ikusten irtenbideren bat aurkitzeko. Guk, egia esan, hiltzera zihoala pentsatzen genuen, eta ez zen oso urruti ibili, 1951ko grebaren ondoren sekulako sarekadak jasan baitzituen, azpiegitura erabat ahulduta utziz.

Krisialdi horren unerik larriena 53-54an jasan zuen, eta irtenbideren bat aurkitzeko egin zuen Agirrek Parisko Batzarrerako deialdia.

Teorian Eusko Jaurlaritza sortu ondoko 20. urtemuga ospatzen zuen batzarrak, baina bileraren helburua krisialditik irtetea zen. Baina ez zen inolako irtenbiderik aurkitu, geldizaleak nagusitu baitziren batzar hartan. Oso ahots “diskordante” gutxi entzun zen han. Gure txosten pare bat; eta Krutwigek irakurri zuena, gerrilla-gerra proposatuz.

Ordurako nahikoa elaboratuak zituen nonbait Krutwigek gero *Vasconia*-n agertuko zituen teoriak. Edozein modutara ere, erabat eroturik zegoela pentsatu omen zuen jendeak.

Batzarra 1956an egin zen, baina krisialdia lehendik zetorren. 1954ko Agirrereren Gabon Mezuan garbi asko soma zitekeen krisialdi hori, eta barruko jendearekin loturak sendotzeko borondatea erakusten zuen. Bide horretatik gauzak aldatzeko abagunerik ere izan zuen. Monzon horretan saiatu zen, baina alferrik.

Prietok, adibidez, ikusi zuen ataka gaizto hori eta Gobernu Errepublikanotik erretiratu egin zen.

Krisialdi hori esplikatzeko testuingurua ikusi beharko genuke.

Komentziturik geunden denok Franco ere Hitler eta Mussoliniren ondoren eroriko zela. Hori zen PNVren ustea, eta uste hori ez dago gaitzesterik. Arazoa 1951n sortu zen, eta 1953an areagotu. Eta 1951ko greba orokorraren ondoren, esan bezala, sarekada izugarriak gertatu ziren, eta “Resistencia” delakoa oso kolokan utzi zuten.

Egoera horretan bilatu behar da Ekin-en sorreraren arrazoia.

Zein izan da, zure ustez, Parisko Batzarraren ondoren PNVren estrategia?

Batzar horretatik aurrera PNVren erregionalismoa azkartu egin zen, eta urteen buruan espainolismo huts-hutsera heldu zen. Une horretan PNVko buruzagiek dimisioa aurkeztu izan balute, gazteriarekin loturak egitea posible zuen, baina galdu egin zuen abagune hori.

Zu zeu izan al zinen Parisko Euskal Batzarrean?

1956ko uda bukaeran egin zen batzar hori eta ni soldaduska egiten ari nintzen El Ferrolen; eta ez nuen joaterik izan. Baina Ekin-ekoek bi ordezkari bidaltzea erabaki zuten: Benito del Valle eta Jose Manu Agirre. Hauek kontaktatu zigutenez, oso sorpresa txarrak jaso zituzten Parisen.

Oso garbi ikusi omen zuten PNVren zuzendaritza ofizialaren atzetik beste zuzendaritza bat zegoela, Quentin Bouchard kaleko “Oficina de Servicios” izenekoa, Pepe Mitxelenenaren agindupean.

Gure txostenak ez zuen inolako oihartzunik lortu. Ate guztiak itxita zeuden.

El Ferrolen zinela aipatu duzu urte horretan soldaduska egiten. Nola idatzi zenuen Leturiaren egunkari ezkutua soldaduskan?

Alferez sei hilabete egin nituen soldaduskan urte horretan, eta denbora librea ugari nuen. Astebete egiten genuen Cabo Priorren zegoen itsas bateria zaintzen, bakar-bakarrik, kolpe zorrik jo gabe, eta bi aste ondoren, El Ferrolgo kuartelean. El Ferrolen goizero kuartelera joan behar izaten genuen pare bat orduz soldaduei instrukzioa ematera. Eta arratsaldeak libre izanik ere, ez genituen

aprobetxatzen. El Ferrolgo Casino-ra joan eta han egoten ginen, bertako neskekin hitz egiten edo, denborapasa.

Cabo Priorren, ordea, ez zegoen kasinorik; eta han idatzi nuen nire lehen nobelatxo hori.

Joan aurretik ere banuen asmoa. Gogoratzen naiz Mitxelenarengana jo nuela nire asmoak erakutsiz. Hamsum norvegiar Nobel sariaren lanen bat itzultzeko asmoa nuen. *Pan* izeneko nobela gustatzen zitzaidan bereziki, edo *Gosea* izenekoa.

Mitxelenak, ordea, hobeto nuela zerbait berria asma-tzea esan zidan, neuk nobela bat egitea, alegia; eta zalan-tzaz beterik atera nintzen elkarrizketa hartatik, baina aproba egiteko gogoarekin.

Horrela hasi nintzen idazten. Sei hilabete horietatik zortzi aste pasatuko nituen nik itsasertzeko bateria hori zaintzen. *Leturia*, beraz, zortzi astean idatzitako nobela da.

Soldaduska egin eta hurrengo urtean ezkondu zinen.

1957ko uztailaren 8an ezkondu nintzen. Fetxarekin gogoratzen banaiz, emazteak urteak bezperan betetzen di-tuelako da. Aieteko elizan ezkondu ginen. Nik 27 urte ni-tuen eta Jonek 24. Eta Amaran zegoen "Trinquete" izene-ko jatetxean egin zen bazkaria.

Garai hartan ohitura zen ezkondu, eta Parisera bidaia egiteko. Guk denbora gehiago pasatu genuen Iparraldean, baina iritsi ginen Parisera ere.

Iparraldean Zuberoa aldera jo genuen. Zuberoa mo-dan egon da gero, baina orduan ere ezagutzen genuen. Etxahun bigarrenaren kantuak batez ere ikasiak genituen eta zuen egitura ekonomiko arkaikoagatik edo, inoiz Eus-kal Herria horrelakoa izan ote zen pentsatzera eramaten gintuen.

Amarako Trinqueten egindako bazkari horretan familiakoak eta adiskideren batzuk izan ziren. Baina aldez aurretik egina nuen afaria lagunekin. Ehun bat lagun bildu ginen, despedidarako; eta gogoratzen naiz, lehen esan dizudan bezala, norbaitek bromatan esan zuela kartzelatik pasatako guztiek besoa altxatzeko, eta dozena erdi batek izan ezik beste guztiok altxatu genuela eskua.

Ehun lagun horietatik asko Euzko Gaztedikoak ziren, noski, urte horretan halako batasun moduko bat lortu bainenuan EG eta Ekin-en artean.

Zer dela eta egin zen EG eta Ekin-en arteko batasun hori?

Gu herrietara zabaltzen ari ginen eta joaten ginen leku guztietan EGko gazteekin egiten genuen topo. EGk proposatu zigun bi erakundeekin bakar bat egitea. Guk operazio horri abantailak ikusi genizkion eta “EG-Conjunto” deitu zitzaiona sortu zen. Sigla horien pean bi erakunde bereix egon ziren. Gu askoz ere prestatuago geunden, eta EGko militanteak geureganatzen hasi ginen. Hor sortu ziren istiluak.

Gogoratzen naiz behin batean ni Zarauzko Antonianoetan ikastaro horietako bat ematen ari nintzela, PNVko militante ortodoxo bat sartu zela, eta han zeuden kursillisten kontra hasi zen.

—Zer ari haiz hi hemen, faltsu hori? —hasi zitzaidan niri ere—. Hi Zerbitzuetako mutila haiz eta Alderdia izorratzera etorri haiz hona!

Orduan alkandoratik heldu, eta sekulakoak emateko zorian jarri zen.

Kontuan izan behar da garai horretan bi buruzagitza zeudela PNVn. Bata, buruzagitza ofiziala, Ajuriagerra bu-

ru. Eta “Oficina de Servicios” izenaz ezagutzen zena, bigarrena, guk “Grupo A” deitzen geniona. Talde honek, amerikarren eraginagatik-edo, komunisten infiltrazioak ikusten zituen bazter guztietan; eta EGrekin egin genuen operazio horretan gure infiltrazio-saio bat ikusten zuen. Kontua da “Grupo A” delako horrek bere infiltratuak jarri zituela gure taldean, eta beste buruzagitzak ere gure kontra jokatzea erabaki zuela. Ajuriagerrak bide gogorrenetik jotzea erabaki zuen, gure izenak ezagutzera emanaz, eta gurekin ez kolaboratzeko eskatuz. Egoera larriagotuz joan zen. Bizkaitik ere gisa bereko berriak iristen ziren. Egoera oso txarra zen, tentsio izugarria genuen, eta Madariagak eta nik bereziki hautsi eta beste zerbait, izen bat zuen erakunde bat sortu behar genuela esaten genuen. Benito del Vallek, berriz, indefinizio horretan segitzea hobe genuela erantzuten zigun. Azkenik, 1958ko bukaeran, seguruak ez ziren pertsona guztiekin hautsi eta erakunde berri bat hasieratik eraikitzen hastea erabakia genuen. Horrela sortu zen Euskadi Ta Askatasuna.

Zein izan zineten ETAREN sortzaile?

ETAren sorreran bi komite aurki daitezke nagusiki. Lehenik Bilboko taldea jaio zen 1958an; eta Donostiako taldea hurrengo urtean, 1959an, Albisu, Larramendi eta abar, talde horretan agertuz. Esan daiteke, beraz, Ekin-ekook osatzen genuela batik bat hasierako ETA, eta talde irekietan ezagututako gazte zenbaitek. Urrats horren berri jakitean, gehienek gurekin etortzea erabaki zuten: zortzi “barrutietatik” sei Gipuzkoan, bederatzitatik sei Bizkaian, eta baita Nafarroan eta Araban zegoen apurra ere.

Datari buruz zalantzak daude: Benito del Valleren etxean egin genuen zita 1958koa da. Hala ere, erakunde berri bat sortu genuela aditzera emanez, Jaurlaritzara idatzi genuen gutunak 1959ko uztailaren 31ko data zeraman. Gutun hori nik idatzi nuen ETAko zuzendaritzaren izenean, eta Donostiatik bidali nuen.

Beti kontatu ohi da erakunde berriaren izena zuk asmatu zenuela.

Euskara kontuetan sarturik nembilelako-edo niri gomendatzen zizkidaten gisako lanak. Proposatzekotan bi izen eraman nituen bilera horretara: Aberri ta Askatasuna

(ATA) eta Euskadi Ta Askatasuna (ETA). Lehenbiziko ATA horrek bizkaierazko ahatea gogoratzen zuela eta, alde batera utziz, bigarrena hobetsi genuen.

Bilera horretan bota zuen Madariagak esaldi profetiko hura: “Esta sigla será pronto mucho más famosa que la sigla EOKA”. Greziara Txipre uhartea ekartzeko Grivas koronelak gidatzen zuen mugimendu armatuaz ari zen. Julenek bazuen esaldi biribilak egiteko joera. Esana dut jadanik, beste batean nola bota zuen beste esaldi hura: “La liberación de Euskadi pasa por la destrucción del PNV”.

EOKAri buruzkoa bota zuenean, esaldi biribil bat besterik ez zela pentsatu genuen guztiok, baina ez dut dudarik egiten Greziako erakundeak baino sona handiagoa lortu duela ETAk.

Baina xehetasunak nik kontatzea ez zait bidezko iruditzen. ETA hor dago.

Dagoeneko erabakita al zenuten borroka armatua erabiltzea ere?

Oraindik ETAk bere programa, estrategia eta taktikak erabaki gabe zituen eta horiek demokratikoki erabakitzeko Bilera Nagusi bat eratu behar zela ikusi genuen. Artean ez genuen “asanblada” hitza erabiltzen.

Urtebete lehenagotik genbiltzan biolentziari buruzko eztabaida horretan murgildurik. Esan dugun bezala, Ekin-eko sortzaileen artean gehienak katoliko gogorrak izanik, uzkur agertzen ziren puntu horretan. Bortxarik gabeko borrokaren aldekoek, Gandi aipatzen zuten: gose-oporrak, gizarte desobedientzia eta horrelakoak. Baina, aldi berean, aitortzen zuten Franco ez zela britainiar sistema.

Gehien-gehienak pixkanaka-pixkanaka borroka gogorraren alde paratu ziren. Kondaira hurbilean adibide asko

aurkitzen genituen horretara bultzatzen gintuztenak: Tunisia bera, Irlanda, Polonia eta abar.

Noiz eta nola hasi ziren ETAREN lehen ekintzak?

Lehenik eta behin esan behar da ETAK ez zuela lehen zortzi-hamar urtetan biktimarik eragin. Lehen ekintza gogorra trenaren deskarrilamendua izan zen Donostian, eta ekintza horren helburua ez zen “ex-combatienteak” garbitzea, alarma pitin bat sortzea baizik.

“25 Años de Paz” delakoa ospatzeko Gipuzkoa guztiko konbatiente-ohien ekitaldi bat antolatu zuten Donostian; eta Urola aldetik zetorren trenaren kontrako ekintza bat prestatu zuen ETAK. Itxura guztien arabera, tunel barruan tornilloak askatu, eta errail bat koloka utzi zuten. Helburua, beraz, susto bat ematea gehiago zela dirudi, inor garbitzea baino. Goizean goiz makinaren bat Oriorantz abiatu eta desakarrilatu egin zen; eta orduan ohartu ziren atentatua izan zitekeela. Hori izan zen ETAREN lehen ekintza “gogorra”.

Hasieran erakundeak bost adar zituen: Talde Adarra (ikastaroak antolatzen zituena), Idazketa Adarra (“Ekin” hilabetekaria eta hitzaldiak prestatzen zituena), Gaztigitza Adarra (edo gaur Informazio Adarra) deituko genukeena, Agiriko Adarra (erdaraz “organización paralela” edo legetasunaren ertzean ari zena: euskal kultura, ikastolak, kirol taldeak); eta Zabalketa Adarra (“Zutik” argitaratzen, eta zabaltzen zuena).

Seigarren adarra, beraz, gero beste bostak irentsi eta gaingidutiko zituena, “Ekintza Adarra” izan zen, 1958an sortua. Adar honek hasierako urte haietan, eta Manzanasen kontrako atentatua egin zen arte, aipaturiko sabotaiak hori eta pintadak egin eta ikurrinak jarri zituen, baina biktimarik ez zuen eragin.

Ekintza Adarra sortu zenetik, bestalde, eta segurtasun arrazoiengatik, ETA bi erakunde desberdinetan erdibiditu zen: lehen bost adarrek ETA “politikoa” osatzen zuten, eta bere dinamika propioa zuten; eta Ekintza Adarra zeritzona erabat at mugitzen zen, buzoi bidezko sistema baten bidez gainerako bost adarrekin koordinatuta.

Ni, esate baterako, “politikoa” geratu nintzen; eta Ekintza Adarraz ezer gutxi nekiela esaten badut, egia besterik ez diot.

1960ko abuztuan “erori” egin nintzen. Etxe ondoko Guardia Zibilaren komandantziara eramane ninduten oraingoan, nire aitona bere bulegoa izan zuen gela berean in-terrogatu ninduten hiru gau eta hiru egunez. ETAKoa nintzela esaten zidaten, eta PNVrekin akordioaren bat lortzearen izan nintzela Parisen. Biak egiak ziren. Ez ninduten ukitu ere egin. Eta ezer aitortu gabe Martutenera eramane ninduten, bigarren aldiz. Hara iritsi eta Euzko Gaztediko jende pilo topatu nuen. Emilio Agote han zegoen, eta Gereka eta Alberdi zarauztarrak ere bai. Berrogei bat laguneko sarekada izan zen.

Ezagutu al zenuen tortura kasurik?

Nik uste dut bi fase guztiz ezberdin bereiz daitezkeela torturari, eta oro har errepresioari, gagozkiolarik. Lehen fasea gerra ondokoa da. Lehen ere aipatu dut nola lehen aldiz Martutenen egon nintzenez bertako maisuak kontatzen zigun Ondarretako afusilamenduen berri. Gizon horrek zioenez, 47 arte luzatu ziren afusilamenduak Ondarretako kartzelan, eta Madrilen 51 arte omen. Datu horiek frogatu egin beharko lirake, baina nahikoa eguneroko gauza omen ziren “sakak” eta fusilamenduak, eta guk geuk ere urte haietan beldurra eta ikara sumatzen genituen zurrumurru horien aurrean.

1953tik aurrera, ordea, gauzak aldatu egin ziren. EEBBek hitzarmen militarra sinatu zuten Francorekin, eta Eisenhower lehendakaria bera etorri zen Madrilera. Francoren kontrako oposizioa estrategiarik gabe geratu zen; eta Prietok, esate baterako, Atzerriko Gobernutik erretiratzearabaki zuen. Franco seguru sentitzen zen eta halako barealdi bat sumatu zen errepresioaren aldetik. Gu barealdi horri esker hasi ginen mugitzen, eta Ekin lehenik, eta ETA ondoren, barealdi horretan jaio ziren. Poliziak ere ez zien talde txiki hauei izugarritzko garrantzirik eman, ez behintzat zegokien garrantzirik, eta 61 arte edo ez ziren ohartu talde hauek zekarten arriskuaz. Orduan indarberritu zen errepresioa berriro.

Baina *interim* horretan Poliziaren eskuetatik pasatu ginen askok, ez genuen basakeriarik sufritu, oro har. Dena den, beti daude salbuespenak. Madariagari, adibidez, sekulakoak egin zizkieten 1961ean atxilotu zutenean. Ni bigarren aldiz erori eta Martutenen nengoela, esate baterako, Juan Jose Etxabe eta Jon Ozaeta atxilotu zituzten eta mingaina erdibituta iritsi zen lehena kartzelara, makina bat basakeria jasanda. Nitaz galdetzen omen zioten, eta Etxabek ez zuen ahorik ireki.

Poliziak guri buruz dezente zekiela ohartu ginen eta erakundeak nik ihes egitea zela onena erabaki zuen.

1961eko urtarrilaren 1ean pasatu nuen muga Dantxarinetik.

Urte berri, bizi berri?

Piarres Xarritonek eman zidan babeslekua Hazparneko Saint Joseph ikastetxean. Xarriton nik lehendik ezagutzen nuen, biok euskararen munduan mugitzen ginelako. Gogoratu Xarritonek *Euskal Herriaren Kondaira* bat argitara emana zuela. Kristau gazteriarren bi aldizkari ere

zuzentzen zituen: *Gazte* eta *Etxea* izenekoak. Bestalde, nire lehengusina bat, Asun Enparantza, Hazparneko batekin ezkondu zen; eta gure familiarekin harremanak zituena. Ez da harritzeko, beraz, nik muga pasatu nuenean hura nire bila etorri izana. Bestalde, berak zuzentzen zuen ikastetxe horretan Hegoaldeko iheslari gehiagok ere aurkitu zuten babeslekua. Ondoko urteetan Ikastetxeak gelak zituen goian, eta han bizi izan nintzen denboraldi batez.

Lana bilatzen ere lagundu zidan eta Miarritzeko injineru militar baten bulegoan hasi nintzen lanean. Baina ez nintzen leku hartara egokitu, eta Parisko lan-eskaintza bati erantzutea erabaki nuen. Froga gaititu, eta onartu egin ninduten. Montparnasseko Pelnard-Considère delako horretara otsailean iritsi nintzen, eta Dufour kalean aurkitu nuen gela bat, alogeran, Saint-Germain-des-Prés auzoan. Bulegoan mila nazionalitatetako jendea ari zen lanean: vietnamdarrak, serbiarrak, eta beste hainbat. Bakoitzak bere hizkuntzan hitz egiten zuen, eta frantsesez egiten genuen geure artean.

Zer eragin pertsonal izan zuen Parisek zuzan?

Nik Paris lehendik ezagutzen nuen. Injineru karrera bukatu aurreko urtean enpresa batean praktikak egiteko ohitura zegoen garai hartan, eta nik 55ean ezagutu nuen Paris. Estatu frantsesean praktikak egiteko eskabidea egin nuen, eta Maubeuge izeneko herrira bidali ninduten, bertako fabrika batean lan egiteko. Fabrika hori ez nuen ikusi ere egin. Ez dakit zer aitzakia asmatu nuen ez joateko. Parisen geratu nintzen bizitzen, ikasleentzako “résidence” horietako batean, hiriburuaren erdi-erdian eta praktikak egin banitu bezala itzuli nintzen etxera.

Horregatik, 61ean berriro itzuli nintzelarik, ez zitzaidan hain berri iruditu.

Bost hilabete egin nituen Saint-Germain-des-Prés auzoan bakarrik biziz. Emaztea eta hiru seme-alabak Donostian ziren oraindik, eta gauez asko ateratzen nintzen. Orduan ezagutu nituen La Rhumerie Martiniquaise taberna, La Pergola, eta Sartrek maiz bisitatzeko zituen Flore eta Aux Deux Magots kafetegiak. Gero jakin nuen dagoeneko hainbeste miresten nuen Sartre ere han bertan, oso hurbil bizi zela. Dena den, inoiz ez zitzaidan burutik pasatu ere egin bisitatzera joaterik. Beste batzuk joaten ziren, baina nik ez dut gauza horietarako “aurpegirik” izan.

Hilabete haietan ezagutu nituen, halaber, Parisko bi euskal delegazioak, jadanik isilka etorrita bisitatua nuen Singer kalekoa, eta ezagutzen ez nuen Duban kaleko Euskal Etchea, “frantses euskaldunena”.

Zer jende ezagutu zenuen horietan?

Ordurako errefuxiatu batzuk bazeuden ni baino lehen-txeago iritsiak. Arrarte bi anaiak, esate baterako, edo “felipe” batzuk: Jabier Leunda horien artean. Gerra garaiko anarkista mordo bat ere ezagutu nuen, oso jende ikasia eta otzana; eta ikasleren bat edo beste.

Horien artetik Iñaki Larrañagaz gogoratzen naiz, oso pasadizo bitxia suertatu zitzaidalako berarekin bizitzea. Gau batez afaltzen ari ginen Larrañaga, Donostiatik bisita egitera joandako Karlos Santamaria, eta ni neu Quartier Latin inguruko etxe batean, Debré frantses gobernu-buruaren deia irratiz entzun genuenean:

—Herritarrok! Zoazte aireportuetara! Kolpistak Parisera iristea galarazi behar dugu!

Arranopola! esan genuen. Afaria bertan behera utzi, eta Grand Palais ingurura abiatu ginen. Han armak banatzen ari ziren. Izena eman besterik ez zegoen. Asanblada Nazionalaren aurrean tankeak zeuden. Nonbait Salan jeneral erdi-faxistak, Arjelen kolpea jo zuen; eta beldur ziren Parisa etorriko ote zen. Eta ni han, errefuxiatu “anti-faxista” bat, paperik gabe...

Noiz etorri zitzaizkizun emaztea eta seme-alabak Parisa?

1961eko udaberrian, prentsa bidez, etxe bat aurkitu nuen Antony herriskan; eta emazteari eman nion abisua. Hara bizitzera joan ginen geure hiru seme-alabekin. Handik urtebetera jaio zen Mikel, gure haur paristar bakarra.

Bi zaharrenek, Joseba eta Jon bizkiek, bi urte pasatxo zuten Parisera joan zirenean; eta Maddik, urtebete. Handik urtebetera jaio zen Mikel, eta Saint-Germain-des-Prés auzoko elizan bataiatu genuen. Euskal apaiz bat bilatu genuen horretarako, eta bertako sakristau ofiziala zuberotarra zenez, zeremonia guztia euskaraz egin genuen. Parisen erdian!

Haurrak txikiak zirenez, ez genuen eskolarekin arazorik izan. Jonek eta biok beti izan dugu garbi haur horiek euskal sustraiak behar zituztela eta ahal bezain azkar Euskal Herrira bidali genituen. Bihotzean minez!

Belgikan geundenean, bi zaharrenak Donostiara bidaltzen genituen hemengo hurrekin batean ikasturteak segi zitzaten. Santo Tomas lizeoan ikasiak dira bi zaharrenek. Bi txikienak geurekin atxeki genituen, ez baitzegoen denak aitona-amonengana Donostiara bidaltzerik. Alde horretatik uste dut, guri urte asko kanpoan bizitzea tokatu

bazaigu ere, haurrek Euskal Herriarekin lotura estuak izan zituztela, erabakia oso gogorra izan bazen ere.

Zu Parisa iritsi zinen urte horretan 25 urte ziren “Cruzada” delakoa hasi zela. Laster, berriz, “25 años de paz” ospatuko zuten.

Alabaina ez zegoen bakerik. 1961eko martxoan Boletan, Bilbo ondoan, Julen Madariaga Peugeot hartan zertorela sinetsirik, Batarrita izeneko bat garbitu zuen Poliziak. Kontuan izan behar da Julen Madariaga isilka Hegoaldean ibili ohi zela tarteka.

Handik hiru hilabetera, uztailaren 18an, trenaren deskarrilamendu saioa egin zuen ETAk Donostian. Sekulako errepresioa ekarri zuen horrek: ehun bat atxiloketa, torturak, presakako ihesaldiak... ETA modernoaren kondaira hasia zen.

Bi hilabetez abentura gaitzak pasatu ondoren, Iparraldera iritsi ziren Benito del Valle eta Agirre. Albisu, Laspiur eta Larramendi kartzelan zeuden. Behinolako Ekin deseginik zegoen, eta ETA jaio berriaz ezer gutxi espero zitekeen, askoren ustez.

ETAren kontrako ehiza zabalik zegoen.

Egoera horri aurre egiteko, asmatu zen orduan “buruzagi” figura ere. ETAren buruzagitza beti ere “taldetzarra” izan da, baina bizpahiru urtean “buruzagiaren” figura erabili zen ezinbestean, 62tik 63a bitartean: militante bat, aginte osoaz.

Urte horietan Poliziak ETAren azpiegitura guztia birrindu zuen eta berriro zerotik hasi beharra zegoela ikusi genuen. Julen Madariagak bere burua eskaini zuen barrura itzuli eta berriro azpiegitura eraikitzen hasteko. “Baina,

ez hasi gero niri kontuak eskatzen”, esan zuen. Emerjenzia egoera zela eta guztiok onartu genuen.

Horrela funtzionatu zuen erakundeak bizpahiru urtez eta Julenen ondoren Arregi eta Uribe izan ziren “buruzagi” ETAn.

Egoera horrek V. Asanbladara arte iraun zuen. Batzar horretan berriro osatu zen ETAREN organigrama.

Euzko Jaurlaritzak ere, bestalde, sorrerako 25. urtemuga ospatu zuen 1961ean.

Bai eta, harrigarri badirudi ere, Singer kaleko Parisko ordezkariak antolatu zituzten gazteei hitza eman nahirik; eta EGko ordezkariarekin batean ETAKo bat gonbidatu zuten. Jose Antonio Etxebarrietak hitz egin zuen EGren izenean eta nik ETAREnean. Urriaren 6an eman nuen hitzaldi hura. Areto nagusian ikurrin handi batek estaltzen zuen hizlari-mahaia. Hitzaldi luze hori laburbiltzea zaila da, baina funtsean ezin genuela Espainiako politikaren kartarekin jokatu esan nuen, ezin genuela berriro esperientzia karlista errepikatu, gure azken urteetako estrategia demokraziaren itzulerari lotua egon zela, horrek barruko ekintza-indarra ahuldu egin zuela, Fronte Abertzale bat osatu behar genuela proposatu nuen, eta fronte horretako partaide nagusiak EG eta ETA izan behar zutela.

Fronte abertzalearen ideia giltzarria izan da zure pentsamolde politikoan. Zertan aldatu da urteen joanean?

Ez dut uste askorik aldatu denik. Nik oso garbi nuen hasieratik, lehenik eta behin nazio arazoa konpondu behar genuela. Gogoratzen naiz gero, marxismoaren baitako eztabaidak etorri zirenean Paco Iturriozek edo Lopez Do-

rronsorok nola aurpegiatzen zidaten, nazio-arazoan hain erradikala izanik, epela nintzela arazo sozialetan. Eta nik Maoren adibidea aipatzen nien, maoismoa nahikoa modan baitzegoen haien artean, eta esaten nien japoniarrak Txinan zeuden bitartean, Mao bezalako komunista batek ere Fronte Abertzalea proposatzen zuela.

Fronte Abertzaleari buruzko nire ikuspegia ezertan aldatu bada, PNVri buruzko nire jarreran aldatu da. Lehen espainolistak ote ziren susmoa banuen. Orain erabat kontzientzia nago halaxe direla, karlistaden esperientziaren bertsio berri bat; alderdi erregionalista bat direla, alegia.

Dena den, PNVri buruzko nire tesi hori aspaldi samarrekoa da. Kontutan izan *Huntaz eta hartaz* nire liburuan bildu nituen saioretatik bigarrena horrelaxe titulatu nuela: "Oraindik ere karlismoa nagusi Euskal Herrian". 1960an hori!

PNVren bidelagun batzuk ere ezagutu nituen Parisen. Bazegoen han PSOEko ordezkari buru egiten zuen bat Iglesias *El Manco* deitzen zutena. Espainola zen goitik behera, ondoren ezagutu ditudan PSOEko guztiak bezala.

Pentsamendu politikoari dagokionez, sortu al duzu eskolarik? Jarraitzaile asko izan dituzu?

Nik ez dut politikarako balio. Politikan, jarraitzaileak izateko, agintzen jakin behar da; eta harrokeria puntu bat ere ez da txarra. Nik ez dut horretarako bertuterik. Beti korrontearen kontra ibili naiz; eta ez hori gustatzen zaidalako, hala tokatu zaidalako baizik. Ez politikan eta ez hizkuntzalaritzan ez dut inoiz akolitorik izan. Ez dut uste, behintzat.

Inoiz kontatu izan duzu Parisen egon zinen sasoi horretan enbaxada espainolaren aurka egindako ekintza frustratuaren berri.

Kontatzeko modukoa da eta batez ere barre egiteko modukoa, guztiz komikoa izan zelako. 1962ko apirilean ginen eta Gernika bonbardatu ondoko 25. urtemuga zela eta ekintzaren bat prestatzea erabaki genuen.

Parisen bizi ginen lau etakoak bildu, eta bi proiektore erosi genituen, eskuarekin eraginez presioa kargatzen zitzaienak, gero balbula bat zabaldu eta pintura urrutira botatzeko. Aproba batzuk ere egin genituen, eta edozein etxeren teilaturaino bota zezaketela ikusi.

Pintura gorria aukeratu genuen, odolaren sinbolo zelako edo; eta espainiar enbaxada non zegoen ikasi ondoren, abiatu ginen ekintza hori egiteko asmotan. Aldez aurretik, ordea, leku ezagunetan “poteatzen” ibili ginen, baldin eta Poliziak galdeketak eginez gero, koartadaren bat izateko. Delako traste horiek nire kotxean eraman genituen enbaxada atarira, eta ondoren banatzeko paperak ere bai, ekintzaren esanahaia agertuz.

Lau ginen auto barruan: David Lopez Dorronsoro, Errementeria, Beristain eta ni neu. Suerteak, ordea, ez zigun lagundu. Enbaxadara iritsi eta fatxadari begira geundela, proiektore horietako batek ateratzen zuen ziztuaz ohartu ginen. Behera begiratu genuen eta auto guztia pinturaz betetzen ari zela ikusi. Proiektoreari nonbait presio gehiegi kargatu genion, eta pintura ateratzen ari zen.

Buelta hartu eta etxerantz abiatua ginen. Bidean, ordea, gasolarik ez genuela eta gasolindegi batean geratu ginen. Ez dakit zein atera zen gasolinaren bila. Lurrean hanka-markak uzten zituen Frankensteinen filmeetan bezala.

Gasolinarik gabe ere etxerantz segitzea erabaki genuen, baina bidean kamioitzar batek kolpea jo zigun alboetik eta autoa erabat hondatu zigun. “Sinestro total”, pintura gorria bazter guztietatik, Gernikako paskinak ehundaka Gouvion-de-Saint-Cyr bulebarrean zehar sakabana-turik... Bapo!

Goizeko bostak ziren eta dena ahal bezala bilduta polizia iritsi baino lehen ihes egitea pentsatu genuen, paperik gabe baikinena..

Txanpaina prest genuen eta gure porrota ospatzea erabaki genuen. Mendeku gisa, handik lau astera Espainiako enbaxadoreak ohore guztiz bisitatu behar zuen Euskal Etchera gauez joan eta katez itxi genituen ateak. Hori behintzat!

Noiz hasi zen ETAREN baitan gero Bosgarren eta Sei-garrenaren arteko zatiketa ekarriko zuen borroka?

1962an egin zen Beloken ETAREN I. Biltzar Nagusia. Ni Paristik jaitsi nintzen bilera horretera eta ordurako oso nabaria zen zatiketa. ETA definitu gabe zegoen, 59an sortu eta geroztik estrategia eta bideak argitu gabe, eta bilera horren egitekoa horixe zen: bideak argitzea. Horretarako, ordea, ezin ziren erabakiak zuzendaritza mailan bakarrik hartu eta bilera zabal samarra egitea erabaki zen. Berrogei bat lagun bildu ginen Beloken. Monastegiko burua Aita Inda hendaiarra zen, bigarrena hierarkia horretan Ricau kaskoina eta aita Iratzeder hirugarrena. Hirugarren honi esker uste dut lortu genuela lekua. Beneditarren bizimodu berbera egiten genuen guk eta otordu liturgiko haiek ez zaizkit sekula ahaztuko. Fraile batek eguneko gogoeta-gaia irakurtzen zigun beneditarrei eta ETAkooi.

Esan bezala, bilera horretan bi talderen arteko etsaigoa nabarmendu zen. Alde batetik Ekin-eko sortzaile izan-

dakoak geunden, Benito del Valle eta Agirreren inguruan; eta bestean, berriz, Donostiako Iturrioz eta Lopez Dorron-soro.

Bigarren taldetxo honen ustez, bi bizkaitarrak “eskuindarrak” ziren, “elizkoiak”, “atzerakoiak” eta nik ez dakit zenbat gauza gehiago.

Eta bi bizkaitarren ustetan, bi donostiarrak “felipeak” ziren, “espainolistak”, eta ez dakit nik zer besterik. Hitz batez, bilera hasterako zatiketa giroa nabari zen eta, gezurra badirudi ere, denekin ezaguera eta konfiantza nuelako edo ni bihurtu nintzen nolabait bilerako erdigune.

Funtsean, eta ondoko urteetan garbi agertuko zenez, Dorronsoro-Iturriozen taldeak, ordurako ESBAkoekin oso lotuak zebiltzan eta ETA barrutik aldatu nahi zuten, alderdi marxista-leninista bihurtu arte. Eskatu ere eskatu zuten ESBAkoek ETAREN barruan “tendentzia gisa” sartzea. Guk ez genuen onartu, eta eskabideak ofizialki lortu ez zuena infiltrazio bidez eskuratzea erabaki zuten.

Bien bitartean, ordea, espulstioak etorri ziren: Paco Iturrioz, Jabier Leunda, Jose Manu Agirre eta Iker Gallastegi bota egin zituen polizia frantsesak Iparraldetik.

Jose Manu Agirre Ekin taldearen sortzaileetakoa zen eta istilu gogorak izan zituen aurreko urteetan PNVko buruekin. Espulstioaren ondorioz Mexikora joan behar izan zuen eta han urte mordoska egin.

Iker Gallastegi, Eli Gallastegiren semea, Jagi-Jagitik zetorren eta EG-Ekin sortu zenean jarri zen harremanetan Ekin-eko jendearekin. Erabat “irlandarra” zen, borroka gogortzearen aldekoa.

Jabier Leunda ESBAkoa zen. Partidu hau Covadongan sortu zenean hantxe zegoen bera Aita Arrizubieta mundakarrarekin, Jose Ramon Rekalde “intelektual católico”arekin, eta beste zenbaitekin batean. Kontatzen dute-

nez, Aita Arrizubietak eman omen zuen meza eta gero jauna ematera jendearengana jaitsi. Jose Ramon Rekalde ere hurbildu egin omen zitzaion eta Arrizubietak harriturik esan omen zion: “Venga, venga, José Ramón... déjate de hostias”. Omen!

Iturrioz, azkenik, gaztetan oso abertzale klasikoa eta euskaldunberria, ondoren marxista-leninista bihurtu zen, ESBako en oso lagun eta lankide. Rekalde bezalaxe, gaur PSOEn dago.

Ordurako “marxista” definitzen ziren eta nik marxismoa bezalako pentsamolde totalitarioei beldurra izan diet beti. Susmagarri egiten zitzaidan nola apaiz eta apaizgaiek sotana utzi eta zein erraz hartzen zuten erlijio berri hori, nahiz eta erlijio sekularra izan.

Nik frankismoa ezagutzen nuen eta mesfidantza izugarria nuen elizak bezala funtzionatzen zuten sistemetikoa. Horregatik beharbada anarkismoari izan diot sinpatia; eta Parisen nengoelarik ere, PSUko jendearengandik sentitzen nintzen hurbilen, sozialismo autogestionariotik alegia. Beharbada kritikoa izan naiz alderdi marxista batean militatzeko. Karlos Santamariak esan ohi zuen, erdaraz: “Organizar a los inquietos es una contradicción in terminis”, ez dela posible alegia jende kritikoa erakunde batean biltzea. Are gutxiago modu leninistetan.

Espultsio horien aurrean erantzun al zuten Iparraldeko abertzaleek? Zer giro zegoen Iparraldean?

Iparraldean ez zegoen ia ezer. “Aintzina” taldea egona zen soilik. Talde hori 36an agertu zen eta Bigarren Mundu-Gerran berpiztu berriro. Aitzolek eta Lafitte kallonjeak sortu zuten, PNVren irudira. Talde horretakoek bizirik segitzen zuten, baina hogeita bost urte zeramatzatza-

ten ezer egin gabe. Gu Iparraldetik bota gintuztenean, bezaz, ez zegoen han erantzun bat emateko gaitasunik.

Enbata izan zen Iparraldean benetako lehen erakunde abertzalea. Ximun Haranek Bordeleko ikasleekin osatu zuen talde bati jarri zioten lehenbizian “Enbata” izena.

Ximun Haran aspaldidanik ezagutzen nuen nik. Bere familiak hotel txiki bat zuen, Hotel Basque izenarekin, Saint André elizaren parean eta gure familiak harreman estua zuen harenarekin. Berak kontaktzen zuenez, Kortazar izeneko gizon bat bizi izan zen hotel horretan, Eusko Jaurlaritzako ordezkari zena Baionako ordezkari zena, eta harengandik jaso omen zuen abertzaletasuna mutikotan. *Nonbait jende asko ibili ohi zen Kortazar horren bueltan hotelean.*

Ez da kasu bakarra. Iparraldeko abertzale askok Hegoaldetik jaso dute abertzaletasuna. Xarritonek ere horixe kontatu ohi zidan. Erroman gerratik ihesi joan ziren Hegoaldeko apaiz euskaldun batzuei esker egin zela abertzale. Antzeko kasua izan bide da Jakes Abeberrirena ere. Oldarra dantza taldea zuzendu zuen eta hor egin zen abertzale. Eta ez da ahaztu behar Oldarra dantza taldea Olaeta dantzari errefuxiatuaren lanaren fruitu izan zela.

Iparraldeko lehen abertzale hauek gehienak erdaldu-nak dira hizkuntzaz. Beren familia horiek eskuindar amorratuak izan ohi ziren normalean. Euskaldunak, hori bai, baina etxean seme-alabei euskararik irakasten ez zien jendea. Nabarrismoaren eskema berbera. Hori da Haran, Abeberri eta beste askoren kasua.

Salbuespenak zeuden. Jean Louis Davant. Zuberotarra familiaz, baserritarra jaiotzaz, eta injineru agrkola ikasketaz. Gaur Hazparneko Nekazari Eskolan egiten du

lan. Honek etxean ikasi zuen euskara, eta ez du egundo euskara baztertu.

Aipatu ditudan hauek hartu zuten parte Ximun Haranek Bordelen sortu zuen Embata horretan. Hasieran m-arekin idazten zuten hitz hori, ortografia frantsesarekin, eta talde erregionalista hori abertzale bihurtzean, aldatu egin zuten izena euskal grafiara. Adierazgarria

Gu Iparraldean ginela mamitu zen aldaketa hori, eta 1963ko apirilaren 15ean Itsasun ospatu zen Enbataren sorrera. Argitara zuten agiria Ximun Haran eta Julen Madariagak sinatu zuten, nolabait bi taldeen sortzaileek. ETA-ko beste zenbait kide ere agertu ginen egun horretan Itsasura. Telesforo Monzon ere bai, eta hitzalditxoak egin zuen. Arbola bat aldatu zen Gernikakoaren oroitzapenentan eta ipartar mugimendua martxan jarri zen.

Baina Enbatarekiko harremanak lehendik zetozen. Donostiako gure etxean egiten genituen bileretara etorri izan zen batzuetan Ximun Haran. Guk hasieratik nahi genuen ETAn nolabait Euskal Herri osoko zuzendaritza nazionala osatzea eta Haran Iparraldeko ordezkari izan zen.

Iparraldeko abertzaleekiko lotura horiek azkartuz joan ziren. Benito del Valleren eraginez negozio txiki batzuk zabaldu ziren, ihes egindako borrokakide batzuei lana emateko adinakoak. Bi urte horietan, 1963 eta 64an, sendotu egin ziren hango eta hemengo abertzaleen arteko loturak eta elkarlana. Laberie, Haran, Abeberri, Davant, Nobliatarrak eta beste hainbat Iparraldeko abertzaleren adiskide egin ginen eta Hegoaldetik gerra dela eta joandako zenbaitekin ere harremanak estutu genituen: Robles anai-arrebekin, Monzon anaiekin eta abar.

Zer harreman izan zenuen zuk Monzonekin garai horretan?

Nik hasiera batean ez nuen harreman esturik izan Monzonekin. Bera bere gauzetara dedikatzen zen. Antzerkiarekin ibili ohi zen gehienbat. Tarteka berarekin eta bere anaia Isidrorekin egoten nintzen. PNVrekiko gure harremanak ez ziren oso onak, baina Monzonek begi onez ikusten gintuen eta baita Julio Jauregi izeneko beste PNVko batek ere. Gizon hau Monzonekin batean Madril-en diputatu izandakoa zen; eta harritu egiten zen, gu hain abertzaleak izanik PNVrekin ondo konpontzen ez ginelako eta egun batean afaria eratu zuen elkarrekin konponbidea bilatu nahiz.

1964ko urte hasieran izan zen hori. Oker ez banago. ETAREN izenean Benito del Valle, Madariaga eta ni neu agertu ginen Miarritzeko jatetxe dotore batera, eta PNVren izenean Monzon bi anaiak bakarrik. Jatetxetik bertatik Telesforok Julio Jauregiri deitu zion eta Beyris-en, Villa Izarran zegoen PNVren zuzendaritzak debekatu egin ziola etortzea esan zion. Afaria antolatu zuena falta zelarrik ere, afaria egitea erabaki genuen Miarritzeko hondartzara gaineko jatetxe batean. 1964an, ekinza armatuak hasi baino askoz lehenago ere beraz, debekatuta zeukaten PNVko burukideek gurekin hitz egitea... baita afaltzeko ere!

Krutwigek bere Vasconia 1964an eman zuen argitara. Zer harreman zenuen berarekin?

Krutwig ez zen ETAKoa, baina *Vasconia* “de facto” ETAKo biblia bihurtu zen ondorengo urteetan.

Nik adiskide nuen 1949z geroztik. 1964ko maiatzean Estatu frantsesak kanporatzeko erabakia hartu zuen eta

Flandriara alde egin zuen, Antwerpenera. Hantxe topatuko nuen nik hilabete batzuk beranduago.

Zu ere bidali egin zintuztela esan nahi duzu?

Frantsesak ordurako gurekin oso haserre zebiltzan Labegerieren bidez jakin nuenez, eta ni ere bidaltzekotan zebiltzan: nonbait Baionako prefetaren mahai gainean ikusi omen zuen Enbaxada espainolak eginiko gure espultsio-eskabidea.

Lau ginen oraingoan: Benito del Valle, Madariaga, Eneko Irigarai eta ni. (Irigarai hau Iturrioz eta Lopez Dorronsooren laguna). Poliziak, garbi zegoen, ETAko buruzagitzan ibilitako guztiak uxatu nahi zituen.

Antwerpenera jo nuen, baina nederlandera menderatu gabe lana aurkitzea zaila zela-eta, Bruselara aldatu nintzen eta ETAko buruzagitza uztea erabaki nuen. PNVk atzerrian zuen buruzagitza ezagututa garbi genuen, urrutitik eta herriarekin harreman zuzenik izan gabe, ez zegoela borroka zuzen gidatzeko modurik.

Infiltratuta zeuden “felipeek” ez zuten abagunea galdu, eta alderdi marxista-leninista sortzen saiatu ziren. Krutwigek ere, beste informazio-iturri batzuk erabiliz, inpresio bera zuen, marxismoaren aitzakian sozial-inperialismoa egiten ari zela ETAko zuzendaritza berria, ESBAkoak nagusitu zirela ETAko aparatuz eta “nueva línea”ren profeta bihurtu zirela. “Oficina Política” deitzen zuten buruzagitza ez zen FLPren ordezkartza baizik, baina gu oso banatuta geunden: Benito del Valle Parisen zegoen eta tarteka Venezuelan, Jose Manu Agirre Mexikon, eta ni neu Belgikan.

Beranduegi eta alferrik izango zela jakinik ere, lau txosten bidali nituen barrura, 1965eko azarotik 1966ko

martxora bitartean. Eta horretaz gain V. Biltzar Nagusira-ko beste txosten bat ere prestatu nuen. *Euskal Herria helburu* liburuan agertu dira oso-osorik.

Zein ziren ETAko zuzendaritzari bidalitako zure txosten horietako ideia nagusiak?

Militante askok oso garbi ikusten genuen ETA fase ideologiko berri batean abiatua zegoela. “Zutik” organoaren azken aleen azterketak, militanteei ematen ari ziren hitzaldi berriek eta 1962ko Oinarrizko Aldarrikapena de-segiteko Asanbladak egindako eskabideak garbi asko erakusten zuten hori. ETAko zuzendaritza berriaren tesiak desenmaskaratzea izan zen nire txosten horien helburua.

Zuzendaritza horrek ukatu egiten zuen Euskal Herriak sufritzen duen zapalketaren izaera nazionala. Euskal burgesiak Euskal Herria zapaltzen duela, baina Estatu espainolaren aparatuz baliatuz egiten duela hori frogatzen saiatu nintzen txosten horietan. Espainol herria zapaltzen du espainol burgesiak, baina Estatuko aparatua ez dela haientzat aparatu atzerritarra, esaten nuen. Burgesia espainolak sozialki zapaltzen duela espainol herria, alegia, baina ez nazionalki. Euskal Herria, aldiz, burgesia atzerritar batek zapaltzen duela azpimarratzen nuen eta burgesia atzerritar horren zerbitzutan jarria zela euskal burgesia.

Hortik abiatuz, gure borrokak lehen fase batean borroka nazionala izan behar zuela, esaten nuen, eta bigarren fase batean egingo genuela iraultza soziala. ETAk ez duela, beraz, klase mugimendu bat izan behar eta, Maok Japoniaren kontra bezala, Fronte Nazionala bultzatu behar zuela; hortik hasi eta marxismo dogmatikoaren kontra gogor kritikatzeko nuen.

Txosten horiek, noski, ez ziren zabaldu ere egin organizazioan; sozialismoa, hark esaten zuen bezala, “bakarra” baita munduan: Sozialismo Zientifikoa, eta gurea sozialismo burges-txikia baitzen. Omen!

V. Biltzarrera Grupo Socialista de ETA bezala aurkeztu zineten.

Sozialismoa bakarra baldin bada, alderdi bakarra onartu behar genuen, eta alderdi bakar hori Moskuteroa eta anti-pluralista izango zen. Marxista-leninista ez ginenok ez genuen beste biderik: batasun behar abstraktuaren izenean ezker abertzaletasuna marxista-leninisten eskutian utzi ala ETAtik aldegin. Erdibide bat hautatu genuen V. Asanbladarako, eta erakunde bizefalo baten aldeko aukera proposatu genuen “Frente de tendencias ETA y Frente Nacional” geure txostenean. Baina erdibiketa horrek ETAREN ahultzea ekarriko zuela-eta gure proposamena baztertu egin zuten. ETA barruko partida galdua genuen.

ETAtik irtetea erabaki zenuten, beraz?

Bruselako Chaussée de Neerstalle kaleko nire etxean bildu ginen ETAKo proskrito batzuk eta Federiko Krutwig, eta aldizkari abertzale bat argitaratzea erabaki genuen; sasi-marxismoaren aurka, ezkertiar abertzaletasunaren defentsan eta sozial-inperialismoaren aurka.

Krutwigek abertzaletasunaren defentsa egingo zuen maoismoaren aldetik (1968ko maiatzaren bezperan ginen); eta nik ezkerkeria sasi-klasisten kontra hizkuntzaren balioa zuzenetsiko nuen. *Hizkuntza eta pentsakera* liburua ere garai horretakoa da, Whorf eta Sapir-en lehen ildotik idatzia; eta Benito del Valle komunisto ofiziala-

ren burokraziaren alderdi txarrak salatuko zituen, auto-gestioaren beharra azpimarratuz.

Garai horretan Krutwig ez zen ETAKoa eta gero bai. Gu, alderantziz orduan ETAKoak ginen eta gero ez. Hau-xe egia.

Segurtasun arrazoiengatik *Branka*-ren lehen alea “Buenos Airesen” argitara eman zen. Gure lana abiatuta ikustean, pixka bat lasaitu ginen Bruselako heterodoxoak eta zerbait lortuko genuela sinesten hasi. Baina inozo samar jokatu genuen. ETA bera egingo zela esan ziguten aldizkariaren banaketaren kargu eta haiek itsasora botatzea erabaki zuten. Hori askoz ere beranduago jakin genuen.

Talde abertzale sozialistaren oinarri ideologikoak jarri nahi zituen aldizkaria, hor nonbait, Kantauri itsasoko arrainen bazka bihurturik... Hastapen ona izan zen gurea!

Branka aldizkariak bi epe izan zituen. Lehen bost zenbakietan, 67ko urtarrila arte, gurekin batean Krutwigek hartu zuen parte. Aipatutako data horretan Federiko ETAn sartu zen eta gu atera egin ginen; eta ez zuen gehi-ago gurekin kolaboratu. Bigarren epe horretan Benito del Valleren lanak ugaldtu ziren, “Zabala” goitizenez izenpetuak; eta Agirrerrenak “Irurizar” goitizenez izenpetuak. Data aldetik, V. Biltzarraren bezperan atera zirela jakitea interesgarri gerta daiteke.

Zer aportazio egin zuen Krutwigek Branka-ko ale horietan?

Euskal maoismoaren oinarriak finkatzea izan zen bere helburua. Abertzaletasuna ikuspegi marxista batetik oinarritu nahi izan zuen, borroka armatuaren estrategia ere markatuz.

Eta zure aportazioa?

Nire aportazioa bikoitza izan zela esango nuke. Alde batetik, estrukturalismoaren bidez hizkuntzaren funtsez-kotasuna azaltzea, eta bestetik Fronte Abertzalearen aldeko argudioak ematea. Benito del Valle, berriz, lehen aipatu dugunez, burokrazia marxista-leninistaren kontra autogestioaren defentsa egin zuen behin eta berriz, bisitatu berria zuen Jugoslaviako esperientziatik hasita.

Zer eragin izan zuten zuen jarrera ideologikoek Hegoaldean?

Hutsaren hurrena. Saiatu ginen, baina zaila zen. Orain ere zaila da ETaren aurka ezer egitea abertzale munduan eta orduan ere berdin. ETako zuzendaritzak kontrolatzen zituen eremuetan jarrera berri batek oso leku gutxi izan zezakeen. Zehazki ez dakigu zeinek irakurtzen zigun ere. 1968ko maiatza gertu zegoen eta garai hipergauchistak ziren, eta ezkerrean egoteko, Alderdi Komunista ofizialen erreformismoa ezaguturik, maoismoan egon behar edo trotskismoan. Bandera beltzak oso urri ikusten ziren 68ko maiatza etorri zen arte.

Hego Euskal Herrian koldarkeria hutsa zen marxista-leninista erradikal gisa ez agertzea. Niri mila aldiz aurpegiatzen zidaten gauza bera: nola duk posible, zer egiten duk oraindik marxista bihurtu gabe? Gu, beraz, *Branka* aldizkariaren ingurukoak erreformista nazkagarriak ginen. Orduan zabaldu zen Txillardegiko "Zillardegitik" zertorrela eta *Branka*-ko artikuluak "Usako" goitizenez izenpetzen nituenez, azkar aurkitu zuten horren esanahi "zientifikoa" eta yankee-zale amorratua nintzela esaten hasi ziren. (Usako, bidenabar, Enparantzatarren toponimoa da, Oñati-Araotz aldekoa).

1967ko apirila iritsi zen eta ofizialki inoiz garbi esan ez bazen ere, ETAren zuzendaritzak V. Biltzarraren ondoren marxismo-leninismoa onartu zuen ideologia gidaritzat. ETAk, eta ondorioz Ezker Abertzaleak, sozialismo zientifikoaren bidea onartu zuen. Eta guk ETAtik irtetea erabaki genuen.

Abertzale askok, eta ETAko militante gehienek, traidoretzat hartu gintuzten. Handik urtetara, adibidez, “Zeruko Argia” astekariak Euskadiko Kutxak banatutako argazki guztiak argitara zituen koloretan, bat izan ezik: nire. Arizmendiarieta, Lete, Mitxelena eta abar luze bat.

Inoiz aitortu izan duzu egoera horrek sekulako barne-krisialdia eragin zizula.

Nire bizitzako momenturik txarrena izan dela esango nuke. Izugarritzako eragina izan zuen nigan egoera horrek, eta krisialdia nolabait gainditzeko momentu hartan inguruan nuenaz girotzea erabaki nuen eta horrela jaio zen *Elsa Scheelen*, Euskaltzaindiak Txomin Agirre sariaz oheratua eta ondoren makina bat kritika gogor jaso. Hain ezkorrak izan ziren kritika horiek, ze nobelak idazteari utzi nion. Horrela nolabait porrot politikoari porrot literarioa gaineratu zitzaion. Baina minik gehien ematen zidana politika mailakoa izan zen. Bizitza osoa kausa baten alde lan egin eta bazterretan traidoretzat hartua izatea oso gogorra da. Denborarekin hori ere gainditu egiten da. Orain Euskaltzaindiko marjinazioa gainditu dudana bezalaxe, orduan jendearen mespretxu politikoa gainditzen ikasi nuen.

Edozein modutara *Branka*-ri eustea erabaki genuen. Bosgarren aletik aurrera izen berri batzuk agertzen hasi ziren: Joxe Azurmendi, Jokin Apalategi “Txurdintxo” ize-

narekin, Jakes Abeberri eta Jean Louis Davant. Sekula ez dugu aski eskertuko momentu zail haietan idazle hauek eman ziguten laguntza. Burgosko epaiketaren ondoren aldaketa gogorak egin ziren Iparraldeko errefuxiatuen artean eta *Branka* desagertu egin zen, zazpi urtez iraun ondoren. Baina Fronte Abertzalearen aldeko bere mezu nagusia ezintasunean galdu zen. Garai “gorriak” ziren. Abertzaleak elkaturik? Txorakeria. Klase batasuna eta marxismo erradikala.

Korrontearen kontra ibiltzea tokatu zaizu, beraz.

Bai. Baina ez da hala nahi izan dudalako izan. Arzalluzek esan omen zuen behin boterean egoteak ez duela nekatzen, oposizioan egoteak baizik. Eta uste dut arrazoi duela. Niri beti oposizioan egotea tokatu zait eta zinez esan dezaket oso gogorra dela. Ni ez naiz snob bat eta ez zait gustatzen korrontearen kontra ibiltzea. Halabeharra izan da. Bidea PNV zela onartua zenean, ETAren beharra sumatu nuen. Soluzioa Marx-engan zegoela nagusi zenean, nik estalinismoaren goragalea sentitu nuen. Beti at edo kontra.

Dagoeneko zertan zegoen behin eta berriz salatu zenuen “felipeen” infiltrazioa?

Esan behar da “felipeak” ez zirela inoiz adar militarrean nagusitzera iritsi. Eustakio Mendizabalek, Juan Jose Etxabek eta horiek eraman zuten urte kritikoetan adar militarren gidaritzak eta horiek “impermeableak” ziren. Esan liteke gainera, komandoetakoek halako joera anti-intelektual bat ere bazutela; eta politikan teoria handiekin zebilen jendeak gero bonbak jartzeko barrabilik ez zuela pentsatzen zuten.

Nik prozesua kanpotik jarraitu nuen. Adar militarrean lau katu ziren garai hartan, baina ETA haiek salbatu zutela esan daiteke.

Oso ezagunak dira Fronte Abertzaleari buruz zuk defendatu dituzun jarrerak. Saia gaitzen zure ezkertiar jorarak definitzen: noiz ezagutu zenuen zuk sozialismoa?

Ni, karrera bukatu berritan, Groseko Soroa kalean Diesel motoreak egiten zituen Massé enpresan hasi nintzen lanean. Enpresa hori Berliet frantsesaren delegazio bat baizik ez zen. Enpresa horretako bulego teknikoan lan egiten zuen Agustin Gomez Pagola izeneko oreretar batek ere. Gerra ondoren Errusiara joandako haur haietakoa zen, oso futbolari ona izana, Moskuko Dynamon edo Torpedon jokatzen ibilia. Elkarren ondoan lan egiten genuenez, berri politikoei buruz asko hitz egiten genuen, eta Sobietar Batasunari buruz bereziki.

1958ko martxoan grebarako deia zabaldu zuen “Resistencia” delakoak, eta greba-egun horretanxe etorriko zela jakinarazi zuen Gipuzkoako Industri ordezkariak, gure enpresa ofizialki bisitatzera. Eduardo Massé ugazabak bazekien greba-egunaren zurrumurruen berri, eta mese-dez enpresan geratzeko eskatu zigun bulego teknikoan lan egiten genuenoi, Industri ordezkariari azalpen teknikoak emateko. Agustin Gomezek eta biok huelgara joatea era-

baki genuen eta biharamunean bertan jarri gintuzten kalean.

Enpresako langile eta lankideen aldetik despeditzera-koan entzun nituen hitzak bihotzean iltzaturik eraman ditut eta daramatzat oraindik ere. 28 urte nituen nik eta “ezker-bataio” hori ohore handizat izan nuen eta daukat. Nirekin batean kaleratu zuten Agustin Gomez horrekin izan nituen nik marxismoari buruzko lehen eztabaidak. PCK kontrolatzen zuen *Arragoa* aldizkarian idazten zuen eta ni atzerrian bizi nintzenean frankistek detenitu eta basaki torturatu zuten.

Zuk sentitu al duzu inoiz marxismoaren tentaldia?

Ez dut inoiz Rikardo Arregik aipatzen zuen “Marxen zorabioa” ezagutu, Freuden zorabioa edo Budarena sentitu ditudan bezala.

Bruselan egon nintzen garaian (1965-70) lanetik irten eta maiz joaten nintzen Gare Centrale-ren ondoan dagoen dorre-liburutegira eta han denetik irakurtzen nuen, hizkuntzalaritzaz bereziki. Eta marxismoaz ere dezente, euskal gazteriak sufritzen zuen marxititiari erantzuteko berderen. Leninen testu batzuk interesatu bazitzaizkidan ere, Marx eta Engelsen testu gehienak aspergarri egin zitzaizkidan. Marxismoa, frankismo “terminal”eko garaietan abertzaletasuna hozteko eta ahazteko tresna hutsa izan zen; eta Madriletik ezkutuan bultzatua.

Nola esplika daiteke, ordea, komunismoak garai horretan gazte jendearen artean izan duen atxikimendua?

Nik uste dut frankismoak berak eragin zuela hori. “Komunistak Francok horrenbeste gorroto baditu, komunismoa ona den seinale” pentsatu zuten. Eta bestalde, ko-

munismoak nolabaiteko fede bat eskaintzen du, “Testamentu Berri” bat.

.Mitxelenak behinola esan zuen euskal literaturako obra askok mende bat lehenago idatziak diruditela. Esan nahi zuen, atzerriko literatur joerak berandu iristen direla gurera. Gauza bera esan daiteke ideologia jarrerekin ere. Marxismoa oso berandu iritsi zen Euskal Herrira eta badi-rudi haren azken defendatzaileak ere herri honetan izango direla. Herri honetan ezagutu ditut nik Perestroikaren azken madarikatzaileak, Tiananmen-go hilketa txalotu dutenak, Jaruzelsky militarren kolpeaz poztu zirenak, eta beste hainbat ortodoxo. Euskal ezkerria hipotekatzen duen sinplekeria horien kontra ezin da ezer egin, funtsean ez baitago borondate txarrrik, atzeramendu ideologikoa bai-zik.

Bestalde, USAk kontrolatutako hemisferioan euskaldun abertzaleok maoismoaren ortodoxiatik abiaraztea ere hordago gogorregia iruditzen zitzaigun. Baina kritika horiek susmagarri egiten ziren hirurogeiko pentsaera sinplista eta super-gorria nagusi zen urte haietan.

Nik, monotematika horretaz asperturik eta aldi berean kezkatuturik, ezkertiar heterodoxoak irakurtzeari ekin nion. *Exkixu* nobelan ere islatzen dira kezka eta asmo horiek.

Sartre eta Russell aipatu ohi dira zugaran eraginik gehien izan zuten autore gisa.

Kronologikoki bederen lehen eragile nagusia Bertrand Russell izan zen. Filosofo, matematikari eta bakearen aldeko borrokalaria honek inpresio handia egin zidan. Nik ez nekien artean Russell “anarko-sindikalista” izana zenik eta burokraziaren kontra autogestioa proposatzen zuenik. 1918an kartzela ezagutu zuen Lehen Mundu-Ge-

rran desertore izan zelako eta orduan idatzi zuen *Introduction to Mathematical Philosophy* liburua. Britainiar alderdi sozialistako kide izan zen gaztaroan, eta 1920an Batzorde Laboristako kide gisa Errusia bisitatu zuen, gauzak bertatik bertara ikertzeko. Ondoren idatzi zuen *Théorie et Pratique du Bolchevisme* liburua, nik askoz ere berandugoa irakurri eta berrirakurria. Oraindik Stalin agintera iritsi baino lehen sumatu zituen Russellek estalinismoaren arrisku guztiak. Stalin 1953an hil zen, baina ez da gure artean oraindik marxismoaren balantzerik egin eta halako autozentsura sumatzen da nonahi.

Euskal nazio arazoa argitzeko 1965etik aurrera marxismora jotzea, gurean egin den bezala, soluziobidea ezinezko bihurtzea da, nazio arazoa dagoen eskualdeetan marxistak nahasi egin baitira.

Alabaina, ez al du marxismoak aportaziorik eskaini?

Garbi dago, materialismo historikoaren ideia nagusiak onargarriak dira. Russellek ere onartzen zituen faktore ekonomikoen garrantzia eta kapitalismoa suntsitzeko premia. Baina materialismo historikoaz gainera marxismoan bada beste zerbait, erlijio bat ere bada. Russelli "Rusia jesuiten ikastetxe handi bat" iruditu zitzaion.

Aipa ezazu oran Sartrek zugan izan zuen eragina.

Zalantzarik gabe nire pentsamolde politikoa markatu zuena Sartre izan zen Russell-ekin batera. Nik ikasle garrantan Sartre existentzialista irakurri nuen. Sastre politikoa eta intelektuala gero etorri zen, ni Estatu frantsesera 1961ean iritsi nintzenean. Parisa ailegatu eta hilabete gutxira Sartrearen etxea plastikatu zuten. Aljeriako gerra gori-gorian zegoen eta OASeko faxistek ez zioten Sartreri

hartutako bidea barkatzen. Orduan hasi nintzen autore horren lanak, antikolonialismoari buruzkoak batik bat irakurtzen, eta baita ere marxismoari buruzkoak, beti ere “desbideraketa burokratikoak” salatuz. Ordurako PCFrekin eta Sobietar Batasunarekin erabat hoztuta zegoen. Borroka antikolonialetan eta “gauchismoan” zituen bere esperantzak eta benetako bonba bat bota zuen Burgosko epaiketaren ondoren, ETArekin buruzagitza “sextakoen” eskuetan zegoenean, ikuspegi abertzale eta ezkertiarren alde agertu baitzen Gisèle Halimi abokatuak idatzitako liburuaren hitzurre famatuan. Oso ahuldurik zegoen euskal ezkerrek zinez arnasa hartu zuela esan daiteke Sartreri esker.

Gai honi buruz polemika famatu bat izan zenuen Rikardo Arregirekin.

Garai hartan gure herriko gazte jendeak bizi zuen giro paranoikoa ulertzeko adierazgarri gertatzen da polemika hori. 1967an idatzi zuen Arregik “Sozialismoa modan dago” artikulua eta oso zakar erantzun nion nik “Marxismoa modan egon zen” izeneko batez. Marxismoaren balantzea egiteko ordua irisia zela erantzuten nion eta Europako alderdi komunistetan zer gertatzen ari zen agertzen saiatu nintzen, baina artikulua horrek min handia egin zuen nonbait eta nuen kreditu politiko apurra galdu nuen.

Ezkerrari buruzko zure ikuspegia osatzeko, aipa itzazu beste zenbait autore zure pentsamoldean eragin dutenak.

Guztien gainetik Edgar Morin aipatuko nuke. Lehen esan dudan bezala, ETAtik kanpo geratu nintzen garaiak ziren. Ez ninduten bota, baina nire porrota erabatekoa

zen, itxuraz bederen, eta barne-oinazea handia. Sasoi horretakoa da aipatu dudan Arregirekiko polemika ere. Esana dudanez, barne-oinaze hori ematzeko hasi nintzen Elsa Scheelen idazten, baina liburu horrek ez zituen kritika txarrak baizik jaso. Arestian esan dudana: porrot politikoari porrot literarioa gaineratu behar izan nion eta neure buruan konfiantza erabat galdu nuen.

Edgar Morinen “Autocritique” liburu miresgarria 1975ean idatzia da eta 76an irakurri nuen nik, nire barne-krisialdi hori baino sei-zazpi urte beranduago. Baina irakurri nuenean behin eta berriz gogoratu nintzen Belgikako “Morne plaine-n” pasatako urteaz. Irakurri nuenetik Morin neure isileko kontseilari eta aburukide egin dut. Autore honek esaten du marxismoak imajinarioaren alorra gutxietsi duela, non giza premiak imajinarioak eta aldi berean benetakoak diren. PCFtik pasatako gizona zen eta izugarri zorrotz kritikatzan ditu marxismoa eta are materialismo historikoa ere. Lurreko erlijioan fedea galdu ondoren, gizona bakarrik geratzen da eta nolabait jarrera neo-estoiko batzuk sumatu dizkiot Morini. Eta nazio arazoari buruz dituen iritziak oso jakingarriak dira; nahiz bazuetan ados ez izan.

Horrez gainera Noam Chomsky, Touraine eta beste zenbait izan dira Ezker Berriaren oinarriak bilatzeko erabili ditudan autoreak.

Noiz erabaki zenuen Belgikatik Euskal Herrira itzultzea?

1969 bukaeran Lafon euskalaria hil zen eta Bordeleko unibertsitatean laguntzaile plaza bat agertu zen. Mitxele-nak eta Haristchelharrek nire aldeko iritzia eman zuten eta 1970eko otsailean jaitsi nintzen Bordelera. Hurrengo

urtean Barne ministroak nire espultsio agindua izenpetu zuen, baina emaztea Seaskan lan egiten hasia zegoenez, hordagoa jo eta Euskal Herrira etortzeko erabakia hartu genuen, Burgosko epaiketa hasteko zorian zegoenean. Agintariak ezikusia egitea erabaki zuten, Francoren kontrako giroa oso berotuta baitzegoen.

Iparraldean, dena den, Fronte Abertzalea osatzeko entseguak izan ziren.

Bai. Franco hiltzerako Fronte Abertzalea nahi genuen eta entsegu horietan hartu nuen parte Monzonekin batera. ETA prest agertu zen, baina PNV ez. Baionako Itunari eusten zioten eta ez zuten arriskatu nahi PSOErekin lortutako adiskidantza zaharra.

Berriro alde egiteko agindua jaso nuen Barne ministeriotik, baina orduan Juan Jose Etxabe zegoen ETako buru eta hark bertan geratzeko eskatu zigun Monzoni eta bioi, eta Baionako katedralean gose-grebari ekiteko. Han eza-gutu nituen ETako militante pilo bat, hala nola Eustakio Mendizabal, Perez-Revilla, "Txapela" Goikoetxea eta Mondragon, asko eta asko ondoren atentatu ikaragarrietan bizia galdutakoak.

Ondoren Nogaro herriskan, Gers departamenduan, sei hilabete egin genituen Monzonek eta biok etxe berean. Jende askok bisitatu gintuen eta esperientzia aberasgarria izan zen niretzat.

Nogaroko deserrialdia bukatuta Iparraldera itzuli nintzen eta Hendaian kokatu, errefuxiatuz beteta zegoen Cordeliers kalean, eta Bat-engineering enpresan hasi nintzen lanean. Monzonen proposamenez Anai Artean sartu nintzen eta berehala ATEn heriotza mehatxuak hasi zitzaizkidan atepetik, telefonoz eta postaz iristen.

Ekintza mailan Iparraldeko ETakoekin egiten nuen topo eta haiekin batean aritzen nintzen, baina gero eta urrunago sentitzen nuen neure burua Hegoaldeko ETaren joera marxista nagusietatik.

Nola definituko zenuke Telesforo Monzon?

Tripaz abertzale, tankeraz aiton- seme, jokabidez base-
rritar maltzur.

*Pasa gaitezen zure literatura lanak pitin bat aztertze-
ra. Leturiaren egunkari ezkutua-k euskal nobelagintzan
aro berri bat zabaldu zuela esan ohi da.*

*Leturiaren egunkari ezkutua da arazoz beteriko eta
bere kezka existentzialistetan murgildutako gizaki bat
protagonistatzat duen lehen euskal nobela. Hori hala dela
esan daiteke.*

Euskal nobelagintzak joan den mendearen bukaeran
lehen urratsak eman zituenetik, ikuspegi bukolikoegia era-
kutsi izan du eta nire nobela honek eten egin du ikuspegi
hori erabat.

Lehen pertsonaren erabileraren bidez protagonistaren
barnekoitasuna adierazten du.

*Liburuak zenbait unetan Sartreren “goragalea” edo
Unamunoren “ezinegona” gogora dezakeela esaten dute
kritikoek.*

Bi autore horien eragina begibistakoa da, darabildan
sinbolismoan batez ere. Egunkariko egileak ezkontzari
buruz dituen zalantzek ere metafora zentzua dute, intelek-
tualaren eta konpromezu politikoaren artean gertatu ohi
diren harreman kontraesankorren adierazle izan baitaitez-

ke. Esan nahi dudana zera da, liburua sinbolikoa denez, irakurketa desberdinak egin daitezkeela.

Barne-diskurtsoaren eta lehen pertsonaren erabilera, hiriguneko giroa, liburuaren atal desberdinak bereizteko modua dira liburu honek bere garaian ekarri zituen berrikuntzak. Baina zenbait kritikok existentzialismoaren kredoa azaltzeko halako ahalegin bat edo sumatu izan dute nobela horretan. Zure pertsonaiak ez direla benetakoak esan izan da, zurrunegiak direla.

Seguru asko egia da. Nik pentsamendu-mota bat adierazi nahi nuen, kezka batzuk agertu nahi nituen eta horrek seguru asko arriskutan jarri zuen nobelaren oreka. Baina ni ez naiz neure lanen kritiko inoiz izan eta ez dakit neure nobelen balioa juzkatzen. Bizimoduaren astunaz, gizakiaren patuaz eta askatasun beharraz ari naiz neure lehen nobela horretan eta hori lortzeko baliagarri zitzaizkidan pertsonaiak asmatu nituen.

Mitxelenak bere hitzaureran seinalatu zuen bezala, liburuaren atalak bereizteko erak Lizardi gogoratzen digute.

Egia. Nik ere lau urtaroen arabera bereizi nituen atalak. Udaberria maitasunari eskainia da. Uda heldutasunari eta udazkena etsi-beharrari. Leturiak kontuak garbitu behar ditu bere buruarekin eta etxetik ihes egiten du eta bere buruarekin bakarrik hasiko da neguko "hizketaldi" larri horretan, hil ala bizi bide bila, nahigabez inguraturik eta ilunpetan haztamuka. Baina lehen aipatu den Lizardiren *Urte-giroak* eta *Leturia*-ren arteko parekotasuna oso azalekoa da. Ez da zalantzarik Lizardirengan. Pozik dago bi-

ziak eskaintzen eta fedea agintzen dionarekin. Nire lanean ez da horrelakorik.

Mitxelenak lehen hitzaurre horretan adierazi zuenez, ez zen artean euskaraz idatzi horrelako hitz larririk, horren zinezko aitorrik, horrenbesteko garrasi sarkorrik.

Nik neuk 77an egindako hitzaurre batean aipatzen nuen nobela honek garaiko giroari zor ziona. Han esan nuenez, nobela apolitikoegia da. Beldur naiz —esaten nuen— gaurko irakurle asko, gazteenak batez ere, orain dela hogeituroko giro hura ezagutu ez dutenak ez ote diren harritik eta galdegingo dute, zertara ote datozen metafisika-kezka ero horiek. Orduan existentzialismoa modan zegoen. Izatearen zoritxarra gailen eta gure Unamuno igarle. Eta barne-min hori sinbolotan eta nobela gisa azaltzea bururatu zitzaidan.

Nobela sinbolista denez, bizpahiru ohar ematen ditut hitzaurre horretan pista bezala: Miren, gizonaren xedearen irudia da, absolutu bilakatua.

“Zerubide”, izenak berak adierazten duenez, Absoluturako bidean Naturaren irudia. Paris, berriz, unibertsalismoarena eta protagonista azkenean petrikiloarengana bihurtzeak bazuen, nire ustean badago hor, salaketa gisa agertzen den kezka ere, zientzia soilari buruzko mesfidantza. Eta azkenik, Galizian idatzia delako edo, badago “saudade” puntu bat.

Esan duzu ez dela Leturia-n kezka politikorik sumatzen. Nola esplikatzen duzu apolitizismo hori?

Kezka metafisikoei buruzko liburua da. Baina hasierako liburu horietan nire ideia politikoei buruzko erreferentziarik agertzen ez bada, zentsuragatik da, noski, garai

hartan pentsatu ere ezin egin zitekeelako. Planteamendu politikoak klandestinitatean egiten genituen, Ekin-en edo ETAn. *Elsa Scheelen* argitaratzeak lanak eman zizkien Arestiri eta Euskaltzaindiari. Ezin politikaz mintza.

Kezka metafisiko horiek benetakoak al ziren? Horrela bizi al zenituen?

Garai horretan asko irakurtzen nuen. Ezin nezake esan metafisikaz asko irakurtzen nuenik. Kieerkegard edo Sartreren obra filosofikoa ez nuen ezagutzen, ez genuen ezagutzen, baina obra horien aurpegi literarioa ezagutzen zen gure artean, existentzialismoaren alderdi literarioa alegia. *Leturia* eta *Leartzako* kezka horien fruitu izan ziren.

Zuk ba al zenuen zerbait berria egiten ari zinen kontzientziarik?

Kezka horiei buruz euskaraz idaztea zen berria. Bestela ez zuten nire liburuok inolako originaltasunik. Kontuan izan Gabriel Aresti dagoeneko lanean ari zela. Ni baino hiru urte gazteagoa zen eta guztiz beste sentsibilitate batekoa. Hark kezka sozialak isladatzen zituen bere poemetan eta nik kezka filosofikoak. Alde horretatik ginen berriak. Ordura arteko gure literatura nolabait folklorikoa baitzen. Orixeren *Euskaldunak*-en agertzen den Euskal Herria ez baita benetakoa, folklorikoa baizik. Alde horretatik aro bat inauguratu genuen euskal literaturan.

Mitxelenak aipatu zuen Leturia-k Lizardiren Urte-gi-roak liburuarekin zuen antz formalak. Antza azalekoa soilik dela diozu zuk. Baina zure nobela ikuspuntu kaletar batetik idazten baduzu ere, natura erabat presente dago

errelatoan zehar. Lehen kapituluan bertan udaberriaren ederraz ari zara eta "Gizonak bere begien aurrean belar izpi bat duelarik, gogaitua dagoela esan al dezake?", galdegiten duzu.

Ni betidanik izan naiz naturazale eta aspaldikoa da naturan bizitzeko nuen ametsa. Bestela ez nintzatekeen orain bizi naizen baserrian biziko. Hala ere, garai hartako nire lagun askoren kontrara ez naiz izan mendizalea. Mendian paseatzea gustatu zait, baina gailurrak egiteak ez dit buruko minik eman. Egiteko ere ez naizela gai uste dut gainera. Neure inguruan Errotarrak, Antton Ibarguren bera eta beste hainbat mendizale ezagutu ditut. Baina nik kirola gazte denboran bakarrik egin dut eta txarra nintzela aitortu behar dut. Bizikletan ibili ohi ginen eta nire errekorra Orioraino edo Hondarribira joatea izaten zen.

Naturarekin harremanetan bizitzea aberasgarri iruditu zait ordea beti, eta oso pozik nago bizi naizen lekuan bizi naizelako. Baina orain ere ez naiz mendian asko ibiltzen. Zakurrak paseatzera eramaten ditut beheko errekaraino eta inguruko mendi-kaskoetara joan izan naiz, baina gutxitan. Urteetan Arantzazun egin ohi nuen boladatxo bat eta Urbiara joan ohi nintzen. Besterik ez.

Leturia idatzi zenuelarik, ba al zenuen literaturgile izateko ametsik?

Nik uste dut literatura beti gauza marjinal gisa hartu dudala neure egitekoen artean. Rikardo Arregik aspaldi hartan artikulua bat argitaratu zuen euskal idazleen "marjinalismoaz" eta ni erabat konforme nengoen. Gaur ere, Izagirre, Atxaga eta besteren bat kenduta, beste guztiek egiteko marjinal gisa hartzen dutela uste dut. Niretzat literatura gustatu zaidan gauza bat izan da, baina ez diot den-

borarik eman. Barne deiaz, uste dut, hizkuntzalaria izan nintekeen, agian. Baina gaztetandik hasi banintz. Edo pianista, ausaz. Literaturgile ote? Gutxiago. Errealitatean mugitzea nahiago.

Bakardadeaz mintzatzen zara egunkariaren hasieran eta "nire buruarekiko kontuak garbitzeko joaten naiz bakardadera eta egiazko aitorketa da bakardadean egiten dudan egonaldia", esaten duzu. Geroxeago, berriz, "egunkari hau izango da nire kezka guztien kutxa". Zer eratako bakardadeak ezagutu dituzu?

Bakardade mota asko daude. Nik hemen bakardade poetikoaren bilaketa aipatzen dut, garai horretan Marcel Proust irakurri nuelako beharbada. Bakardade horren bila etorri nintzen Amasara ere. Baina horrek ez du zerikusirik beste bakardade batzuekin. Eta nik ere ezagutu ditut bakardade gogorrak, bakardade politikoa, esate baterako. Edo bakardade metafisikoa: Unamunok ezagututakoa.

Zahartzaroak gogorrago egiten al du bakardadea?

Emazteak eta biok komentatu izan ohi dugu hori. Ia astero etortzen dira seme-alabak bisita egitera. Familiarekiko kontaktu hori oso inportantea da guretzat. Baina adin batetik aurrera ohartzen zara, nolabait ez dutela zure beharrik, etorri eta joan egiten direla. Hark esaten zuena: "La vie s'en va, madame". Eta erantzuna: "Pas la vie, mais nous nous en allons"...

Adiskideek zer leku okupatzen dute zure bizitzan?

Borroka politikoan pasatu dugu bizitza osoa eta horrek erabat markatu ditu nire adiskideak. Oso zaila egiten zait gaur nire gisako interesak ez dituzten adiskideekin

neure burua imajinatzea. Baina aldi berean pentsatu ohi dut ditudan adiskideak gogaide gehiago direla beharbada adiskide baino, bi gauza oso desberdin baitira. Hala ere, kontuan izan behar da 16 urte kanpoan egin ditudala eta baldintza horietan oso zail egiten dela adiskideekin harreman normalizatuei eustea. Gaztetako adiskideak, koadrilakoak, galdu egin ditut eta gero atzerrian egin nituenak ez ziren oso sakonak izan. Egia da, lagun zaharren falta sumatu izan dut. Garrantzizkoa dela uste dut tarteka bildu eta txorakeriak esaten egotea ere. Garai batean Ondargain soziedadean bildu ohi nintzen zenbait adiskiderekin. Baina, beste egiteko asko esku artean eta uzten joan naiz. Politikan eta unibertsitatean ditudan adiskide edo gogaideekin mantentzen ditut eguneroko harremanak. Baina ez dut soziedaderik edo bestelako lagunarterik.

Gainera, jendea bakarrik bizi da, gero edo bakarrago. Nire edadeko jendea batez ere.

Zer leku du sexuak zahartzean?

Inoiz irakurri dut Belgikako Balduino erregearen aitak 67 urterekin bizi izan zuela maitasun bolkaniko horietako bat eta, kontatzen dutenez, ez omen zuen maitasun horrek bere bizitza bakarrik aldatu, izaera ere aldatu egin omen zion. Ni adin horretan nago eta ez dut galdu erabat esperantza. Baina benetan nik gaur ez dut neure burua horrela ikusten. Eta, nolana ere, ez dut ezer kontatuko. Maitasun kontuak ez dira plazarako. Pribatuak dira berez.

Ez al diozu beldurrik bakardadeari?

Zaharrago eta garbiago dut bakardadea oso gauza txarra dela, baina ez dakit zer soluzio duen arazo horrek. Nik nire biografiari botatzen diot errua. Esan dudana bezala,

norbaitekin intimatzekeo abertzale eta euskaldun batekin behar du, bestela oso zail egiten zait. Orain ditudan adiskide gehienak unibertsitatekoak dira. Baina, esaten dizut, lagun zaharrik apenas dudan eta hori nire akats handi bat dela kontsideratzen dut.

Orain dela egun batzuk anaia hil zaizu. Heriotzak lekurik ba al du zure kezken artean?

Egia da. Anaia ni baino gazteagoa zen eta urtebete pasatu du ohean inolako esperantzarik gabe. Nik astero egiten nion bisita eta horrek bultzatzen zaitu heriotzari buruz pentsatzera. Baina, egia esan behar badut, ez diot nik gaiari buelta gehiegirik ematen. Fatalitate handi batez ikusten dut heriotza. Badakit egunen batean etorriko dela eta kito! Emazteari esaten diot behingoz testamentua ere egin beharko dugula, oraindik ezer egin gabe bainago.

Ez al duzu erabakirik hiletak non eta nola egin, lurrean ehortz zaitzaten nahi duzun edo intzineratzea?

Ez. Ez dut gauza horietan pentsatu. Beharbada arbuio modu bat izan daiteke, heriotza hor dagoela ahazteko modu bat, baina ez dut gauza horietan pentsatu. Hori bai, hiltzeko moduak eta moduak daude eta horretan nire anaiak lezio bat eman digula pentsatzen dut, urtebetez egon baita ohean mugitu gabe heriotzaren zain eta estoizismo ikusgarriaz eraman baitu gaitza, inoiz ere kexatu gabe. Niretzat harrigarria izan da eta, esan dudan bezala, irakaspen ederra eman dit. Barrutik nik ez dakit nola eraman duen prozesua, baina kanpora ez da kexu hitzik atera haren ahotik.

Beharbada fedeak asko lagundu dio trantze horretan. Apaiz bat ere inguruan ibili du urtebete horretan zehar eta lagundu egingo ziola pentsatzen dut.

Ni neu agnostikoa naiz. Egia da frankismoaren garai-ko seme naizela, heziketa katolikoa jaso duena, baina ni ez naiz inoiz militante katolikoa izan, ez naiz Acción Católica eta horrelakoetan ibili. *Leturia* idatzi nuenean, oraindik kristau existentzialistatzat nuen neure burua. Unamunoren bidez egin nuen batez ere existentzialismo-rako bidea, eta segidan, ezari-ezarian, agnostizismora jo nuen. Eta, esan dut, ez nukeela beharbada nire anaiarena bezalako heriotza bat hain ondo eramango.

Zer harreman izan duzu bizitzan zehar anaia horrekin?

Biok estremoak izan gara. Ni abertzale bezain espainola izan da bera, eta oso eskuindarra. Txikitandik izan gara ezberdinak. Baina, hala ere, txikitan elkarrekin bizitakoa geratzen da, nahiz geroztik elkarrengandik oso urrun ibili. Pentsatu behar duzu oso berandu arte gela berean lo egiten genuela eta gauza asko konpartitu genuela elkarrekin adin horretan. Gerora, ordea, urrundu egin ginen. Gaixotu zelarik, bion arteko tarte hori gutxitu egin zen. Hiru aldiz operatu zuten. Orain dela lau urte giltzur-dina kendu zioten eta ondoren birika bat. Minbizia, ordea, berritu egin zitzaion eta, esan dudan bezala, urtebete osoa egin du ohean, Kanboko ospital batean denboraldi luze bat eta azkenik etxean. Bere seme-alabekin ere ez dut nik bizitzan zehar harreman handirik izan, baina azken urte honetan askoz ere harreman estuagoa izan dut.

Zure Leturiaren egunkari ezkutua-ren lehen edizioan anaiaren marrazkiak erabili zenituen apaingarri gisa.

Bai. Familian, Alvareztarren aldetik beti egon da arte plastikoetarako joera. Anaiari Arte Ederrak eta litografia ikastea tokatu zitzaion eta bi urte egin zituen Parisko Collège d'Estienne delakoan. Ni Ferrolen *Leturia* idazten ari nintzenean, bera Parisen zegoen ikasten eta nik egunkarian erabiltzen nituen Parisko parke eta paisaje batzuk eskatu nizkion. Enkarguz egindako lanak izan ziren, beraz.

Ba al zenuen zeuk garai hartan egunkariak idazteko ohiturarik?

Garai hartan moda ere bazegoen. Edadeagatik batetik eta frankismo garaian modan ere egon zelako, bestetik. Nik sei edo zortzi egunkari idatzi nituen, benetako egunkariak alegia, 20 urtetik 23 bitartean. Uste dut egoerari buruz pentsatzeko modu bat zela hori.

Geroztik erabili al duzu zeure literatur lanak egiteko apunte koadernorik edo?

Ez. Ez dut ohiturarik izan. Nobela idatzi aurretik ahalik eta eskema zehatzenak egiten nituen, kapituluz kapitululu, baina ez dut inoiz ideiak apuntatzeko koadernorik erabiltzen. Paper-puskaren bat agian, tarrapatata.

Literaturara itzuliz, zenbateraino dira kontatzen dituzun historiak bizitakoak?

Leturia-n agertzen diren pertsonaiak ez dira noski hezurmamizkoak, baina pertsonaia guztiek izaten dute errealetik zerbait. Miren, esate baterako, ez da pertsonaia erreala, baina nik Ferrolen ezagutu nuen neska batengan

inspiratutako pertsonaia da. Oso neska ederra zen, nik talemalez ia traturik batere izan ez banuen ere. Baina irudi erreál horiek erabili nituen idazteko orduan.

Gauza bera esan dezaket paisaiari buruz. Egunkari horretan agertzen diren parkeak ez dira benetakoak, baina ni oso parkezalea izan naiz. Ordu asko pasatzen nituen gaztea nintzela, esate baterako, Kristina-enean edo Ferrolgo parketxoan. Bizikletan joaten nintzen hara irakurtzera eta paseatzera, eta oroitzapen erreál horiek erabiliko nituen seguru asko gero idazterakoan.

1959an eman zenuen argitara Peru Leartzako. Handik 19 urtera bigarren ediziorako idatzi zenuen hitzaurrean bizitzaren zama astunaz mintzatu zinen. Zer da zure bigarren nobela honen gogoetagai nagusia?

Bigarren edizioari egindako hitzaurrean esplikatu nuen Peru Leartzakoren patua. “Egunotan hitzaurre hau egin behar niola eta jarraitu ditut zoritxarreko Peru anaia honen pasadizoak Zuntzarriko kale hits eta kabaret hitsagoetan —nioen hitzaurrean—. Irribarez letu ditut Bego gorputz ederraren eta Monique begi tristearen gorabeherak. Eta, harriturik (ez bainintzen oroitzen) gure Peru hau jendez inguraturik ere, emakume apartek maitaturik ere, musika eta dantza-lekuetan mugiturik ere, harreman sendorik eta egiazko sentimendurik ezin lorturik aurkitu dut, eta aberats samaturik ere, bere bizitzaren zama astuna eramán ezinik. Bere gain darama Peru honek bizi beharrraren tristura etsia”.

Dirurik ez, lan aspergarriaren hutsa, lantegietako ziztrinkeri giro kiratsa eta sexu-harreman soilen hoztasuna hemen agertzen zaizkigu.

Baina Peruri gertatzen zaizkion pasadizo koloregabe guztien buruan, eta bakardade guztien muinean, gero eta garbiago agertzen zaio pertsonaiari giza kezka nagusia: zertarako hau guztia? Zergatik ez heriotza desiratuko?

Hasiera batean dirurik ezari egozten zion atsekabe giroa, baina gero ohartzen da diru-arazoez ezkutatu eta desbideratu besterik ez zutela egiten gizonaren egiazko larri-dura.

Eta argi bila etsian budismoarekin egin du topo. Eroztat hartu dute, ordea, besteek eta eroetxera eramango.

Peruren kezka nagusietan (bai Xabier adiskide minaren heriotzaren ondoan, bai bestetan), *Leturia*-n, *Elsa*-n, *Haizeaz*-en aurkitzen diren deiadar berberak eta antzeko oihartzunak aurki daitezke: “Denboratasuna hotsean dazta... isilak geldiarazi egiten du denboraren ihesa...” Eta abar eta abar.

Zentsura-giro betean argitaraturik, nekez bil dezake irakurleak Euskal Herriko egoerari datxekion ezer liburuan. Baina, materialismo prometeikoaren lurjotzea agerian dagoelarik, Peruk azaltzen digun budismoarekiko tentaldia ez zen artifizia, eta gaur ere, hain modan ez izanik ere, ez da. Horiek dira nik, nobelaren mamia hitz laburretara bildu nahirik, aipatzen nituen ideiak.

Bigarren nobela honetan ere bihotzaren ikara, arimaren larri-mina, gaurko gizonaren barne-urduritasuna agertzen direla esango nuke.

Zanpatuta zeukan Leturia aurreko nobelan aukeratu-beharraren larritasunak. Bide bat hautatu arte etsita dabil Leturia, eta aukeratu eta gero ere etsiago. Gidari dituen absolutuak ez baitzaizkio sasi-absolutuak baizik. Alferrik da dena, ezin dugu ezer absoluturik aurkitu. Camusek dioen bezala, guk ezin ditugu aukeratu problemak, haiek

aukeratzen gaituzte gu. Eman dezagun ontzat aukeratuak izatea. Hori da, laburbildurik, nobelaren mamia.

Askorentzat sorpresa bat izango da ekialdeko ideiek nobela honetan duten eragina. Nola esplikatzten da eragin hori?

Lehengo nobelan larri-minaren iturburua aukeratu beharra baldin bazen, oraingoan igarokortasunak erdibitzen dio bihotza nobelako protagonistari.

Lan egin beharra sasi-kezka da. Dena doa, dena iraungitzen da, dena ahazten. Denak dakar gerora tristura eta dolorea. Horra liburuaren gakoa.

Baina sentimendu horri beste batzuk eransten zaizkio: gure nortasunarena lehenik eta behin. Benetakoa al da gure nitasuna?

Uste hori bera agertu zuen Santamariak ere 1960ko otsailean artikuluan batean: “Eta ametsetan bezala, harrigarririk ikusten du nork bere burua gaurko gizonak, bikoitza bailitzan, gogoz eta ganoraz aztertzen du, gauza harrigarririk egiten eta esaten dituelarik. Nire kontzientziaren ispiluan agertzen den izaki hori “nor” ote den ere galdetzen diot neure buruari; nirekin zerikusirik ote duenez: ez ote den ausaz bere buruari axolarik batere ez zaion ikutu ezinezko mamutzar bat”.

Bide horretatik abiatzen da Leartzako eta, egia da, berehala ukitzen dute ekialdeko ideiek. Ekialdeko ideiak giroan zeudelako beharbada.

Aita Taysmann jesuitak existentzialismoaren eta budismoaren arteko gora-beherak xehetasunez aztertu ondoren, halaxe zioen bere lan batean: “Joera bizia dago Europan budismoaren alde, eta ziorik sakonena hauxe da: antz

harrigarria dutela Budaren joerak eta gaurko pentsaera batzuek”.

Aita Danielouren aditzea handia izan zen urte horietan katoliko progresisten artean. Gutxik dakite ordea anai bat budista zuela eta kargudun gainera erlijio horretan.

Julien Green nobelari famatuak ere sekulako lilura sentitu zuen budismoarekiko. Materialismoaren nazka sentitzen duten guztiek pozik agurtzen dute India.

Leartzak joera zabal hori nortzen du bere buruan, Europako kutsua eta gogoia bere bihotzetik behin ere erauzten ez baditu ere. Budismoaren tentaldia sumatzen du, baina bide erdian geratzen da eta etsipen osoan.

Zer harreman dago Sartrearen eta budismoaren artean?

Esan litekeela uste dut Sartre neobudista bat zela. Existentziari buruzko kezka edo heriotzari buruzkoa budismoak aspaldi landu zituenak dira.

Denborari buruzko kezka, igarokortasunarena gaztetasunari lotua dagoela esan ohi da. Alegia, gauza asko egiteko dagoelako-edo, denboraren angustia hori gaztetan gehiago sentitzen dela.

Ez dut uste gaztetako kontua denik. Kezka metafisikoa da eta hori ez da adin kontua izaten. Gerta daiteke denborarekin etsitzea ere. Alegia, gizonak adin batekin bere patua onartzea. Gaztetan, noski, erreboltarako askoz ere indar gehiago izaten da eta giza patu horren kontra egiteko ere indar gehiago dugu gaztetan.

Noiz izan zenuen zuk lehenbiziko aldiz zahartzen ari zinen kontzientzia?

Ez dut uste bat-batean izan nuenik. Nik harremanen murrizketan uste dut gehienik nabaritu nuela. Gaztetan harremanak ugalduz joaten dira. Beste adin batean eutsi egiten zaie eta gero murrizten hasten dira. Horren kontzientzia izan dut adin batetik aurrera.

Hegoaldera itzuli eta EUTGn lanean hasi nintzelarik, esate baterako, egunero fakultatera joan behar izaten nuen eta oso harreman errazak nituen jendearekin. Egia da horretan beste faktore asko ere sartzen direla jokoan. Taldea

homogenoagoa zen. Tabernara joan eta denok elkarrekin hitz egiten genuen.

Orain Ibaetako fakultatean beste giro bat dago. Bakoitzak bere taldetxea du eta maiz ez diogu elkarri hitz egiten. Politikak banatu du jendea. Baina, nire kasuan adin kontua ere badela sumatzen dut. Jendeak zuka edo usted-ka hitz egitean... malo!

Ba al dago zahar ederrik?

Objetibitate guztiarekin hitz eginda, emakume gazteak fisikoki ederragoak dira. Horrek ez du bueltarik. Grezia klasikoan ere emakume nahiz gizonezko gazteak zituzten beti edertasunaren eredu. Gereziak ere San Juanetan arbolatik hartu eta jaten direnak dira gozoenak. Freskotasuna eta gaztetasuna balore objetiboak dira. Horrek ez du esan nahi, ordea, zahartzaroan edertasun guztia galtzen denik. Lincoln presidente amerikarrak uste dut esan zuela behin pertsona bat 40 urtetik aurrera dela bere aurpegiaren arduradun, bere bizitza alegia aurpegian islatzen zaiola. Eta benetan badaude izugarrizko espresibitatea duten zaharren aurpegiak. Horregatik esaten da batzuetan halako edo holako aktore interesanteagoa dela zahartu eta gero gaztetan baino. Interessanteago agian; baina ederrago ez.

Ba al duzu gauzarik inportanteenak bukatu dituzun sentimendua?

Anaia hil zenetik, ni baino gazteagoa zelako edo, hemendik aurrerakoa bizitzak egiten didan erregalo bat ote den sentipena badut, baina bestalde gauza asko ditut oraindik egiteko. Idatzi, esate baterako. XIX. mendean kokatutako nobela historiko bat egin nahi nuke, Pio Baroja gidari harturik.

Horrez gain-edo, zer?

Bueno, egun hauetan eman dit Egin egunkariko promozio departamenduak euskara batuaren prozesuari buruzko lantxo bat egiteko enkargua. Lan orokor bat da, lan laburra. Horrelako lanak pozik egiten ditut.

Bestalde, *Euskal Herria helburu* liburuaren jarraipena idatz dezadan ere ari zaizkit lagun batzuk eskean eta horretan duda handiagoak ditut, uste baitut inori ez zaiola interesatzen garai horretako kontuak berritzea. ESBn sartu eta bota ninduten garaiaz ari naiz. Nori axola?

Konta iezaguzu labur zure bizitzako pasarte hori.

1977an itzuli nintzen ni Hegoaldera eta ideologi aldetik ez nengoen batere ados ezker abertzalean indarrean zeuden korronte nagusienekin, marxismo-leninismoa hirugarren munduko irtenbidea iruditzen baitzitzaidan. Iñaki Aldekoarekin bildu nintzen eta animatu ninduen ESBn sartzera. Hauek kontu zaharrak dira. Benetan.

Ados nentorren partidu horren ideario nagusiarekin, baina baldintza batzuk jarri nituen. Oso garbi nuen alderdi politikoak euskaldundu egin behar zirela, bestela jai genuela eta estatutuetan bi urteko epea jarri genuen zuzendaritzan zeudenak euskaldun zitezen edo zuzendaritza hori euskaldunen eskuetan utz zezaten.

Baina alderdiek botoekin amets egiten dute eta euskarak ez du nonbait botorik ematen. Euskara traba bat da alderdi politikoentzat eta Arzalluz batek, esate baterako, aspaldi likidatuko zuen euskararen auzia, baldin herritar askoren aldetik presiorik egongo ez balitz.

ESBn ere gisa horretan ikusten ziren gauzak. Ez zuten alderdia euskalduntzeko asmo erabatekorik eta gu kon-

tuak eskatzen hasi ginelarik, erantzuna izugarri gogorra izan zen, alderdia zatitzen ari ginela eta 80an bota egin gintuzten.

Horrela sortu zen EHE. Mugimendu berri honen hasieran ibili ginen batzuk, Xabier Pikabea, Kepa Mendia eta beste zenbait, ESBtik pasatako jendea ginen. Berriro ere: euskara nire eragile nagusi.

Atzerriko mugimenduren batean inspiratu al zineten Euskal Herrian Euskaraz antolatzeko?

Ez. Alderdien dinamika elektoralak euskararen aldeko lana frenatu egiten zuela ikusi genuen eta alderdi edo ideologia desberdinetako jendea bildu ginen EHEN. Mugimendu honek lan handia egin zezakeela uste dut, baldin eta bere baitan betikoa, kontrolatu nahiaren borroka, sortu ez balitz.

ETA momentu horretan negoziazioen esperantzan zebilen eta inolako arraildurarik ez zuen nahi bere mugimenduan. EHE alde horretatik kaltegarri suerta zekiokela ikusi zuten nonbait eta ASK-ko jendea (KASen adar kulturalakoak) hasi ziren EHE kontrolatu nahian. Askok hori ukatu egingo dute, baina nik lepoa jarriko nuke horrelaxe izan zela.

Operazio horren ondorioz EHEk bere autonomia galdu zuen.

Badakizu zer jarrera izan dudan nik beti, orain ere daukadan berbera, ETARI buruz, baina horretan behintzat erabat kontra nengoen. Kultura mailan lan egiteko uste dut ez dagoela autonomia handi batekin jokatzeko beste erremediorik, kultur mugimenduek zenbat eta pluralistago orduan eta indar handiagoa hartzen baitute, nahiz eta

soziologikogi euskaltzaleen gune nagusia eta oinarri soziologikoa ezker abertzaleak duen.

Garai horretako memoriak edo idatzi behar banitu, bronka eta istiluen kronika bat egin beharko nuke eta ez dut gogorik. Eta gainera, inpresioa dut garai horretako kronika gaur ez zaiola inori interesatzen.

Zuk batzuetan intransijente eta gogor itxurak agertzen dituzu. Horrelakoa al zara izaeraz ere.

Ni batzuetan gogorra naiz ideietan bai, baina erabat biguna naiz izaeraz, umeezin, esate baterako, eta biguna naiz baita ere pertsonalki jendearekin tratuan. Estalinismoaz ahaztea, zorakeria iruditzen zait; intelektual batek onar ezin dezakeen arinkeria. Horrelako puntuetan beti izan naiz gogorra. Egia egia da, moda izan ala ez

Beste mila akats ditut, jakina baina hori behintzat ez dut. Ez naiz bizi modaren morroi eta ideiei, eutsi behar bazaie, eutsi egiten diet. Honetan guztiz urruti nago “sordo”engandik.

Zer harreman duzu gazteekin, fakultatean bereziki?

Beste mundu bat direla pentsatzen dut. Guk gazte denboran bizi izan genituen baldintzak eta gaurko gazteenak erabat desberdinak dira eta zail dela uste dut bi belau-naldi hain urrunen arteko harreman sakonik

Nire esperientziak gaurko gazteei bost axola zaizkiela pentsatzen dut.

Baina zuk beti izan dituzu zure inguruan “txillardegizaleak”. Orain ez al dizutu sumatzen?

Joan Mari Torrealdai orain dela 20 urte egin zuen *Euskal idazleak gaur* liburuan inkesta bat bildu zuen eta

han ni agertzen nintzen idazle “maitatuena” edo “mires-
tuena” edo “ezagunena”, ez nuke zehazten jakingo. Gaur
inkesta bera egingo balu, gazte jendeak behinik behin ez
ninduke txapeldun hautatuko. Ziur.

Axola al dizu zerbait hilezkortasunak?

Kezka hori gizatarra dela uste dut, baina bestalde era-
bat komikoa ere bada gure kezka hori.

Begira. Nik bolada luze batean Andromedaren argaz-
ki handi bat izan nuen neure gelako horman zintzilik. Tar-
teka oraindik ere prismatikoak hartu eta oso gau garbia
denean saiatu ohi naiz Andromeda Kasiopea aldean aur-
kitzen. Gure begientzat lainoxka bat baizik ez da, baina bi
milioi urte behar ditu argiak handik hona iristeko. Gure
Esne Bidearen ahizpa bizkia da, 200.000 milioi izarrek
osatua da eta izar pilo hori hor bertan, auzoan, dagoen ga-
laxia bat baizik ez da, beste milaka galaxia daude unibert-
tsoan. Magnitude horietan pentsatzen jarrita, mingarria da
gure harrotasunarentzat, baina ez gara ezer eta gure hilez-
kortasuna kezka komikoa da benetan.

Kalifornian geundenean, behin baino gehiagotan joan
nintzen Hollywoodeko obserbatoriora Andolin Eguzki-
tzarekin bertako teleskopioaz izarrak ikustera eta UEUn
ere egin izan ditugu horrelako saioak Joxerra Etxebarria-
rekin. Tarteka oso ona da gora begira egotea. Unibertsoa-
ren neurriei begira ikasten dugu gizonok zer garen. Ho-
rren aurrean, min ematen du, baina errazago onartzen da
heriotza bera ere. Hilezkortasunari buruzko kezka erlijio-
ak sortu dizkigun ilusioetatik etorri zaigu neurri handi ba-
tean.

Beraz, zure ustetan, astronomiak kordokan jartzen ditu fedearen oinarriak.

Ez dut hori esaten. Astronomiatik nik gauza bat ondorioztatzen dut: ez dakigula ezer, ez dugula unibertsoa ezagutzen. Apaltasuna da ateratzen dudan ondorio bakarra. Beste guztia harrokeria hutsa iruditzen zait. Nik ez dut federik. Ez dakit, agnostikoa naiz eta kito.

Zuk gai honetaz idatzi zenuen hain zuzen zure lehen ipuina, gero Kosmodromo izeneko bildumatxoan argitara zen izen horretako ipuina.

Gogoratzen naizen neurrian, izen horretako ipuinarekin Armstrong astronautak ilargia zapaldu ondoren sortu zen baikortasun inozo hura salatu nahi izan nuen. Ironia pixka batekin esperantza alfer haiek salatu nahi izan nituen, gauza bat baita Ilargira edo Martera joatea eta beste bat, erabat desberdina, unibertsoa ezagutzea, eta beste galaxietara joatea.

Kosmodromo ipuin-bilduma aipatu dugunez, aipatu ditzagun beste zenbait izenburu. "Orangutanen ugartean" gizonaren aberetasuna azpimarratzen duzu.

Gizakiaren gizatasuna azal mehe bat baizik ez dela erakutsi nahi izan nuen aspaldiko ipuin horretan. Ikusten denez, kezka zientifikoak nituen, ipuin hori 57an idatzia baita. Joxe Azurmendiren *Gizona abere hutsa da* kezka antzekoetan funtsatzen da.

Badago bilduma horretan beste ipuin bat, dirudienez, Valere Depauw flandriarrak liburu baterako eskatu zizuna.

Valere Depauw flandriar abertzalea zen, nik Bruselara joan nintzelarik tratatua, Ipar Euskal Herrian lehenagotik

ezagutzen banuen ere. Harreman estua izan genuen bera-
rekin eta *Branka* aldizkaria argitara ematea erabaki ge-
nuelarik, beregana jo nuen, arduradun legal bat behar ge-
nuelako. Zuzendari gisa, Argentinan zegoen Mikel Ezke-
rro laguna jarri genuen, eta arduradun legaltzat flandriar
hori, Polizia despistatzeko edo. Depauw honek oso kaxa-
-liburu bitxia argitara zuen, Europako lau herrialdetako
idazle banaren ipuinak bilduz. Egurrezko azala zuen, ka-
xa batek bezala, eta barruan lau leku edo gunetxo desber-
din zituen eta bakoitzean ipuin bana. Galesko Kate Ro-
berts, Britainiako Roparz Hemon, Depauw bera Flandria-
tik eta ni neu izan ginen liburu bitxi horretan partaide.
Nederlanderaz atera zuen lehen edizioa. Gero bakoitza-
ren jatorrizko hizkuntzaz beste hiru edizio egiteko asmo-
ak zituen, baina ez zuen dirurik lortu. Nik etxean dudan
edizio hau nederlanderazkoa da.

*Ipuin horretan euskarari buruzko kezkak agertzen ze-
nituen.*

“Piarres gaixoaren pasadizuak” izeneko ipuin hori no-
la bururatu zitzaidan gogoratzen naiz. Nik orduan eta
orain ere euskarari buruz ditudan kezkak adierazten ditu.
Baionan bizi nintzelarik maiz joaten nintzen Milafrangara
paseatzera Errobiren ertzetik; bidean zegoen Villa Tha-
dée, geroko urteetan Battitta Larzabal eta Klaudio Harlu-
xet bizi izan ziren etxea. Maiz Milafrangatik Baionako
azokara zetozen euskaldunekin topo egiten nuen eta elka-
rren artean euskaraz mintzatuz etortzen ziren, noski.
Baionak euskara oso bertan zuela erakusten zidan horrek
eta hortik ipuina.

Depauw-ek ETari buruzko nobela bat ere eman omen zuen argitara Aita Dominique Pire Nobel sariaren hitzaurre batekin.

Operazioa Gernikan edo horrelako izenbururen bat zuen. Ez naiz oso ondo gogoratzen nobela horren tramaz, baina bere oihartzuna izan zuen eta garai hartan gure borroka ezagutarazteko egiten zen edozein ahalegin eskeretzekoa izaten zen. Nederlanderaz *Opdracht in Gernika* zeritzon.

Pasa gaitezen Elsa Scheelen nobelara. Noiz eta nola idatzi zenuen?

Scheelen izenak berak adierazten duenez, Belgikan, Waterloo-ko “Butte” famatuaren ondoan bizi nintzelarik idatzi nuen sei bat hilabetetan, 1967ko udan eta udazkenean.

Gogoratzen naiz haurrak eta emaztea Donostiara jaitsi zirela eta bakarrik geratu nintzela etxean. Ez dut uste bakarrik egon nintzen denboraldi luze hartan etxea garbitu edo harrikoa behin ere egin nuenik. Horretaz gogoratzen naiz. Arraskan plater guztiak pilaturik nituen eta behar nuen bakoitzean plater zikina hartu eta garbitzen nuen. Bestalde, ni oso sukaldari eskasa naiz. Arrautzak edo xerrada bat frijitzen baizik ez dakit.

Gure “pavillon” edo villa txiki hori Joli Bois izeneko auzoaren ondoan zegoen. Hara joan ohi ginen igande arratsaldeetan hurrekin eta buelta bat ematera. Etxeko leihotik parke horretako lehoi famatua ikusten zen. Bruselatik 20 kilometro hegoalderantz dago Waterloo delako hori, eta hor idatzia da gehienbat *Elsa*.

Askotan aipatu dugu nobela hori idaztera bultzatu zintuena bakardade politikoaren sentimendua izan zela.

Utzi berria nuen ETA 1967ko apirilean, nahiz eta 1965ean Iparraldetik eta Frantziatik kanporatu nindutene-tik utzi samarrik nuen, ezinbestez, militante biziera.

Nolanahi ere nire bizitzako hamalau urte zail eta na-hasik osatutako bizialdia bukatzen zitzaidala ikusi nuen. Gaztaroa bera ere bai. Eta Waterloo-ko “Morne plaine” hartan, Euskal Herrira inoiz itzultzeko esperantza izpirik gabe, neure buruaz eta bihotzaz ernetako mugimendua utzirik, zinez ikusi nuen nire burua ukaturik, deserriratu-rik eta frakasaturik.

Eta bat-batean nobela bat idazteko gogoia piztu zitzai-dan. Ez ordea urte gogor haietako gorabeherak azaltzeko, gertakari haietaz nolabait ahaztu eta beste mundu batzuk asmatzeko baizik. Zer argitara nezakeen besterik?

Pasadizoak Belgikan eta Holandan gertaraziko nituen eta pertsonaiak ere belgikarrak izango ziren. Urrun nen-goen ni nire barne-giro ezkor hartan edonolako ikerkun-tza formaletatik. Eta ixtorio klasiko bat egin nuen. Bide-nabar esateko, horretaz erruz irakurri arren, ez dut “escoplo y lagra”ko literaturkeria horietan sinesten... “Escoplo y lagra” esamolde hori Unamunorengan ikasia dut.

Zein da, beraz, Elsa, zure nobelako protagonista na-gusia?

Neurri handi batean nirekin Belgikan lan egiten zuen emakume dibortziatu bat. Lan-harremana izan genuen. Bere bizitzako gorabeherak aipatu ohi zizkidan. Bolada zail bat pasatzen ari zela eta abar; eta nobela batean jar-tzeko moduko gauzak kontatu zizkidan. Nobela horretako bigarren pertsonaia ere, apaiz sekularizatua, nahikoa fi-

gura arrunta zen gure artean Belgikako garai hartan. Horrelako dozena erdi bat Lovainan bertan. Euskarazko klaseak ematera joan ohi nintzen unibertsitatean ikasle ari ziren euskaldunei. Alde horretatik ixtorio nahikoa errealak kontatu nituen liburuan eta deskribatzen ditudan paisajeak eta kokapenak ere erabat errealak dira: orduko Belgikakoak.

Gainera nobela konbentzional bat egin nahi izan nuen. Ni erabat asperturik nengoen moda guztiekin. Patri Urkizuk orduantxe idatzia zuen punturik eta komarik gabeko nobela bat. Nik ez nuen horrelako ezer egin nahi, eta ez gustoko ere. Barka.

Dena den, orrialde askotan suma daitezke Euskal Herrian ziren gatazka ideologikoen oihartzunak ere.

Abertzale ezkertiarren artean gori-gorian zeuden ideologi arazoak eta hizpide horiek ugari itzuri zitzaizkidan liburuko elkarrizketa eta ekintzetan. Ideologi betekada hura, areago zen Euskal Herriko landarea Belgikakoa baino. Horretan badago halako “anatopismo” bat nobela honetan.

Lehen aipatu dudan eliz krisialdia ere bizi-bizia zen Euskal Herrian 1967an, baina gauza bera lehenago gertatua zen Europan edo Belgikan. Derioko istilua 66koa da. Esaten dudanaren adierazgarri dira Rikardo Arregik argitaratzen zituen artikuluak edo Mikel Urkolaren “Sekularrak apaiztu” liburua. Eta gogoan izan zenbatek utzi zuen apaizgoa beste apostolutza batera dedikatzeko.

Zeharka edo zuzenean modan zegoen marxismoari egiten diozu eraso.

Marxismoa modan Euskal Herrian zegoen, ez kanpoan. Europako *intelligentsia*-ren moda orduan estruktura-

lismoa zen (Levi Strauss, Lacan eta Foucault), baina Euskal Herrian kapitalismo basatienarekin batera arkaismo bete eta itsuenean bizi ziren. Faxismoak ulermena kamus-turik nonbait, pentsamolderik zaharkituenak, absurdoenak eta muturkoienak geureganatu genituen.

Ideologiakeria horien kutsua ageri da dudarik gabe nobela honetan. Kapitalismoa gaitzesteko estalinismoa bedeinkatzea; gehiegizkoa zitzaidan (eta zait).

Euskaltzaindiaren saria irabazi zenuen.

Euskaltzaindiaren saria jaso zuen liburuak, baina segituan sumatu nuen adiskide batzuen bidez nobela ez zela gustatu. Batek “atzerako urratsa” aipatu zidan, beste batek berriz “nobelagintza berritik urrun nenbilela” eta beste batek, azkenik, kontatzaile “orojakilearen ikuspegitik” idaztea deskalabrua zela 1967an. Arestik, azkenik, poeta nintzela esan zidan eta ez nobelaria. Bidenabar esan behar dut Arestik asko lagundu zidala liburu hau argitaratzen. Berari esker atera zen beharbada. Franco bizirik zegoen artean.

Aipatu ditudan kritika ezkor horietako batzuk asko estimatzen nituen adiskideek egin zizkidaten, Mikel Lasak esate baterako. Eman zidaten jipoiaren ondoren, literatura uztea erabaki nuen. Eta hamaika urtean ez nuen ezer idatzi, *Haizeaz bestaldetik* idazten hasi nintzen arte.

Zer esan nahi izan zenuen nobela harekin?

Zeharka Euskal Herriko egoeraz esan nitzakeenak alde batera utzita, ez dago nobela honetan bigarren mailako irakurketarik. Nik ezagutzen nituen Belgikako herri eta parajeetan kokatutako ixtorio bat kontatzen dut eta ez dago besterik.

Zure azken nobela, berriz, Exkixu, 1988an kaleratu zenuen. Zer da nobela hori?

Nobela barojiano gisa definitu izan dut beti. ETAko militante arketipiko baten bizitza-edo kontatzen dut.

Haizeaz bestaldetik *idatzi zenuen Elsa-ren ondoren. Zure azken literatur lana izan zen bolada luze batean. Joxe Azurmendik "poema metafisiko" gisa definitu zuen.*

Berriro ere kritiko ofizialek sekulako jipioia eman zioten liburuari, baina *Elsa Scheelen*-ekin gertatu zen bezalaxe, Joxe Azurmendik defenditu zuen. *Elsa* argitara eman nuenean ere nire alde atera zen, esanez Alemanian gisa horretako nobela asko argitaratzen zela, Euskal Herrian modaren menpe bizi ginela eta abar. *Haizeaz bestaldetik* irakurri ondoren, oraindik ere sutsuago agertu zen nire alde.

Hitzaurrean esaten du, zure nobelagintza ez zela superatua geratu ondoren beste nobelagintza modu berriagoak etorri zirelako, mila arazotan nahasturik zure modua desarroilatu gabe utzi zenuelako baizik. Bere ustetan, Haizeaz bestaldetik da zure nobelagintzaren desarroiloa.

Ni neu ere oso harrিতuta geratu nintzen hitzaurre horretan Joxe Azurmendik esaten dituenak irakurrita. Berak, nik uste dut, nire nobela testuinguru batean kokatu zuela. Esaten zuen euskal nobela modernoa nik abiarazi nuela 56an *Leturia*-rekin, baina hura uhin bat izan zela. Gero ere etorri zirela uhinak, Saizarbitoria, esate baterako, eta nobela moderno bakarra ez zela Saizarbitoriarena eta horrelakoak. Baina horiek Joxe Azurmendiren iritziak dira. Nik neuk ez dakit ezer askorik horretaz.

Txillardegiren obra guztia Haizeaz bestaldetik honetan dagoela esaten du Joxe Azurmendik. Hemen ere ez dagoela pertsonaiarik, ez akziorik, espazioa irreal dela, denbora ere bai... Beraz, zure nobelagintzaren ezaugarri guztiak radikaldu egin dituzula nobela honetan, estremo-raino eraman, baina nobelagintzaren kontzepzio horren atzetik gizonaren eta existentziaren kontzepzioak daudela.

Kontzepzio hori, seguru asko, existentzialismoarena da, nik neurri handi batean neure egiten dudana. Gizona ez da ezer, kosmosaren aurrean bakarrik dago, ez du ize-nik, ez du presentziarik eta abar. Egia da, beharbada, Azurmendik dioena, gizonaren ikuspegi horrek baldintzatzen duela nobelagintza.

Beren izen eta deitura eta guzti zure nobeletan ez dago pertsonairik. Hori da askoren ustea. Pertsonaia topikoak direla alegia (Elsa Scheelen eta Exkixu salbu), mo-zorro hutsak, itxura emateko bakarrik balio dutenak, autorea bere gogora zerabiltzan txotxongiloak. Leturia-n benetako protagonista Leturiaren gogoetak ziren. Haizeaz bestaldetik nobelan konbentzio hori ere kendu egin da. Nobela honetako pertsonaia, Zarathustra berri hau, bere narrazioa da.

Nik beti esan dut *Haizeaz bestaldetik* parida handi bat dela. Baina aldi berean pentsatzen dut nire nobelarik sakonena eta sinbolistena ere badela. Agertzen dudan problematika *Leturia*-n agertzen nuen berbera da, erabat metafisikoa. Gizonak infinitoa, transzendentzia bilatzen du. Gertatzen dena da, nobela honetan beste modu batera agertzen ditudala kezka horiek.

Esplika al zenezake labur-labur zein den nobelaren haria?

Nobela honetako protagonista hil egiten da, baina berriro itzultzen da mundura eta bizi izan duen esperientzia horrekin trszendentziarik ez dagoela esaten du, ez dagoela Jainkorik, ez dagoela ezer.

Lehen bi zatietan monastegi batean dago protagonista eta hor erlijioaren kritika egiten du, beste mundurik ez dagoela esanez. Baina ez diote fraileek han ere kasurik egiten. Hurrengo zatian planteamendu ateista bat egiten du puntako teknologi gune batean. Orduan ohartzen da gizonak horrelako absolutuetan sinesteko beharra duela eta ikuspegi berri batekin hasten da bizitza berriro bizitzen.

Nobela honetan zer-nolako eraginak dituzula esango zenuke? Non inspiratu zinela?

Inon inspiratzekotan Nietzscheren *Zarathustra*-n dago inspiratuta nire nobela. Nahiago bada, haren kopia txar bat izan daiteke. Tramarik gabeko narrazioa da edo izatekotan ere bidaia bat Nietzcheren eskutik. Aforismo eta ideia jenialez beteta dago *Zarathustra*. Ni erabat liluratuta gertatu nintzen irakurri nuenean. Askok aipatu didate “Marxen zorabioa” sentitu dutela. Nik Marxen zorabiorik ez dut sentitu. Erlijio laiko baten bertsioa iruditu zait marxismoa. Baina Nietzsche poeta jenial eta ero samarra burua galtzeko adinakoa iruditu zait. Eta halaxe bukatu zuen berak, eroetxe batean. “*Zarathustra*-ren zorabioa” sentitu nuen, hori bai. Zorabio osoa.

Aipa ditzagun orain literaturatik kanpo egindako zure zenbait lan. Gogoratu dezagun besterik ez bada aspaldiko Huntaz eta hartaz hura, garaiko belaunaldian hainbeste eragina izan zuena eta nolabait zeure pentsamenduaren ibilbidea ere markatu zuena, hamar saiakera horietan agertzen diren gaiak behin eta berriz agertuko baitira ondoren zure lanetan zehar.

Filosofiaren muga dauden gai zientifiko zenbait, euskal toponimiako zenbait auzi, hizkuntzari buruzko lanak... egia da nire ondoko liburuetan agertuko diren gaiak hortxe hasi nintzela lantzen.

Horietako bat bai, zuk ondoren behin eta berriz jorratuko duzuna, toponimiarena da. "Biarno euskaldunaz" saikaera idatzi zenuen bilduma horretan. Ondoren, garai batean euskaldun izan ziren beste hainbat lurraldetako toponimia aztertu duzu. Nondik sortzen zaizu kezka hori?

Ez naiz oso zehazki gogoratzen. Krutwig-ek ere gisako lanak bazituen eta pentsatzen dut hark ere izango zuela eraginik.

Gogoratzen naiz Eskiula inoiz euskaldun izan zela jakiteak inpresio handia egin zidala, eta Aramitzen inoiz

pastorala jokatu izan zela ere bai, bi herriska horiek Biar-non baitaude gaur. Askoz geroago ezagutu ditut nik Joan Corominasen lanak. Etimologiaz izugarri dakien hizkuntzalari katalan honek Pirinioetako toponimia asko aztertu du eta X. mendean Lleidako Cerdanya-n euskal toponimia indartsu zegoela esaten du.

Zure Hizkuntza eta pentsakera da garai horretan eragin nabarmena izan zuen beste liburu bat.

Bai. Idatzi ere asmo praktiko batekin idatzi nuen. Garai hartako sasi-ezkertiarrek marrismo batean hizkuntza gainegiturako elementutzat hartzen zuten eta halako sasi-kosmopolitismo baten izenean, euskara baztertzen. Horiei erantzuteko idatzi nuen *Hizkuntza eta pentsakera*, urte haietan hizkuntzalaritzan indarrean zeuden estrukturalisten bidetik.

Egia da baita ere nire liburu horretatik askok ondorio gehiegizkoak atera zituztela eta exajeratu ere egin zutela, esanez hizkuntzak pentsamendua bera ere baldintzatzen duela. Hizkuntzak esperientziak antolatzekeko modu bat ematen du eta sentsibilitatea baldintzatzen. Hau adierazi nahi nuen.

Mitxelenak ez zuen gauza hauetan sinesten. Horrelako dilema baten aurrean Mitxelenak beti irizpide “neutroen” alde egin izan du, eta orduan ere, sasi-ezkertiar horien planteamenduen aurrean ez zuen ezer gogorrik esan. Aiseago mintzo zen abertzale gazte erradikalen kontra.

Nork bultzatu zintuen hizkuntzalaritzara?

Oso gaztetatik nuen nik hizkuntzalaritzarako joera. Krutwig-ek ere bai, eta hark nik baino informazio hobea zuenez, esaten zidan tarteka, Bruselan nintzelarik, zein

autore irakurri behar nuen. Whorf, Sapir eta beste zenbait hark esanda irakurri nituen. Baina Mitxelenaren lanak ere bai, dudarik gabe; batez ere Gipuzkoako Diputazioan eta Urkixo Mintegian harremana izan genuen urteetan.

Bidenabar, Euskara Batuaren bidean jendearentzat oinarritzko izan ziren lanak eman zenituen argitara, Oinarri bila esate baterako.

Mugimendu handi bat zetorren gorantz euskal kultura eta euskara mailan. Jendeak alfabetatzeko materiala behar zuen eta nik neure gisara aurkitutako azalpenak modu xehe eta erraz batez jarri eta eman nituen liburu horretan. "A" itsatsiaren auzia, deklinabide mailako zenbait korapilo eta gisa horretako kontu praktikoak. Ez zegoen han goi-mailako ikerkuntzarik; eta geroko liburuetan ere ez. Ongi dakit.

Noiz erabaki zenuen tesia euskal azentuaz egitea?

Parisen egina nuen Hizkuntzalaritza lizentzia eta Patxi Altunaren adiskidetasunari esker EUTGn euskal fonologiazko klaseak ematen hasi nintzelarik, idatzi nuen *Euskal fonologia*. Testuliburua da beraz hori. Hor ez dago inolako nire aportaziorik. Mitxelena, Lafon eta beste zenbait autoreren ondorioak biltzen nituen. Baina euskaraz ezer ez zegoelako idatzi nuen eta lotsagarri iruditzen zitzaidalako euskarari buruzko klaseak erdal testuekin ematea. Liburuan fonologia binarioaren ikuspegia erabili nuen. Lanak bi parte ditu. Alde batetik soinuen definizioa eta fonologia zer den esplikatzen da, eta bigarren zatian erregela fonologiko pilo bat ematen nuen. Gero ohartu nintzen beste batzuk liburutik kanpo ere geratu zirela. Sistematizazio lana zen. Ez besterik. Baina euskaraz.

Fonologia baino lehenago prestatu nuen *Euskal gramatika* ere, nolabait Euskara Batuari buruzko lan didaktiko hutsa momentuko arazo eta lorpenak 40 kapitulutan bilduz.

Tesia egitea erabaki nuelarik, Joan Mascaró, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea aukeratu nuen gidari eta honek azken bi lan horiek pixka bat sakondu eta aski nuela tesia gainditzeko esan zidan, baina nik neuk euskal azentuari buruz zerbait egiteko gogoaz azaldu nion eta horrela sartu nintzen istilu horretan, 50 urte beteak nituenean.

Zer zegoen euskal azentuari buruz?

Arazo zientifiko pilo bat, besterik ezer gutxi. Hala ere, nik neure tesia egin eta gero eman dira benetako saltoak euskal azentuari buruzko azterketetan. Nire ondotik etorri direnek, Gamindek eta Hualdek bereziki, metodologია aldetik sekulako abantailak izan dituzte, ordenagailuz egiten baitute gaur neurketa lana, nik dezimetroa baliatuz egiten nuen bitartean eta emaitza ikusgarriak lortu dituzte. Jauzi horiek neurri handi batean Gaminde eta Hualderi esker eman dira.

Zuk zeuk nongo azentua duzu? Ez duzu behintzat inolako antzik Donostiako beste zenbait euskaltzalek darabiltenarekin.

Horien azentua ez da donostiarra, gaztelaniarena baizik. Nik ez dakit nondik atera duten, baina erabat azentu espainola da, espainolean eskubitik hasita bigarren silaban jartzen baitute azentua ehun hitzetatik 80tan. Paroxitonia deitzen zaio horri eta partidu politiko bateko kideek darabilte. Beste muturrean badirudi euskal azentu jatorre-

na Bizkaiko kostaldean gordetzen dela, Gaminderen eta Hualderen lanek erakutsi dutenez.

Zuk zeuk, Hualdek bezalatsu, Ameriketari azentuari buruzko ikerketak.

Pedro Migel Etxenikerekin beti konpondu izan naiz ongi lagun bezala. Aspaldidanik ezagutzen genuen elkar eta Kultur sailburu zegoela egin genuen topo behin batean. Nik brometan aipatu nion urte sabatikoa hartu eta Ameriketari azentuari buruz ikerketa batzuk egiteko asmoa. Hori egin zegoela erantzun zidan eta berari esker lortu nuen urtebete hori Kalifornian pasatzeko beka. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan doktorego kurtsoak nola edo hala egin eta joan nintzen Kaliforniara. Joan Mascarók, tesia zuzendu zidan katedradunak, oso bertatik ezagutzen zuen M.T.T. unibertsitatea, gainera fonologiak asko zekien eta hori funtsezkoa zen azentuari buruz zer-bait egiteko. Esan izan denaren aurka, ez nuen hemendik “ihes” egin; baina egin zitzaizkidan (eta ez zitzaizkidan) aukeren arabera egin nuen neure hautua.

Zuk azterketa gehienak helburu praktiko batekin egin dituzu. Zer helburu zuen euskal azentuari buruzko lan horrek?

Euskal azentuaren inguruan sekulako saltsa zegoen. Inork ez zekien zeri heldu eta gauzak pixka bat argitu egin nahi nituen. Egia da Euskaltzaindian ezagutzen zirela zenbait ponentzia eta txosten auzi horren inguruan, baina ez zegoen azentu-ikerketa sistematizaturik.

Hala ere, lehen esan dudak bezala, nire ondoren eman da benetako jauzia alor honetan. Nire ondoren etorri da Jose Inazio Hualde, 15 urte Ameriketari ikasketak egiten

aritu den nafarra, azentu kontuetan mundu mailan punta-puntan dabilen ikertzailea. Gizon honek euskal azentu guztiak aztertu ditu eta Bizkaiko kostaldean aurkitu du azentu tonala; Europan bederen parerik gabekoa. Azentu hori japonieraren parekoa da oso; eta badirudi hauxe izan daitekeela arkaikoena.

Azentu tonal hau ez al zuen inork lehenago aztertu?

Azkiek aipatu zuen lehen aldiz *Euskara* aldizkarian argitara eman zuen lan batean, 30eko hamarkadan.

Askoz ere beranduago, 1971n edo, "Oskillaso" sinatzen zuen Basterretxeak Gernika inguruko azentua deskribatuz lan bat eman zuen argitara, azentu tonala zerabil-tela esanez. Gizon honek orain 25 bat urte edo argitara eman zuen lan hori profetikoa izan zen. Hala ere, Mitxelenak kontra egin zion eta inork ez zuen aurrera jo bide horretatik.

Gauzak horrela zeuden Jose Inazio Hualdek bere tesia ingelesez atera arte, eta baita artikulu modu bat euskaraz, esanez azentu tonal horrek ez zuela parerik inguruan eta izatekotan ere Japonian zeuzkala ahaideak.

Guztionez errebeldio handia izan zen. Hasieran kosta ere egiten zitzaigun sinestea; neroni ere bai lehenengo, aitor dezadan.

Zuk ez al zenuen aztertu azentu hori?

Hualde ere Ameriketara zegoen nik tesia egin nuenean eta irakurri zuen nire lana eta esan zuen Bizkaiko azentu tonala ez nuela ongi ulertu. Nik beste bizkaiera bat aztertu nuen, eta batik bat gaztelera edo frantsesarekin dituzten interferentziak, baina Bizkaiko kostaldeko azentu hori ez nuen aztertu, ez neurtu, Arratikoa ikertu bainuen tesian.

Berak zioenez, kostaldetik autobidera bitartean kokatzen da azentu mota hori Bizkaian, eta euskal azenturik jatorrena edo zaharrena izan daiteke. Dena den, auzi horrek sekulako arazo historikoak planteatzen ditu eta berriro dakarkigu gogora galdera zaharra: bizkaiera harrigarriro desberdina da.

Hualdek geroztik egin al da arlo honetan aurrerapiderik?

Hualderen ondoren Gamindek Gatikako euskarari buruzko bere tesia egin zuen eta erabat frogatu Hualdek zioena. Hualdek teorian zioena Gamindek herriz herri neurketak eginez frogatu du. Gaitza izan da bi gizon hauek euskal azentuaren arloan egin duten lana.

Frogatu dutenaren arabera, Nafarroako euskalkiak dira interferentzia gehien nozitu dutenak punta batean. Gipuzkoa erdian geratzen da eta Bizkaikoak dira, kostaldetan batez ere, jatorrizko azentua ondoen gorde dutenak.

Gai hau liluragarri iruditzen zait. Urte pilo bat atzerrian egindako “euskal-yankee” batek ematen dizkigu lezioak honetan. Lafonen kezkek, Hualdek azkartu ditu orain. Eta Mitxelena bezain garrantzitsua izan da euskalaritzan; azken urte hauetan bestela badirudi ere.

Zer irakasten duzu orain fakultatean?

Alde batetik Soziolinguistika erakusten dut. Badakizu: hizkuntzaren eskubideak, diglosia egoerak, normalizazio prozesuak eta abar, eta bestetik soziolinguistika matematikoa. Orain bost urte hasi nintzen euskararen erabilpena neurtzeko kalkulu matematikoak prestatzen eta aurrerapauso politak egin ditugu arlo honetan. Oso azterbide originala izan da eta uste dut erabilpen handikoa izango dela. Nolabait esateko, Txepetxek kualitatibo gisa aipatzen zituen joerak nik kalkuluz halaxe gertatzen direla frogatu dut eta, beste modu batera esanda, matematikatik abiatuz, Txepetxek erabilpenari buruz eman zituen ondorioetara iritsi naiz

Badakit ez dela Einsteinen teoria, baina gutxienez inori kopiatu gabe asmatutako lana da.

Xabier Isasi, psikologia sozialeko irakaslea, eta Lore Erriondo, pedagogiakoa, ari dira modelo honekin lanean eta sekulako azterketak egin dituzte euskararen egoera neurtzeko. Beste alde batetik, Fito Rodriguezekin batean Urola bailarako eta Aiako euskararen kalitate-neurketak egin dituzte eta uste dut oso lan politak direla. Kalitate kontzeptua, noski, matematikoki neurtzen dute.

Nolabait esateko, lan horiek interpretatzeko behar zen oinarri teorikoa gure taldean mamitu da, hein batez. Siadecorekin eta beste zenbait erakunderekin harremanetan gaude, lan hauek haiei ere interesatzen zaizkielako.

Bertsolaritza gustatzen al zaizu?

Herri euskara lantzeko irakurri edo entzun ditut gehienbat bertsolariak, baina zaharrak zaizkit baliagarrien, Xenpelar, Txirrita, Mattin eta horrelakoak. Auspoa saileko liburu asko aztertu nuen garai batez, Patxi Iturzaeta azpeitiarra, esate baterako, izugarri aberatsa da euskara aldetik. Auspoako liburua goitik behera oharrez beteta daukat eta inoiz Iturzaetari buruzko lantxo bat egiteko asmoak ere izan ditut.

Gaurko bertsolari gazteak askoz ere gutxiago interesatzen zaizkit. Batzuetan programatutako bertsolariak iruditzen zaizkit. Aspaldikoek beste kutsu bat zuten.

Telebista ikusten al duzu?

Ingelesez ikusten dut batik bat, belarria egiteko. Espainola inoiz ez eta Euskal Telebista amorratu arte ikusten dut, hau da, pare bat minutu. ETBrena desastre bat izan da ideologia aldetik. Telebista ofizialista eta neurri handi batean antiabertzale bat egin dute, eta ETB2, berriaz, PSOEren eta PPren katea da, espainolista guztien ametsa. Begiratu ere ez. TVE hobe.

Ba al duzu gastronomiari buruzko interesik?

Ez. Ez naiz bat ere mokofina eta aitortu beharra dut analfabetoa naizela sukaldaritzan. Edozer gauzarekin konformatzen naiz edo, hobeto esan, edozer gauza gustatzen zait.

Tabakorik erretzen al duzu?

Ez dut inoiz erre. Puru bat noizean behin, lagunekin afariren bat egiten dudanean edo. Atzo, esate baterako (San Juan biharamuna da) Donostiako lehengo lagunak etorri ziren, Rafa Albisu, Mikelen aita, Antiguako nire lehengusuak eta gaztetako koadrilako beste zenbait. Badiira 10 urte San Juan gauean hona, Amasara, biltzen gara. Bakoitzak bere partea ekartzen du eta Jonek plato bat prestatzen. Kasu horietan puru bat pizten dut, baina ez dakit erretzen; eta normalean bizpahiru aldiz itzaltzen zait.

Oporretan zer ohitura dituzu, turismo politikoa egitea gustatzen al zaitzu?

Ezta pentsatu ere. Turismo ez-politikoak egitea gustatzen zait eta bake santuan ibiltzea. Aurten ez dakit nora joango garen. Ekonomiak agintzen du horretan gehien. Ameriketara joatea gustatuko litzaidake, Kalifornian orain urte batzuk ikusitako bazterrak berriz ikustea. Egia da amerikarrek badutela alderdi bat erabat arbuia garria. Munduko jaun eta jabe sentitzen dira eta ez dute gizartearen arazo askorekiko inolako sentsibilitaterik. Han dagoen despilfarroa, esate baterako, izugarria da. Nahikoa da ura nola gastatzen duten ikustea. Etxe aurreko jardinetan garaztailuak goizero irekita izaten dituzte. Munduan arazorik ez balego bezala bizi dira, baina badituzte alderdi interesgarriak ere. Alabaina guretzat oso urruti dago Amerika eta ezinezkoa ikusten dut hara beste itzuli luze bat egitea.

Iaz Londresera joan ginen, ingelesagatik batik bat. Menderatzen ez dudan hizkuntza da eta tarteka lantzen ez badut erabat narrasten zait.

Urte askoan Frantziara joan izan gara oporretan. Bertan zegoelako eta hizkuntza menderatzen nuelako seguru asko. Orain nahiago dut ingelesa hitz egiten den leku batera joan.

Orain dela gutxi Eneko Landaburu mediku higienistarekin egon zara astebetetz sendaldi bat egiten. Bejeterianoa al zaitugu?

Oraindainokoa ez. Nik Eneko Landaburu Egin egunkarian idazten zituen artikuluetatik ezagutzen nuen, besterik ez. Enekok Azkonan dauka bere atsedeen-etxea, baina nik ez nuen ezagutzen. Jonek bai, emazteak ezagutzen zuen hango ingurua, Zirizako Bentan dagoen beste atsedeen-etxea, Bizkarra medikuak zuzentzen duena, eta tarteka joan izan da egun batzuk pasatzera.

Kontua da nik odol-tentsioa dudala gaizki. Ameriketara operatzera eramanean nindutenean deskubritu zidaten, 1982an. Nik ez nekien ezer, ordura arte ez bainuen inoiz analisirik egin. Geroztik tratamenduan nago eta azken bolada honetan hiru pastilla desberdin hartzen nituen egunero. Horrela ezin nuela jarraitu eta emazteak animatu ninduen Eneko Landabururengana joan eta aproba egiteko. Astebeteko sendaldia egin dut.

Ez dakit jarraitzeko indarririk izango dudana. Frijitu guztiak debekatu dizkit, ogi gutxiago, barazkiak etengabe jan behar ditut eta ejerzizio pixka bat egin. Hemen daukat egunero egin beharreko taulak... Flakialdi hauek ongi etorri ohi dira.

Zer jaten zenuen Azkonako etxe horretan, zer egiten zenuen?

Goizean fruta jaten genuen eta eguerdian entsalada plater handi bat lehenik eta barazkiak ondoren eta afaritan ere antzera. Ni ez naiz inoiz jatenarekin esijentea izan eta hori erraz eramaten dut. Gutxiago gustatu zitzaidana bertako giro bitxia izan zen. Leku horretan jende asko dago, ordea, arazo larriekin, arazo psikologiko edo mentalekin esango nuke, eta halako terapia sesio batzuk egiten zituzten. Bakoitzak bere arazoak kontatu behar zituen denon aurrean. Landabururi esan nion ez niola zentzurik ikusten horrelako terapia bati. Nik konprenitzen dut jende baten-tzat taldean penak kontatzea lasaigarri izan daitekeela, baina niretzat oso gogorra eta zentzurik gabekoa. Geroak erranen!

Jonek nortasun handiko emakumea dirudi. Zu ere nortasun handikoa zara. Ez al dizue konponezinik ekarri horrek?

Biok arlo desberdinetan mugitu gara, nahiz eta bakoi-tza bestearen erabakiekin gehienetan konforme egon. Esan beharra daukat Jone ni baino askoz ere gehiago arduratu dela eguneroko etxeko edo familiako martxaz; honi esker, seguru asko, ez da familia osoa erre kara joan. Militante abertzalea izan naiz. Ni areago mugitu naiz ideologi edo politika arazoetan. Baina adostasun handia egon da gure artean. Erabaki politiko nagusietan Jone ere konforme egon da eta eguneroko gorabehera asko ere, baserri honetara bizitzera etortzea, esate baterako, bion artean erabaki ditugu.

Bikote askotan bata bestearen frenu izaten da. Nik izan ditut politikaren arloan borroka egiteko orduan biko-

tearen aldetik arazo larriak izan dituzten adiskideak. Zorionez, ez da nire kasua izan. Jonek egin du posible, du-darik gabe, nik eramán dudán bizimodu zail eta eskerga-bea. Eta Jonek bideratu du gu seion multzoa. Badakit, eta adiskideek badakite.

Zein da Joneren bertute nagusia?

Arestian esan dudana. Arranke izugarrikoa da, ausardia handikoa eta beti aurrera jotzen duten horietakoa. Niri oso bizimodu gogorra tokatu zait. Ekonomi aldetik, esate baterako, desastre bat izan da nire bizitza. Urteak egin ditut poltsikoan paperik eta dirurik gabe eta aseguru sozialik gabe. Eta hala ere ez dugu elkarren artean gauza horiengatik arazorik izan. Elkarlaguntza hori izan ez banu, aspaldidanik... potto!

Nik ezagutzen ditudan emakume askok ez zuketén bizimodu hori eramango. Hor ibiltzen dira Urbieta kalea ez zaiela gustatzen bizitzeko eta Grosera joan nahi dutela edo, alderantziz, Gros ez zaiela gustatzen eta Urbietara nahi dutela aldatu. Guk ez dugu horrelako ika-mika merkerik izan egundo.

Pasa gaitezen seme-alabak aipatzera. Oker ez bagaude, zaharrenak bizkiak izan zenituzten.

Bai, Joseba eta Jon dira zaharrenak. Bizkiak dira, baina arras desberdinak. Politikaren alorrean, Joseba familian dugun elementurik militanteena da. HBko Mahai Nazionalean dago. EHEko buru izan da eta beste hainbat gauza. Atzo bertan Tourra Iruñera iritsi zelarik, Leblanc-ekin, itzuliko zuzendariarekin hizketan ikusi nuen telebistan. Egia esan, Mikel ez da Joseba baino apalago mili-

tantzi mailan baina berau ekologiaren alorrean mugitzen da. Partidu politiko guztiekiko da uzkur, HB barne.

Ba al du Josebak zure antzik?

Zenbait aldetatik desberdinak gara. Nik esango nuke bera ni baino askoz ere errealistagoa dela. Biok politika egiterakoan antzera pentsatzen dugu. Baina ideologiaz desberdinak gara. Nik, esate baterako, askoz ere gutxiago sinesten dut gaur ezker klasikoaren etorkizunean, iraultza sozialistaren proiektuan. Ikusi ditudanak ikusita, kosta egiten zait gizartea errotik sozialismoak aldatuko duela sinestea. Josebak eta gaurko gazte abertzale batzuek marxismoaren eraginez hori sinesten dute oraindik nola-hala. Belaunaldi kontua izan daiteke. Niri makro-esperantza horiek anakronismoak iruditzen zaizkit. Lehen asko eztabaidatzen genuen, baina orain gutxiago. Independentistak gara. Osoki. Bera eguneroko borrokan buru-belarri sartuta dabil eta ez zait ondo iruditzen nik daramadan bizimodu lasaiagotik HBren ez-dakit-zer edo ETAREN ez-dakit-zein ekintza kritikatzten hastea eta isildu egiten naiz. Isildu egin behar dudala pentsatzen dut. Bide hoberik ez baita ageri.

Esan dudan bezala, politikagintzan, Joseba ni baino pragmatikoagoa da, ni baino "politikoago" agian. PNVri buruzko jarrera, esate baterako, nik baino askoz ere irekiagoa du. Nik ez dut PNVko buruzagirik argazkietan ere ikusi nahi. Aski dut. PSOEkoak gutxiago, noski; baina PNVrekin neure onetik aterata jartzen naiz, fartsante hutsak iruditzen zaizkidalako. Josebak horretan zentzu politiko gehiago erakusten du, edo egonarri handiagoa. Nik dakita?

Ikasketa aldetik ez du aurrera egiteko astirik hartu. Quebec-era joan zen soziolinguistika egitera eta Irlanda eta Euskal Herriari buruzko azterketa konparatibo bat egiteko asmotan itzuli zen. Jaurlaritzari eskatu zion beka bat eta ezetza eman zioten. Ez omen zuen-eta tesi horrek interesik, ez dakit zergatik. Eta poliki-poliki Euskal Herrian Euskaraz taldean eta politikan sartu zen. Eta oso zaila da eguneroko politika egin eta ikasketa akademikoak ondo eramatea. Oraingoz, eta nik uste dut luzerako, utziak dauzka ikasketak. Dena den, Donostiako Euskal Txokoko plaza atera zuen eta orain zinegotzi dagoelarik, eszedentzian dago, baina egunen batean lan horretan hasi eta bizi-modu errazagoa eramateko moduan izango dela espero dut.

Orioko neska batekin ezkondu zen, Loren Loidi, eta haur bat dute, Eneka. Donostian bizi dira, Fermin Kalbeton kalean; Parte Zaharrean eta ez Antiguan...

Bere anaia bizkia, Jon, nolakoa da?

Itxuraz, "el Gordo y el Flaco" bezala dira. Ez dute elkarrekin inongo antzik. Jon majisterioa bukatu eta balleta egiten hasi zen. Marseillako talde batean ibili zen eta profesionalki horretara dedikatzeko zorian egon bazen ere, utzi egin zuen, diziplina gogorregia eskatzen duelako beharbada. Gimnasta ikusgarria izan da eta ultrabejetarianoa. Etxera etortzen den bakoitzean, sekulako bronkak entzun behar izaten ditugu, gehiegi eta gaizki jaten dugulakoan.

Noski, abertzalea da, baina oso autonomoa. Euskal-tzalea da bereziki. Ez da talde gizona. Lezon bizi da eta ez du seme-alabarik. Jonek eta biok, adarra jotzeko edo, esaten diogu, baduela edadea seme-alabak izateko, baina beldurra ematen diola erantzuten du Amaiak. Amaia

Etxeberria hau Mendarokoa da, eta irakasle; eta beraren bizilaguna. Idazteko gogoia ere izan du Jonek, eta euskal literatura hurbil xamarretik segitzen du; eta euskara, bere anai-arrebek baino hobeto menderatzen.

Maddi dator ondoren, alaba. Nolakoa da?

Etxeko "normalena" bera dela esango nuke. Filologia ingelesa egin zuen. Britainia Handian egin zuen denboraldi bat eta Laskurain ikastolako BBBn ingelesa ematen du. Errenteriar (barkatu, oreretar) batekin ezkondu zen, Martin Eizmendirekin, eta han bizi dira. Neska-mutilak dituzte: Manex eta Mauriñe.

Maddik egunero egiten du Tolosatik joan-etorria eta askotan igotzen da bisita egitera. Bera da etxera gehien etortzen dena. Gasteizen ikasle zegoenean, dexente mugitu zen Euskal Herrian Euskaraz herri-ekimenean.

Zer-nolako aldea dute edade aldetik?

Esan bezala, bizkiak dira zaharrenak eta urtebeteren aldea bakarrik du Maddik. Ondoren Mikel dator bi urteko aldearekin.

Eta nolakoa da Mikel?

Mikel da kultura aldetik jantziarena. Erruz irakurri duen mutila da, nahiz eta karrerarik ez duen egin. Deustuan soziologia egiten hasi eta hiru hilabetez iraun zuen. Berak ez zuela sistemarekin kolaboratu nahi, eta etxera itzuli zen. Anarkista erradikala da, Beltzaren miresle erabatekoa eta politikaz gehien irakurri duena. Hori bai, oso eszeptikoa, gehiegi nire ustetan.

Trintxerpen bizi da okupen etxe batean. Ni batzuetan izan naiz bisitan eta ikustekoa da leku hori. Esertzen zara

bazter batean eta zakurrak ateratzen dira ilaran ate batetik eta katuak bestetik. Ikusgarria! Egia aitortu behar badut, nik ez dakit nondik bizi den. Jone sarri joaten da, etxera semea ez baita kasik etorri ere egiten.

Mikel beti ibili da mugida ekologistetan sartuta. Autobiaren kontrako borrokan ibili zen buru-belarri eta han ezagutu zuen Leitzako neska batekin bizi izan zen denboraldi bat eta haur bat izan zuten, Garazi. Neska, Eleni Zabaleta, Iñaki Zabaletaren arreba da. Umea amarekin bizi da Leitzan eta inoiz behinka elkarrekin etortzen dira hona, baina beste hirurak baino gutxiagotan.

Haurra izatea erabaki zutenean ere esan zigun Mikelek, ez zutela horregatik elkarrekin bizitzen segitzeko asmorik.

Mikel Abiadura Handiko Trenaren aurkako mugidan dabil orain oso gogor. Inoiz etxe honetan kointziditu dutelarik, Josebak eta Mikelek eztabaida gogorrak izaten dituzte. Mikelek HB “alderdi konbentzionala” bihurtu dela leporatu ohi baitio eta Joseba defenditu egiten da, noski. Nork bere modura laurek heldu diote gure herriaren arazoari, are maila militantean ere. Ez dut kexarik!

Baserri hau liburuz betea daukazu. Kontatuko al diguzu liburutegia nola osatu duzun? Ba al duzu gurasoengandik jasotako libururik?

Gurasoengandik oso gutxi jaso dut. Aitona zen oso liburuzalea eta haren biblioteka bagenuen etxean; baina nik ihes egitean, anaia Juan Mari geratu zen liburu eta paper horiekin. Baina bolada txarrak pasa zituen diru aldetik anaiak eta osasun arazoak eta nik uste dut biblioteka hori saldu edo erdi-likidatu egin zuela.

Hemen daudenak nik erosiak dira gehienbat, ohitura handia baitut etengabe erosteko. Konturatu gabe egiten dut hori. Orain, Azkonan egon naizen astebete horretan ere Irantzuko monastegira joan ginenean Nafarroako Diputazioak zaharberitutako liburutegia topatu nuen, salmentarako liburu eta guzti eta bertako toponimiari buruzko bizpahiru liburu erosi nituen. Etengabe egiten dut hori eta horrela joan naiz liburuak pilatzen.

Inoiz ordenatu, katalogatu edo fitxerorik egin al duzu?

Zorionez oso memoria ona dut liburuak non dauden asmatzeko. Beste gauza batzuetarako ez dut batere memoriarik, baina horretarako bai. Begira: hemen dagoen liburu hau behar nuen atzo Donostiako historiari buruzko datu bat kontsultatzeko eta hemen dagoen desordenu izugarri honetan lehen kolpean aurkitu nuen. Inoiz izan dut ordenatu eta pixka bat zer dagoen argitzeko gogoia, baina ez dut horretarako astirik. Eta galderari erantzunez, fitxero batzuk izan ditut, bai; baina erdipurdikoak.

Zer liburu mota dago gehien, hizkuntzalaritzakoak?

Seguru asko bai. Baina boladak izan ditut. Bolada batean literatura zen gehien erosten nuena, saioak ondoren eta horrela. Oro har, saioa eta hizkuntzalaritza dira nagusi, nik uste; eta Euskal Herriari buruzkoak, noski, horiek beti erosi izan ditut.

Eta jarraitzen duzu gaur egungo literatura?

Ni neure hogeitaka urteetan irakurle amorratua nintzen, eta literatura ere irakurri nuen, zenbait urtez. Gerora, denborarik ezaz, galdu egin dut hori. Nahiz eta guztiz in-

teresgarrizat jotzen dudan irakurketa: bai literaturaren alorrean, bai zientzietan ere.

Orain Jone bihurtu da nire “leiho estetikoa”. Irakurle nekagaitza denez (“une lectrice vorace”, diote frantsesez), beraren bidez jarraitzen dut nola-hala, euskaldun musikarrien, artisten eta literaturgileen mundua eta eboluzioa. Berak nik baino askoz hobeto ezagutzen baitu.

Zein da baserri honetan lan egiteko erabiltzen duzun lekua?

Erostean, etxe hau erortzeko zorian zegoen eta salbatu egin genuen. Beraz, etxea osoki neurea bezala sentitzen dut. Kanpotik datorrenak ez du hori ikusiko, baina nahikoa diru sartu dugu hemen. Uda partean hemen kanpoan, jardin moduko honetan egotea asko gustatzen zait. Egongelan egiten dut lanik gehiena edo neuretzat prestataturik dudan despatxu moduko gela txikian. Etxeko parterik berriena, sabaia, berritzean geuk eraiki genuen parte da eta batzuetan pentsatzen dut hor jarri beharko nuela neure lanerako lekua, baina liburuak egongelan eta gela txiki horretan dauzkat.

Zer egin zenuen erbestetik itzuli zinen egunean?

Nire anaia joan zitzaidan bila Hendaiara muga nirekin pasatzeko, Juan Marik ezagunak baitzituen mugako zaindariaren artean eta orduan esan zidan buru egiten zuen guardia zibilak delako “¡Bienvenido a España! ¡Perdón, bienvenido a Euskadi, señor Alvarez!” hura. Ez nuen, noski, adiskide talderik nire zain. Isilka antzean itzuli nahi izan nuen. Itzuli, lanean hasi eta kito.

Gogoratzen naiz haurtzaroan “Guria” jatetxera joaten ginela. Ez dakit neuk ere zergatik nuen kapritxo hori. Be-

harbada umeak ginenean gurasoekin askotan joaten ginelako. Erbestean nintzenean seguru asko horrekin asko gogoratzen nintzen eta itzultzean familia osoa joan ginen Gurian bazkaltzera.

Nik autopista ez nuen ezagutzen. Donostiako bariantea ere ez. Eta horrek egin zidan inpresiorik handiena. Autoan Grosera iritsi eta ikusi nuen lehenengoetako pertsona, nire ama izan zen, kalean bertan, etxetik irten eta norabait baitzihoan.

Gogoratzen naiz baita ere optimismo handia zegoela garai hartako giroan eta neu ere oso baikor sentitzen nintzela. Oso garrantzizkoa zen niretzat taberna batera sartu, gosaria euskaraz eskatu eta tabernariarekin euskaraz hitz egin ahal izatea. Euskaraz asko hitz egiten zen inpresioa jaso nuen nik bolada hartan. Hamasei urte hartan euskarak egina zuen bide. Eta lasai hitz egin eta idatz zitekeela!

Zer harreman izan duzu zuk abereekin. Noiztik izan dituzu zakurrak etxean?

Betidanik izan dut zakurren bat etxean. Ezin dut horrela, bat-batean konturik atera, baina dozena bat zakur ezagutu ditut nik neure etxean. Antiguako etxean ere terraza bat genuen eta han edukitzen genuen zakurra txabola batean. Hemen baserrian hiru zakur izan ditugu. Bat orain dela gutxi hil zitzaigun. Potzo zuen izena. "Potzo" zakurra da Iparraldeko zenbait lekutan. Orain bi geratzen zaizkigu, aita-sembleak dira. Zaharra Laister da eta semea Beltza. Laister Juan Jose Rekondok erregalatau zidan, *Punto y Hora* aldizkarirako elkarrizketa bat egitera joan nintzaionean. Rekondo oso tipo interesgarria zen, oso dinamikoa, ETArengatik inguruan ibilia. Berak erregalatu zidan,

beraz, zakurra, eta semea hemen baserrian jaioa da orain dela sei bat urte.

Lo asko beharreko pertsona al zara? Zenbat ordu egiten duzu lo?

Normalean sei bat ordu egiten dut segidan eta beste erdi bat-edo erdi lotan bazkalondoetan. Ni 11,30etan edo 12etan joaten naiz ohera eta ezeren okerrik ez bada, 6ak arte edo egiten dut lo eta gero ordubete bat edo bi egiten ditut propinazkoak, erdi-lotan. Baina nik ez dut ohean lo eta lo egoteko balio, umore txarrean jartzen naiz eta ez dut inoiz 8etatik aurrera lorik egiten.

Zer moduz zabilta pazientziaz?

Oso pazientzia gutxi dut. Beharbada oso erreta nagoe-lako da. Gauza askok eta bereziki pertsona batzuek nire onetik ateratzen naute. Badakit hori akats handia dela, ez nukeela umorea hain erraz galdu behar, baina nire gaintetik dagoen gauza da. PNVko politiko teknokratikoeak, EEko progreek edo PSOEko espainolistek nire onetik ateratzen naute. Ni ez naiz gauza gaur jende horrekin mahai batean eseri eta eztabaidan ezertaz aritzeko ere. Nire gaintetik dagoen gauza da. Nahiagoko nuke nik ere patxada hori izatea, baina ezin dut. Galdua dut.

Euskaltzaindian ere gailen ikusten ditut delako progrehoriek. Hiru eguneko bizarrarekin agertzen dira telebistan. Pentsa zenbat kalkulatu behar den telebistan atera baino hiru egun lehenago bizarra kendu gabe egoteko, eta dena modari segitzeagatik. Horrelakoak dira. Modakume huts-hutsak.

Zu gutxi samar ateratzen zara ETBn.

Hasieran, etorri berria nintzenean maizago deitzen zidaten. Gero isten joan dira. Ez da nire problema. Nik ez

dut hor ateratzeko inongo gogorik, HBren kontrako blokeo garbia ezarri dute. Egia esan, ez du merezi ere telebista piztea, kirola ikusteko ez bada; ETB Euskal Herriaren kontrako tresna bihurtu baita PNV eta PSOEn arteko konponketen ondorioz.

Zuk segitzen al duzu kirolik telebistaz?

Ziklismoa bakarrik. Futbolak ez duela merezi pentsatzen dut. Egia esan, ez zait gustatzen, baina horretaz gainera uste dut negozio soil bihurtu dela. Ziklismoan ere diru asko mugitzen da, baina badauka oraindik kirolek duten alderdi erromantiko hori. Gainera, bakarkako ahaleginak futbolean baino gehiago kontatzen du eta beharbada horregatik gustatzen zait.

Gaztetan ere segitzen nuen nik Tourra. Easo kalean bazen Donostia taberna edo denda bat, kanpoan irratiz jasotako sailkapena jartzen zuena eta Antiguatik haraino jotzen ginen egunero etapa zeinek irabazi zuen jakitera. Gerroztik beti segitu ditut itzuli handiak, oso bertatik ez bada ere, gutxi gorabehera, eta hiru aldiz izana naiz Parisen Tourraren bukaera ikusten. Atzo bertan entzun nizkion Induraini zenbait adierazpen Iruñean etapa bukatu eta gero. Aurtengo Tourra galdutzat ikusten zuen, baina gizatasun maila ona erakutsi zuen, beste batzuei ere lekua utzi behar zitzaiela eta abar esanez.

Zure aspektu fisikoa zaintzen al duzu?

Inoiz ez naiz izan ni oso narzisista alde horretatik. Beharbada lehen, emakumeekin ilusio gehiago izan neza keenean, saiatuko nintzen zerbait gehixeago, baina orain behintzat ez dit batere ardura nire itxura fisikoak. Noski,

zerbait bai. Ez zait gustatzen zerri bat bezala joatea, baina ez dut sekula horrekin problemarik egin.

Gogoratzen naiz oso gaztea nintzela nola “chaqueta tirapedos” izeneko batzuk egon ziren modan, atzean alde banatara irekitzen zirenak. Amari buruan sartu zitzaion nik ere horrelako bat eramane behar nuela, mundu guztiak eramaten zuelako eta sekulako bronka izan genuen. Nik betiko txaketarekin ibili nahi nuela esaten nion eta berak ezetz.

Gero ere harrigarri egin zait beti zenbait gizasemek modari segitzeko erakusten duen lehia hori. Nik uste dut gizaseme normal bat ezin daitekeela txorakeria horiekin denbora galtzen ibili. Aktore batek, bere bizimodua hortik atera behar duen batek, kezka horiek izatea normala iruditzen zait, baina gu bezalakoak. “De niño mono por la vida”. Otoi!

Zertan okupatzen duzu burua orain?

Beti ditut lan atzeratuak. Orain, esate baterako, Egin egunkariko promozio sailetik eman didaten enkargu bat prestatzen ari naiz. Euskarari buruzko ehun orrialdeko liburuskada da. Horretarako irakurri egin behar dira gauzak eta dagoeneko eskema egina dut eta ikusi egiten dut liburua. Hori oso inportantea da, idazten hasi aurretik liburua ikustea. *Lingua navarrorum* izango du izenburua eta uda bukaerarako amaitu nahi nuke.

Euskarari buruzkoa da, baina alderdi asko ukituz: aurkezpen liguistikoa, soziolinguistika apur bat, historia eta abar. Liburu eragile bat egin nahi nuke, jendearengan euskararen aldeko lehia pizteko. Liburu hau gaztelaniaz idatzi beharko nukeen, alde batetik, baina ez zait ateratzen

edo hobeto esan ezin dut. 1996an orandik erdaraz idatzi? Aski da.

Nik gaztelaniaz idatzi dudan liburu bakarra Telesforo Monzonekin bizi izan nintzenean idatzi nuen Nogaron. Pixka bat horretara beharturik egin nuen liburu hura. *Proyecto de manifiesto vasco*, *Branka* aldizkari osoa biltzen duen edizioan sartu zuten liburuska hori, bestela ez baitzen inon aurkitzen. Nik ez dut beste libururik idatzi erdaraz eta ez idatziko ere, nik uste.

“Fronte abertzalea” eraiki nahian genbiltzan eta horretarako oinarri teorikoak finkatzeko-edo, liburu hori idazteko premia aipatu zuten edo, hobeto esan, enkargatu zidan Telesforok, eta horrela egin nuen.

(*Branka* aldizkariaren bilduma dakar bibliotekatik eta zabaltzen duenean, Bitoriano Gandiagaren marrazki bat agertzen da: guardia zibilak mugan Txillardegiri andaluz azentuarekin galdezka. Izugarri marrazki polita da.)

Noiz eta nola eman zizun marrazki hau Gandiagak?

Arantzazun nengoela bete nituen urteak eta zorionak emateko marrazki honekin etorri zitzaidan. Nonbait gorde behar eta hemen gorde nuen. *Euskal fonologia* prestatzen ari nintzen urtea izan zen. Badira urte batzuk. Badut berriro ere Arantzazura joateko gogo. Asko gustatzen zait hango giroa.

Konta iezaguzu nolakoa den oporretako egun bat hemen, Bidarten.

Goizean 9ak aldean gosaldtu, zakurrak hartu eta Sorrodorera, hor behean dagoen errekarra joan-etorria egiten dut. Igo ondoren batzuetan pianoa jotzen dut eta pianoa-

ren ondoren lanean hasten naiz. Bazkalondoan, entsalada eta barazkiak jan ondoren alegia, lo-kuluska txiki bat egiten dut eta arratsaldean ere libururen bat izango dut eskuetan, pianoa jotzen ari ez banaiz behintzat. Baina ordu-tegi aldakaitzik batere gabe. Horretan ez naiz batere frailekumea.

Ez al duzue irteerarik egiten?

Bai. Tarteka egiten ditugu irteerak. Atzo, esate baterako, Donostiako Islara joan ginen. Nik Uhartearekin harreman handia izan dut. Etxean osabak bazuen piragua bat eta harekin joan ohi ginen askotan eta 14 urtetik aurrera igerian ere bai. Gure garaian bazen Belmonte izeneko txalupa bat kaitik jendea eramatera dedikatzen zena. Eta harekin ere maiz joaten ginen, bokadilloak hartu eta egunpasa.

Badago Donostian “Amigos de la Isla” izeneko elkarte bat ondare hori zaintzera dedikatzen dena, arbolak sartu eta txukun atxikiz. Askotan esaten diot Joneri elkarte horretako partaide egin beharko nukeela, asko gustatuko litzaidakeela.

Liburuskaren bat idaztekotan ere ari naiz Santa Klara uharteaz, oso historia bitxia baitu Islak. Kontuan izan leku militarra izan zela eta lazareto bat ere bazegoela eta hiriburuan izurriteak zirenean gaixo kutsatuak han sartzen zituztela. Kontua da atzoko eguna hor pasatu genuela. Bokadilloak eramanez gero, ura bertan dago, oso ezaguna baita uharte hain txikia izanik ere, ura jaiotzen dela bertan eta iturri bat dagoela.

Irteera txiki horiek gorabehera, ez dugu aurten inora mugitzeko asmorik. Beharbada egun batzuk Arantzazura eta astebete Cauterets-en, Pirinioetan. Han badago Etxe

Ona izeneko hostal bat zuberotar batek daramana. Oso leku atsegina da eta inoiz joan izan gara.

Orain dela egun batzuk Juan Jose Etxabe hil da. Zer harreman izan zenuen berarekin?

Lehenago aipatu dudan bezala, Martutenen egokitu nintzen Juan Jose Etxaberekin eta geroztik harremanik izan dut berarekin, nahiz eta orain dela 30 bat urte tirabirak ere izan genituen elkarrekin. Nik ETA uztea erabaki nuelarik, sekulakoak esan zizkidan Iparraldean. Bilera izugarri gogorra izan genuen Angelun. ETAREN historiako une giltzarrietan, ordea, izugarri garrantzitsua izan zen gizon hori. "Oficina Política" delakoaz felipeak nagusitu zirenean, adar militarrean lau katu geratu ziren eta meritu izugarria izan zuen Etxabek, eutsi eta aurrera jarraitu zuelako. Mugarik gabeko potroak zituen. Nik ezagutu dut Juan Jose Etxabe gose greba luze baten ondoren, urik edan gabeko grebari ekiten. Ezin zuen hitz egin, baina, hala ere, segitu egin behar zuela esaten zuen, bizia bera nabarmenki arriskatuz. Etxaberen kastako gizonek egin zuten ETA, dena emateko prest zegoen jendeak.

Hamaika bala zituen gorputzean. Emaztea eta anaia hil zizkioten atentatuan eta bera larriki zauritu.

Izugarri tipo gogorra zen. Nolabait esateko, ez zekiela galtzen esango nuke. Kartzelan geundela ere, gogoratzen naiz nola Jon Ozaeta izeneko arrasatear batek pilotan irabazten zion. Juan Josek galtzen ari zela ikusten zuenean, nahiago izaten zuen pilota hartu eta oso-oso urruti bota eta pilotarik gabe geratzea, partidua galtzea baino.

Euskarazko klaseak ematen nizkien nik kartzelakideei eta horretan ere kosta egiten zitzaion amore ematen. Zer-

bait ulertzen ez bazuen, nahiago izaten zuen berearekin irten, nirea onartzea baino. Denean zen tipo gogorra.

Eta bukatzeko, ausartuko al zinateke prospektiba pika bat egiten? Nolakoa izango dela uste duzu Euskal Herria hemendik hamar urtera?

Batzutan ez du ematen. baina gure herri hau esnatua da; eta aurrera egingo du. Bide gogorretik, noski.